

# Jagon bilduma

Zuzendaria: ANDRES IÑIGO (Jagon Sailburua)

Argitaratutako lanak / Títulos publicados:

1. *Bertsolari txapelketa* 1982. 1983
2. ZZ.EE./AA.VV.  
*Iparragirre*. 1987
3. *Euskararen sustatzea*.  
*Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2006)*, 2006
4. MIQUEL GROS i LLADÓS  
*Recuperación del Euskera en Navarra*. 2007
5. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
Sustapen Batzordea  
*Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz*. 2007
6. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA/  
EUSKALTZAINDIA  
*Zenbait orientabide erregistroen tratuaz*. 2008
7. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
Corpus Batzordea  
*Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. 2008
8. MIQUEL GROS i LLADÓS  
*El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca (2009)*. 2009
9. ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS  
*Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian. L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord*. 2010



9 788405 434861



Euskaltzaindia  
Real Academia de la Lengua Vasca  
Académie de la Langue Basque

Laguntzaileak:



Office public de la langue basque



9

Hizkuntzaren erabileran eragina duten gizartearen alde guztiak biltzen ditu JAGON Sailak, bai eta hiztunek bizi dituzten kultura arauak, itxaropenak eta testuingurua ere. Euskaltzaindiaren Jagon Saileko *JAGON bildumak* euskararen inguruko hainbat ikerketa eta saiakera hartzen ditu, hizkuntzaren erabilera praktikoa aztertu, eta euskara sustatzeko eta babesteko.




Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian • L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord


Erramun Baxok eta Jean-Baptiste Coyos

## Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian

## L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord



EUSKALTZAINDIA



Erramun Baxok-Indart 1928an sortu zen Suhuskunen, Nafarroa Beherean. Filosofiako doktoregoa egin zuen pertsonalismoaz. 20 urtez Quebecen egon zen filosofia irakasle bai eta ere, 1976-1980 artean, gradu-ondoko ikertzaile Nazioarteko Elebitasun Zentroan, Laval Unibertsitatean. 12 urtez Euskal Herriko Unibertsitatean hizkuntzalaritza aplikatua landu zuen. Ikas, pedagogia zentroan "Euskaraz Bizi" (6 liburuki), multi-media metodoa, antolatu zuen. 1990ean Euskal Kultur Erakundaren sortzaileetarik zen, gero 10 urtez buruzagi egon zen, inkesta askotan parte

hartuz, euskararen egoeraz, euskal kulturagintzaz, gaztetxoek hizkuntza jokamoldeaz, Garaziko hizkuntza bilakaeraz... 1998an Jakin aldizkarian soziolinguistika kronika atxiki zuen, "Euskararen prospektibaz" adibidez. 2008an "Iparaldeko euskararen egoera" liburua argitaratu zuen Euskararen Erakunde Publikoaren izenean. Euskaltzain urgazle da 1995az geroztik eta Jagon sailan lan egiten du, hizkuntza eskubideaz besteak beste. 2010ean Ohorezko Euskaltzain izendatua izan da.

Erramun Baxok-Indart est né en 1928, à Suhescun (Basse-Navarre). Doctorat en philosophie sur le personalisme. Pendant 20 ans, il est professeur de philosophie au Québec et chercheur post-gradué au Centre international de bilinguisme de l'Université Laval de 1976 à 1980. 12 ans d'enseignement et de recherche en linguistique appliquée à l'Université du Pays Basque. Auteur de la méthode multi-média Euskaraz Bizi (6 modules) au Centre pédagogique Ikas. En 1990 il participe à la création de l'Institut culturel basque qu'il a présidé pendant 10 ans, tout en coopérant à plusieurs enquêtes sur la situation de la langue et de la culture basques, le comportement linguistique des adolescents, l'évolution de l'euskara en Garazi... En 1998 il a tenu la chronique sociolinguistique de la revue Jakin, notamment sur la prospective de la langue basque. En 2008, il a publié "La situation de la langue basque au Pays Basque Nord" sur commande de l'Office public de la langue basque. Nommé membre correspondant (urgazle) de l'Académie de la langue Basque Euskaltzaindia en 1996, il prend part aux travaux du département Jagon, notamment sur le droit linguistique. Il a été nommé Ohorezko Euskaltzain (académicien) à titre honorifique) en 2010.



Jean-Baptiste Coyos Etxebarne 1952an sortu zen, Mauléon (Zuberoa). 1974ean lehen mailako irakasle ikasketak burutu zituen eta geroztik irakaslea izan zen 2008 arte. 1991ean hizkuntzalaritza ikasketak hasi zituen René Descartes Unibertsitatean (Sorbonne Paris) eta 1998an hizkuntzalaritza orokorreko doktoregoa eskuratu, Description du parler basque souletin des Arbailles - Étude de l'ergativité izeneko tesiarekin. 1996az geroz kurtsu ematen du unibertsitatean.

1999tik 2003ra hizkuntza politikarako karguduna izan zen Pirinio Atlantikoetako Kontseilu orokorrean eta ikerketa karguduna Baionako Iker zentroan 2004tik 2006ra. 2006an euskaltzain urgazle izendatu dute. Bost liburu eta artikulu asko argitaratu ditu hizkuntzalaritza eta soziolinguistikako alorretan.

Jean-Baptiste Coyos Etxebarne est né en 1952 à Mauléon (Soule). Il a terminé ses études d'enseignant du premier degré en 1974 et a ensuite enseigné jusqu'en 2008. En 1991, il commence des études de linguistique à l'Université René Descartes (Sorbonne Paris) et en 1998 devient docteur en linguistique générale en soutenant la thèse, Description du parler basque souletin des Arbailles - Étude de l'ergativité. Depuis 1996 il est chargé de cours dans les universités. De 1999 à 2003 il a été chargé de politique linguistique au Conseil général des Pyrénées-Atlantiques et de 2004 à 2006 chargé de recherches au centre Iker de Bayonne. En 2006, il a été nommé membre correspondant (urgazle) de l'Académie de la langue basque. Il a publié cinq livres et de nombreux articles dans les domaines de la linguistique et de la sociolinguistique.

# Jagon bilduma

Zuzendaria: ANDRES IÑIGO (Jagon Sailburua)

Argitaratutako lanak / Títulos publicados:

1. *Bertsolari txapelketa* 1982. 1983
2. ZZ.EE./AA.VV.  
*Iparragirre*. 1987
3. *Euskararen sustatzea*.  
*Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2006)*, 2006
4. MIQUEL GROS i LLADÓS  
*Recuperación del Euskera en Navarra*. 2007
5. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
Sustapen Batzordea  
*Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz*. 2007
6. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA/  
EUSKALTZAINDIA  
*Zenbait orientabide erregistroen tratuaz*. 2008
7. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA  
Corpus Batzordea  
*Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. 2008
8. MIQUEL GROS i LLADÓS  
*El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca (2009)*. 2009
9. ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS  
*Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian. L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord*. 2010



9 788405 434861



Euskaltzaindia  
Real Academia de la Lengua Vasca  
Académie de la Langue Basque

Laguntzaileak:



9

Hizkuntzaren erabileran eragina duten gizartearen alde guztiak biltzen ditu JAGON Sailak, bai eta hiztunek bizi dituzten kultura arauak, itxaropenak eta testuingurua ere. Euskaltzaindiaren Jagon Saileko *JAGON bildumak* euskararen inguruko hainbat ikerketa eta saiakera hartzen ditu, hizkuntzaren erabilera praktikoa aztertu, eta euskara sustatzeko eta babesteko.



Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian • L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord


Erramun Baxok eta Jean-Baptiste Coyos

## Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian

## L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord



EUSKALTZAINDIA



Erramun Baxok-Indart 1928an sortu zen Suhuskunen, Nafarroa Beherean. Filosofiako doktoregoa egin zuen pertsonalismoaz. 20 urtez Quebecen egon zen filosofia irakasle bai eta ere, 1976-1980 artean, gradu-ondoko ikertzaile Nazioarteko Elebitasun Zentroan, Laval Unibertsitatean. 12 urtez Euskal Herriko Unibertsitatean hizkuntzalaritza aplikatua landu zuen. Ikas, pedagogia zentroan "Euskaraz Bizi" (6 liburuki), multi-media metodoa, antolatu zuen. 1990ean Euskal Kultur Erakundaren sortzaileetarik zen, gero 10 urtez buruzagi egon zen, inkesta askotan parte

hartuz, euskararen egoeraz, euskal kulturagintzaz, gaztetxoek hizkuntza jokamoldeaz, Garaziko hizkuntza bilakaeraz... 1998an Jakin aldizkarian soziolinguistika kronika atxiki zuen, "Euskararen prospektibaz" adibidez. 2008an "Iparraldeko euskararen egoera" liburua argitaratu zuen Euskararen Erakunde Publikoaren izenean. Euskaltzain urgazle da 1995az geroztik eta Jagon sailan lan egiten du, hizkuntza eskubideaz besteak beste. 2010ean Ohorezko Euskaltzain izendatua izan da.

Erramun Baxok-Indart est né en 1928, à Suhescun (Basse-Navarre). Doctorat en philosophie sur le personalisme. Pendant 20 ans, il est professeur de philosophie au Québec et chercheur post-gradué au Centre international de bilinguisme de l'Université Laval de 1976 à 1980. 12 ans d'enseignement et de recherche en linguistique appliquée à l'Université du Pays Basque. Auteur de la méthode multi-média Euskaraz Bizi (6 modules) au Centre pédagogique Ikas. En 1990 il participe à la création de l'Institut culturel basque qu'il a présidé pendant 10 ans, tout en coopérant à plusieurs enquêtes sur la situation de la langue et de la culture basques, le comportement linguistique des adolescents, l'évolution de l'euskara en Garazi... En 1998 il a tenu la chronique sociolinguistique de la revue Jakin, notamment sur la prospective de la langue basque. En 2008, il a publié "La situation de la langue basque au Pays Basque Nord" sur commande de l'Office public de la langue basque. Nommé membre correspondant (urgazle) de l'Académie de la langue Basque Euskaltzaindia en 1996, il prend part aux travaux du département Jagon, notamment sur le droit linguistique. Il a été nommé Ohorezko Euskaltzain (académicien) à titre honorifique) en 2010.



Jean-Baptiste Coyos Etxebarne 1952an sortu zen, Mauléon (Zuberoa). 1974ean lehen mailako irakasle ikasketak burutu zituen eta geroztik irakaslea izan zen 2008 arte. 1991ean hizkuntzalaritza ikasketak hasi zituen René Descartes Unibertsitatean (Sorbonne Paris) eta 1998an hizkuntzalaritza orokorreko doktoregoa eskuratu, Description du parler basque souletin des Arbailles - Étude de l'ergativité izeneko tesiarekin. 1996az geroz kurtsu ematen du unibertsitatean.

1999tik 2003ra hizkuntza politikarako karguduna izan zen Pirinio Atlantikoetako Kontseilu orokorrean eta ikerketa karguduna Baionako Iker zentroan 2004tik 2006ra. 2006an euskaltzain urgazle izendatu dute. Bost liburu eta artikulu asko argitaratu ditu hizkuntzalaritza eta soziolinguistikako alorretan.

Jean-Baptiste Coyos Etxebarne est né en 1952 à Mauléon (Soule). Il a terminé ses études d'enseignant du premier degré en 1974 et a ensuite enseigné jusqu'en 2008. En 1991, il commence des études de linguistique à l'Université René Descartes (Sorbonne Paris) et en 1998 devient docteur en linguistique générale en soutenant la thèse, Description du parler basque souletin des Arbailles - Étude de l'ergativité. Depuis 1996 il est chargé de cours dans les universités. De 1999 à 2003 il a été chargé de politique linguistique au Conseil général des Pyrénées-Atlantiques et de 2004 à 2006 chargé de recherches au centre Iker de Bayonne. En 2006, il a été nommé membre correspondant (urgazle) de l'Académie de la langue basque. Il a publié cinq livres et de nombreux articles dans les domaines de la linguistique et de la sociolinguistique.





ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS

HELDUEN EUSKALDUNTZEA ETA ETORKINAK  
IPAR EUSKAL HERRIAN  
AEK-ko ikaslegoaren azterketa

L'ENSEIGNEMENT DU BASQUE AUX ADULTES  
NATIFS ET NON NATIFS EN PAYS BASQUE NORD  
Étude des apprenants d'AEK



ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS

HELDUEN EUSKALDUNTZEA ETA  
ETORKINAK IPAR EUSKAL HERRIAN

AEK-ko ikaslegoaren azterketa

L'ENSEIGNEMENT DU BASQUE AUX  
ADULTES NATIFS ET NON NATIFS  
EN PAYS BASQUE NORD

Étude des apprenants d'AEK



EUSKALTZAINDIA

BILBO / BILBAO

2010

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Diseinua: Ikeder, S.L.

Aurreinprimatzea: Ikur, S.A.

Inprimatzea: Baster, S.L.L.

ISBN: 978-84-95438-61-4

Lege-gordailua: BI-1429-2010



ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS

HELDUEN EUSKALDUNTZEA  
ETA ETORKINAK  
IPAR EUSKAL HERRIAN

AEK-ko ikaslegoaren azterketa



## AURKIBIDEA

<b>Aitzinsolasak</b>	
Andres Urrutia ( Euskaltzainburua) .....	13
Jakes Bortayrou (Ipar Euskal Herriko AEK-ko koordinatzailea)	15
<b>I. Sarrera</b> .....	17
I.1. Etorkinak eta euskara: Zergatik ikerketa proiektu hau? ..	17
I.1.1. AEK: Ipar Euskal Herrian euskara ikasten duten helduei buruzko datu iturri bat .....	17
I.1.2. Ikerketaren helburuak .....	18
I.2. Etorkinak eta herrikoak: Ikerketa honetako definizioa ..	19
I.3. Euskal Herriko biztanleria eta etorkinak: datu batzuk ..	20
I.3.1. Euskal Herriko biztanleriaren bilakaera azken urte hoietan .....	20
I.3.2. Hego Euskal Herria eta Espainia .....	21
I.3.3. Ipar Euskal Herria eta Frantzia .....	22
I.4. Eskerrak .....	23
<b>2. Corpora eta metodologia</b> .....	25
2.1. Corpora: Ikasle-kopuruak eta fitxak – Galderen zerrenda	25
2.2. Datu enpirikoak, aitortuak – Erantzun batzuen subjektibotasuna .....	27
2.3. Hutsuneak eta errore motak .....	29
2.4. Metodologiaz bi hitz .....	29
<b>Euskal Herriko AEKko gau eskoletako mapa</b> .....	31

<b>3. Etorkinak eta herrikoak: emaitza soziodemografikoak eta demolinguistikoak</b> .....	33
3.1. AEKko ikaskuntza mailak .....	33
3.2. Ikasleen jatorria .....	38
3.3. Ikasleen generoa .....	42
3.4. Ikasleen adina .....	47
3.5. Lan-egoera .....	53
3.6. Lanbidea .....	58
3.7. Ikasketa-maila .....	65
3.8. Zenbat urte Euskal Herrian? .....	67
3.9. Beste hizkuntzak .....	70
3.10. Familiako euskaldun kopurua .....	78
3.11. Euskara eta ikasleen haurrak .....	85
3.12. Euskara ikasleen inguruan .....	88
3.12.1. Euskara lagunartean .....	89
3.12.2. Euskara lankideekin .....	93
3.12.3. AEKko ikasleen familiak, lagunarteak eta lankidegoak .....	97
<b>4. Etorkinak eta herrikoak: motibazioak eta helburuak</b> .....	105
4.1. Euskara ikasteko motibazioak .....	105
4.2. AEKko ikasleen helburuak .....	115
4.3. Beste bi inkesta:	
2001, Baionaldeko CSA galdeketa guraso gazteei euskararen irakaskuntzaz .....	120
2005, Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran .....	123
<b>5. Ikerketaren ondorio nagusiak</b> .....	129
<b>Bibliografia</b> .....	137
 <b>Eranskinak</b>	
<b>I. Ikasle-fitxak</b> .....	141
I.1. Ikasle fitxa 1995-1996 .....	141
I.2. Ikasle fitxa 2008-2009 .....	143

---

<b>2. Baliabide zenbatu gehigarriak</b> .....	I47
2.1. CSA ikerketa BABko guraso gazteei euskararen irakas- kuntzaz (2001) .....	I47
2.2. Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran, (2005) .....	I50
<b>Argazkiak</b>	
1. 2008-2009ko sartze kanpaina .....	I2
2. 2009ko Korrika Ipar Euskal Herrian .....	I04
3. 2007-2008ko sartze kanpaina .....	I27
4. 2009ko Korrika Ipar Euskal Herrian (Azkaine) .....	I38



egun on!

izan ontsa!

zer berri?

mila esker!

æk

ne donne pas  
ta langue au chat

**æk**

cours de basque aux adultes

INSCRIPTIONS | [www.aek.org](http://www.aek.org) | 05 59 25 76 09

2008-2009ko sartze kanpaina

## AITZINSOLASA

Gero eta ezagunagoak dira euskararentzat halako ikerketak, hizkuntza bera nork, non, zertan eta zertarako erabiltzen den hori aurkezten digutenak esparru desberdinetan. Hartara, euskararen sustatze- eta jagote-zereginetan lanabes baliotsuak eskaintzen dituzte, Euskal Herriko lurraldeetan euskararen estatusa hobetzeko eta aitzinatzeko.

Aspaldikoa du lan hori Euskaltzaindiak. Are gehiago, sorreratik bertatik izan du kezka hori Euskararen Akademiak, eta, IKER nahiz JAGON sailetan barne, emaitza ugari erakutsi ditu historian zehar.

Izan ere, oraintsuagoko aldietan hartu du Euskaltzaindiak bere erabakia, urtez urte, JAGON sailaren barruan, euskararen egoera helburu duen batzorde horretan, alegia, SUSTAPEN batzordean, egungo kezkak biltzen dituen lanak egitea.

Hainbatez, 2009. urterako hautatu zuen *Euskara eta etorkinak* izeneko gaia, eta, urte osoko prestakuntzaren ondorioz, gai horren inguruko jardunaldiak burutu zituen azaroan, sona handiko irakasleak eta hura egunero lantzen duten adituak bilduz, hau da, gai horren inguruko gogoeta eta jarduna bat eginez.

Gaiari helduta, bereziki azpimarragarria da lan honen garatze-bidea. Hasiera egileek eurek proposatu zioten Euskaltzaindiaren SUSTAPEN batzordeari. Izatez, Erramun Baxok eta Jean-Baptiste Coyos ikertzaile ezagunak dira euskal soziolinguistikaren alorrean; aldi berean, euskaltzain urgazleak eta SUSTAPEN batzordekideak ere badira.

Horretarako aukera izanik, euren proposamena argia izan da, hain justu ere, *Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian (AEK-ko ikaslegoaren azterketa)*. Horretan mamitu eta ondu dituzte, artezki eta metodologia jakin batez, Iparraldeko AEK euskalduntze-erakundeak urteetan izan dituen euskarazko ikasleen fitxak.

Emaitzak ere ez nolana hikoak, soziodemografikoak nahiz demolinguistikoak. Agerian uzteko modukoak, orobat, etorkinek euskara ikasteko dituzten motibazio eta helburuak. Ondorioetan irakurleak aise nabarituriko du betiko

nahia, betiko guraria: Euskal Herrian eta euskal kulturari integratzea, formazioa ere bazterrean utzi gabe.

Hitz gutxitan esateko, lanabes berria dugu eskura, aurrerantzean euskararen egoera ezagutzeko. Hori egitea eskertu behar diegu egileei, eta, era berean, JAGON sailburu den Andres Iñigo euskaltzainari, abegi osoz hartu baitu bere gain aipatu egitasmoaren garatzea.

Euskaltzaindiak badaki berak bakarrik ez duela euskararekiko kezka. Horrexegatik dira zinez eskertzeko modukoak Iparraldeko AEK elkartearen jarrera eta harrera, egitasmo horren ibilbidean beti bidelagun leiala eta fina izan delako Akademiarentzat.

Lanak, ikerketak... egileen poderioz eta bultzadaz sortzen dira. Gero dator erakundeek babesa ematea, babes hori akademikoa eta ekonomikoa izan daitekeela. Horren harira, eskerrak eman behar dizkiogu, Euskaltzaindiaren izenean, Euskararen Erakunde Publikoari, Euskaltzaindiarekin urtero sinatzen duen hitzarmenaren bidez, lan hau babestu duelako.

Argi dago, azkenean, lan honen argitaratzeak, euskaraz eta frantsesez, aberastu egiten duela euskalgintzaren esparrua, eta, nola ez, Akademiaren itzala eta zeregina.

Bide beretik beste batzuk etorriko direlakoan, atxiki dezagun orri hauen edukia, onuragarri izango baitzaigu.

Andres Urrutia  
Euskaltzainburua



## HELDUEN EUSKALDUNTZEA ETA ETORKINAK IPAR EUSKAL HERRIAN AEK-KO IKASLEGOAREN AZTERKETA

Esku artean duzun lan hau balio handikoa da alde desberdinetatik eta AEK-ren izenean, Erramun Baxok eta Battittu Coyos honen egileak eskertu nahi ditut bai eta Euskaltzaindia ere eta bereziki lan horretan zuzenki inplikatuak izan diren Andres Urrutia eta Iñaki Kareaga.

Lan horren lehengo balioa da hutsune bat betetzera heldu dela. Alabainan, nahiz eta urtero AEK-ko ikasleek datu fitxa betetzen duten, azken hamarkada hauetan oso guttitan hartu dugu denbora datu horiek behar bezala aztertzeko. Sartze kanpainatik korrikara, Biltzar Nagusitik xede arlora, lanak bat bestearen gibeletik lotzen dira eta zenbait “egin beharreko” sekulan ez dira lehentasunetan kokatzen. Azterketa partzialak egiten dira urtero eta noiztenka gertatu izan da puntu bat edo beste unibertsitateko ikasle batek gehiago sakontzea. Bainan sekulan ez zen egin aurren Erramun eta Battittuk egin duten lan sakon eta zorrotza. Bazen garai beraz, AEK-k 30garren urtea betetzen duen momentu honetan holako lan bat burutzeko.

Ikerketaren emaitza hauek ustegabeko larririk agertu ez badute ere, hainbat intuizio edo sineste baieztatu edota ezeztatzen dituzte halere. Bestalde bereziki pundu interesgarria dugu azken urte hauetan Ipar Euskal Herrian egindako bestelako inkesta batzuen emaitzak oraiko ikerketarekin alderatzea. Sakoneko errealitate eta aldaketa sozio-kulturalak hobeki ulertzen laguntzen gaitu. Eta soilik errealitatea ezagutzetik eraiki daitezke euskararen biziberrietzeko estrategia eta lan ildo eraginkorrak. Heldu diren 4/5 urteetako AEK-ko plan estrategikoa lantzen ari garen momentuan, lan hau ekarpen ezin egiagoa dugu beraz.

Halaber, ikerketaren emaitzek euskararen egoera eta etorkizunaz axolatzen diren eragile guzietan interesa piztuko diela segur izan gaitzke. Helduen euskalduntze alfabetatzea tresna garrantzitsua da gibelatze prozesua gelditu eta hizkuntzaren zabaltzeari hasiera emateko eta hain zuzen, pasa den abenduan

Euskararen Erakunde Publikoak aurkeztu duen heldu diren 4 urteetako nor-abideetan izaera estrategiko hori aitortu dio HEA arloari. Ondoko urteetan HEA arloak nundik nora joan behar duen galdera serioa da. Nola lagundu, nola sustatu, nola antolatu? Galderak ez dira falta. Jende helduen motibazioa piztu eta luzaran atxikitzeko dugu besteak beste erronka nagusietariko bat. Horri begira lan horren ekarpena preziagarria izanen da eta bereziki, beren pisu demografikoa ikusirik, Euskal Herritik kanpo etorritakoen ibilbidea eta motibazio ezaugarriak.

Orain arte motibazio kanpaina guziak AEK-k eraman baditu ere, argi da beste maila batera pasatu behar dela, kanpaina instituzionalak ere plangintzatuz, haurren hezkuntza edota euskarazko hedabideentzat egin izan den bezala. Komunikazio kanpaina hauek definitzerakoan dudarik ez da ikerketa honen emaitzak erreferentzia interesgarria izanen direla.

Irakurketa on beraz, eta berriz ere milesker AEK-ren partez lan hori egin edo lagundu duten guziei.

Jakes Bortayrou  
Iparraldeko AEK-ko koordinatzailea

## I. SARRERA

Ikerketa hau Euskaltzaindiaren Jagon sailaren Sustapen Batzordearen baitan bideratu izan da, 2009ko azaroaren 20ko XIV. Jagon Jardunaldietako aztergaia “Etorkinak eta euskara” dela jakinez. Ipar Euskal Herriko AEK-ren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzeta-hitza baten markoan kokatzen da.

### I.I. ETORKINAK ETA EUSKARA: ZERGATIK IKERKETA PROIEKTU HAU?

#### I.I.I. AEK: Ipar Euskal Herrian euskara ikasten duten jende helduei buruzko datu iturri bat

Euskal Herri osoan berezko demografia ahulduz doa. Halere etorkinei esker biztanleria handitzen da, nahiz Hego Euskal Herrian, nahiz Ipar Euskal Herrian. Beraz garrantzitsua da jakitea etorkinek euskararekin dituzten harremanak zein diren, jokaera (hizkuntza praktikak) eta irudikapenak. Etorkin helduen artean euskararen ikaskuntza zertan den jakitea baliagarria izanen da hizkuntzaren geroa segurtatu nahian, euskararen aldeko hizkuntza politikak hobetzeko.

Datu iturri batzuk baditugu horri buruz, horien artean inkesta soziolinguistikoak non etorkinak, herrikoak, guraso bat edo bi etorkinak aldagai gisa hartuak diren (ikus bibliografian).

Erabilia izan ez den beste iturri bat badugu. Hau da: 1994az geroztik, urte oroz, Ipar Euskal Herriko AEK-ko ikasleek normalean fitxa bat betetzen dute. Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundea (AEK) euskara irakaskuntza egitura pribatu bat da, helduei gau-eskolak eta ikastaldiak ematen diz-

kiena, besteak beste<sup>1</sup>. Ikasleek lortzen dituzten gaitasunen mailak *Europako Erreferentzi Marko Bateratuan* oinarritzen dira.

AEK-k euskara ikasten duten jende helduen gehiengoa biltzen du Ipar Euskal Herrian. 2007-2008 ikasturtean, adibidez, 932 ikasle ziren orotara gau-eskoletan, lanetik eta lanbide-formakuntzatik kanpokoak beraz. 2008-2009 ikasturtean 955 ikasle genituen.

Beraz datu asko dauzkagu hor, jakinez arrazoi batzuegatik denak ez direla erabilgarriak edo beste batzuk falta direla (ikus "Corpus eta metodologia" atala).

Gau-eskola bakoitzaren ikasle-fitxetako datuak datu-base batean bilduak dira.

Ipar Euskal Herriko AEK-k ikasleen matrikulazio-fitxak Euskaltzaindiaren eskuetan ezarri ditu, hiru ikasturte hauei dagozkienak: 1995-1996, 2002-2003 eta 2008-2009. Fitxa horiek bakar-bakarrik ikerketa honetarako erabili dira, betiere izaera pertsonaleko datuen babesari buruz indarrean dauden arautegiak errespetatuz.

Ikasle-fitxa aldatu da pixka bat ikasturtetan zehar<sup>2</sup>. Oraingoan 16 galdera badira, datu pertsonalak kontuan ez hartuz (izena, deitura, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia). Galdera horien artean bost aukera itxiko galdera, bi aukera anitzeko galdera eta galdera ideki bat daude.

### I.1.2. Ikerketaren helburuak

Lan honetan, aldagai nagusia jatorria izanez, datu horien aztertze bat proposatzen dugu. Fitxetako erantzunetan oinarritua, ikerketa hau kuantitatiboa da bereziki.

Helburu orokorra Ipar Euskal Herrian euskara ikasten duten jende helduen ezaugarriak biltzea da eta ondotik, sistematikoki, etorkin helduen multzoa herrikoen multzoari parekatzea ezaugarri horien arabera. Urrengo lerroaldean etorkinen eta bertakoen definizioak emanen dira.

<sup>1</sup> Iparaldeko AEK - Gau eskolak elkarte 1980ko urrian sortua da. Ipar Euskal Herriko gau eskolen federazioa da. « *AEKren helburua, euskararen berreskuratze linguistikoa da Euskal Herrian. Horretarako, hiru arlo hauetan aritzen da. 1. Erakaskuntza eta formazioa: helduentzako klaseak antolatuz, euskararen ikasteko, alfabetizatze, eta bere erabilpenaren sustatzeko, metodo berrizale baten bidez, praktika eta kalitatea bultzatuz. 2. Euskararen berreskuratze eta normalizazioa: gizartearen arlo ezberdinetan lan egin - instituzioak, lantegiak, eskolak, elkarteak, familiak... - euskara normalizazio bidean kokatzeko. 3. Kultur arloa: kultura ekoiztu eta hedatu, egoera berrieri erantzunez » , <http://www.eke.org/partaideak/aek>.*

<sup>2</sup> 1994-1995an hasiz geroztik, fitxak aldatu dira: 2002-2003an 8 motibapen aukera emendatuak izan dira eta 2003-2004an 10 ikasleen helburu aukera.

Helburu berezia etorkin helduen ezaugarrien aztertzea da ondoko aldagaien arabera: sexua, adina, sorterrria, lan-egoera, lanbidea, ikasketa maila, atzerriko hizkuntzen ezagutza, Euskal Herriko egonaldien luzera, euskararen ezagutza familian, lagunartean, lan gunean, etab.

Hots etorkin hauei buruzko datu soziodemografikoak eta demolinguistikoak azaltzen ditugu eta herrikoenei konparatzen dizkiegu.

Gainera euskara ikasteko zortzi motibapen aukera eta ikasleen hamar helburu aukera aztertzen ditugu bi ikasle mota hauen arabera.

Beraz AEK-an ikasten duten **etorkinen eta herrikoen profila** agertarazi nahi dugu.

Ikuspegi diakronikoa izanen dugu ere, hiru ikasturte ezberdin hauek aztertuko baititugu: 1995-1996, 2002-2003 eta 2008-2009.

Ahal den neurrian euskara ikasten duten etorkin helduen multzoa Ipar Euskal Herriko etorkin helduen multzo osoari parekatuko dugu, gauza bera bertakoekin. Interesgarria izanen da ikustea zein den euskara ikasten duten etorkin helduen proportzioa eta zein den bertako helduena, ikusiz halere bertakoen multzoan badirela jadanik euskara dakitenak, lehen hizkuntza izanez bistan da.

Aurkezten dugun ikerketak euskarari interesatzen zaion irakurle arruntaz gain aginteak ere nahi lituzke argitu, era batez, euskararen aldeko hizkuntza-politika erabakitzen dutenak bereziki. Ohar gaiten adibidez Euskararen Erakunde Publikoak etorkinen euskalduntzea ez duela landu bere hizkuntza politika proiektuan.

## I.2. ETORKINAK ETA HERRIKOAK: IKERKETA HONETAKO DEFINIZIOA

Ikerketa honetan konparaketa egin nahi dugu Euskal Herrian, iparraldean nahiz hegoaldean, sortuak diren ikasle helduen eta Euskal herritik kanpo sortuak diren artean, hots herrikoen eta etorkinen artean, ikasleen sorlekua delarik definizio-irizpidea.

Demografiaren aldetik eta Euskal Herriaren ikuspuntutik, etorkinak bi immigrazio-kategoriatan bereiz ditzakegu: immigrazio hurbila Espainiatik edo Frantziatik etorri direnentzat eta atzerri immigrazioa (*Jakin* 165) urrunagotik etorriak direnentzat.

Horiek hola, ezberdintasun semantikoak badira euskarazko hiztegia eta frantsesezkoaren artean. Euskaraz « etorkin eta immigrazio » hitzek erabilgarriak dira edozein lekutik etorri direnentzat, atzeritik ala hurbilago-

tik<sup>3</sup>. Aldiz frantsesez « *immigration, immigrants, immigrés* » balio dute bakarrik atzerritarrentzat. Ondorioz atzerriko eta hurbilagoko etorkinak elgarrekin aipatu behar direlarik, zabalera handiagoko hitzak erabili beharko dira, hala nola « *arrivants* » (datozenak), « *non-natifs* » (herritik kanpo sortuak), « *migrants* » (migratzaileak).

- Liburu honetan maizenik agertuko diren dikotomiak dira:
- euskaraz, **herrikoak** eta **etorkinak**, edo **bertakoak** eta **etorkinak**<sup>4</sup> ;
  - frantsesez, « *natifs* et *arrivants* », edo « *natifs* et *non-natifs* ».

### I.3. EUSKAL HERRIKO BIZTANLERIA ETA ETORKINAK: DATU BATZUK

#### I.3.1. Euskal Herriko biztanleriaren bilakaera azken urte hauetan

Euskal Herriko zazpi lurraldeetan 3.005.670 biztanle inguru daude (Datutalaia)<sup>5</sup>. 1999-2005 arteko immigrazio saldoa 72.684 etorkin izan da.

Garraio modernoek eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek produktuen, ideien, jakintzen mugimenduak errazten dituzte, biztanleriaren ere.

Euskal Herria ez dago mugimendu orokor hortarik kanpo, eta azken urte hauetan, lurraldean, ere hainbat biztanle berri gutartean kokatu dira.

Euskal Herritik kanpo sortuak diren biztanle kopurua %25ekoa da. 750.000 immigrante inguru daude (P. Albite, *Jakin*, 165: 36).

Euskal Herriko biztanleriaren %20 inguru dira Espainiatik edo Frantziatik etorri diren immigranteak (immigrazio ez atzerritarra). Gainera Euskal Herriko biztanleen artean 360.000 (%12) inguru dira bi estatu horietatik etorri diren guraso immigranteen seme-alabak. Immigrazio ez atzerritarra immigrazio osoaren %80 da eta immigrazio atzerritarra beraz, Espainiatik eta Frantziatik kanpokoa, %20 (*ibid.*).

<sup>3</sup> Xabier Aierdirekin immigrazio atzerritarra eta ez atzerritarra bereiziko ditugu (Frantziatik eta Espainiatik etorria): “Badago ere etorkinen multzoaren barruan Espainiatik etorri izan den populazioa sartzen duenik ; zilegi da, baina uste dugu bi immigrazio horiek ezin direla ez teorikoki ez politikoki modu beretsuan tratatu, beraz hobe ez nahastea” (*Jakin*, 165: 27).

<sup>4</sup> Halere, Olorueko amaetxean sortu diren Zuberoako gau eskolako ikasleak eta Zuberoan « betidanik » bizi direnak herrikitat, bertakotzat hartuak dira eta ez etorkintzat, Zuberoan amaetxerik ez baitago orain.

<sup>5</sup> Zazpi lurralde historiko horiek dira Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa Ipar Euskal Herrian, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Euskadi osatzen dutenak eta Nafarroa Hego Euskal Herrian.

### I.3.2. Hego Euskal Herria eta Espainia: biztanleria eta etorkinak

2007an Espainiar estatuan 4.482.566 etorkin atzerritar ziren (%9,9).

Hego Euskal Herrian biztanleria emendatu da pixka bat azken hamar urte hauetan: 1998an 2.629.447 lagun ziren, 2007an 2.747.736. Baina emendatze hau etorkinei esker gauzatu da, bertakoen saldoa negatiboa baita: 16.645 pertsonaz gutitu da (X. Aierdi, *Jakin*, 165: 11). Jaiotza tasa %1,89tik %0,97ra jaitsi da 1975etik 2006ra.

2007an Euskal Autonomia Erkidegoan 98.108 etorkin atzerritar ziren (%4,6)<sup>6</sup>; Nafarroan 55.921 ziren (%9,23), 1998an 4.313 zirelarik (%0,81).

2007an Hego Euskal Herrian 134.934 etorkin atzerritar ziren (%5,6), 1998an aldiz 19.511 (%0,74). Emendatze hau ohargarria da.

Hego Euskal Herrian, etorkin atzerritar horietarik %48,7 amerikarrak dira, %29,4 europarrak, %18,1 afrikarrak, %3,8 asiarrak.

Immigrazio ez atzerritarrean, Espainiatik etorri dena, 700.000 lagun inguru dira: Hego Euskal Herriko biztanleriaren %17 da guti gorabehera (P. Albite, *Jakin*, 165: 40).

Immigrante espainiar horiek langileak ziren gehienak. Ipar Euskal Herrian immigrazioa ezberdina da; bizitokiarekin eta aisiarekin zerikusi du gehiago (P. Albite, *Jakin*, 165: 70).

#### *Euskara eta immigranteak: hizkuntza ukipen-indizea eta euskararen ikasteko aukerak*

Jende heldu batek hizkuntza berri bat ikasteko bi eredu nagusi baditu. Edo ikaskuntza akademikoa, eskolan edo autoikaskuntzaz, zuzeneko esperimentazioaren bidez, lanean, karrikan, eguneroko bizian. Bigarren eredu honekin, euskaldun guneak behar dira euskara ikasteko.

Ildo honetan, ukipen-indizea kalkula daiteke lurralde jakin batean, euskaldunen ehunekoa eta immigranteen ehunekoa kontuan hartuz. “Ukipen indize bat eraikiz... euskaldun eta etorkinen nolabaiteko ukipen geografiko eskasa” agertzen zaigu, “...oso urrunduak baitaude immigrazioaren eta euskararen ekologi guneak, praktikan ez baitute intersektzorik, Markina-Ondarroako kasuan izan ezik” (X. Aierdi, *Jakin*, 165: 19).

Ondorioz, “ukipenik ezean, hezkuntza sistemari dagokio soilik etorkinen artean euskara presente egitea” (*ibid.*). Etorkin helduen kasuan hau da gau eskolen proiektuaren helburuetarik bat.

<sup>6</sup> Azken bi urteetan (2007 eta 2008) EAEn ere immigrazioa anitz handitu da: hazkunde tasa %17,4koa eta %14,7koa izan da (Aierdi eta Uranga, *Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak*: 9).

### I.3.3. Ipar Euskal Herria eta Frantzia: biztanleria eta etorkinak

2006ean 288.362 lagun ziren Ipar Euskal Herrian (CCI, 2009).

Baiona-Angelu-Miarritze hiri-elkargoak 118.471 biztanle dauzka, biztanleria osoaren %40 eta kostaldeak 185.929 biztanlekin %67 (CCI, 2007). Orotara Lapurdin 227.754 biztanle ziren 2006an (Datutalaia), Ipar Euskal Herriko %79.

1999tik 2006ra Ipar Euskal Herriak 14.665 biztanle berri irabazi ditu (+%5,5, Frantziak +%4,5); bereziki Lapurdik, 9.535 1999tik 2005era (Gaindegia: II). Barnekaldeak ere biztanle berriak berriz irabazten ditu, baina kostaldeak baino askoz gutiago.

Hego Euskal Herrian bezala, emendatzea etorkinei esker gauzatu da, bertakoen saldoa negatiboa baitzen 2006 arte: 1982tik 1990ra -3.249 biztanle, 1990tik 1999ra -4.303 biztanle (Euskal Herriko Garapen Kontseilua: II).

Aldi berean biztanleria zahartzen da: 1990an 20 urtez guttiagokoak %23 ziren, 1999an %21,3; 1990an 60 urte gehiagokoak %26,1 ziren, 1999an %27,4.

#### *Immigrante proportzio handia eta ukipen-indizea*

Frantses estatuan 6.100.000 etorkin atzerritar dira guti gorabehera, biztanleriaren %9,6.

Euskal Herriari konparatu nahian, hauek dira immigrante (atzerritar eta beste) gehien duten herrialdeak: Lapurdi %50 baino gehiago, Nafarroa Beherea %32, Araba %29, Bizkaia %26, Gipuzkoa %22, Zuberoa %20 eta azkena Nafarroa %18 (P. Albite, *Jakin*, 165: 36).

Beraz Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetarik bi dira immigrante ehuneko handiena dutenak. 2001ean Lapurdiko biztanleen %31 Lapurdin sortuak ziren, %17k guraso etorkinak zituzten eta %52 etorkinak ziren (Datutalaia, hamabost urtetik goragoko biztanleria).

Immigrazio ez atzerritarrean, Frantziatik etorri dena beraz, 78.000 lagun inguru dira: Euskal Herriko biztanleriaren %3 guti gorabehera, baina Ipar Euskal Herriko biztanleen %30 (P. Albite, *Jakin*, 165: 41).

**Ukipen-indizea:** Ipar Euskal Herrian ukipen-indize hori Nafarroa Beherean Kostaldean baino gorago izan daitekeela susma dezakegu, Baigorriin adibidez Angelun baino.

Etorkin helduen kasuan beraz gau eskolei dagokio euskara presente egitea lurralde ez euskaldunetan. Euskara ikasteko, immigranteak euskalduntzeko, gau eskola da aukera nabariena.



*Euskara ez da beharrezkoa: bigarren hizkuntza ikasteko eragileak*

Frantziatik etortzen direnek ez dute frantsesa ikasterik integratzeko eta haientzat euskara ez da batere beharrezkoa, euskara gutiengoaren hizkuntza baita. Frantsesa ez dakiten kanpoko atzerritarrentzat aldiz frantsesa beharrezkoa da, frantsesa gehiengoaren hizkuntza baita Ipar Euskal Herrian, erabilera-funtzio eta esparru guziak irabazi dituena. Beraz euskara ikasten dutenek beste motibaziorik badute.

Bigarren hizkuntzaren edo hizkuntza berri baten ikaskuntzan hainbat faktorek eragina dute: ikaslearen ezaugarri pertsonalak, motibazio maila, ikaslearen hizkuntza horri buruzko jarrera eta ezagutza...

Baina etorkinen kasuan, horiez gain, beste faktoreak badira: behin betiko immigrazioa ala ez, integrazio motibazioa, lehen hizkuntzarekiko jarrera, bizitza eta lan baldintzak, hizkuntza berriaren prestigioa, etab. Ildo honetan euskarak desabantaila handia badu: gutiengoaren hizkuntza da, beharrezkoa ez dena Ipar Euskal Herrian bizitzeko.

Laburbilduz, gure iduriko etorkinen euskararen aldeko jarrera biziki garrantzitsua da hizkuntzaren gerorako. Etorkin gehienek Ipar Euskal Herriko bi hizkuntza nagusietarik bat ezagutzen dute, frantsesa hain zuzen. Aldiz bestea, euskara, gutiengoaren hizkuntza dena eta gainera gutitua, ez dute ezagutzen eta oraingo baldintza sozioekonomikoetan ez zaie behar-beharrezkoa Ipar Euskal Herrian.

Bigarren datu garrantzitsua da etorkin horiek gero eta pisu handiagoa dutela Ipar Euskal Herriko demografian. Beraz biztanleria hau hizkuntza politikaren xede-talde bat bilakatu beharko da, gazteak diren bezala.

Euskara ikasteko eta erabiltzeko dituzten arrazoiak aztertu behar dira, nahiz etorkinenak, nahiz bertakoenak, haien ezaugarri soziodemografikoak, demolinguistikoak et psikolinguistikoak kontuan hartuz. Ezagutza eta hausnarketa marko honetan da eskuetan daukazun ikerketa, bere harria ekarri nahi lukeena.

## I.4. ESKERRAK

Esker beroenak lagundu gaituzten ondoko hauei adierazi nahi dizkiegu:  
 Andres Urrutia euskaltzainburuari,  
 Jakes Bortayrou Iparraldeko AEKko koordinatzaileari,  
 Iñaki Kareaga Euskaltzaindiko informatika arduradunari.



## 2. CORPUSA ETA METODOLOGIA

### 2.1. CORPUSA: IKASLE-KOPURUAK ETA FITXAK – GALDEREN ZERRENDA

Gai bati buruzko azterketa bat kudeatzeko **corpus** bat behar da, analisieren abiapuntua eta aztergaia izanen den datu-multzoa. Gure kasuan jakin nahi genuke Ipar Euskal Herrian euskara ikasten duten jende helduen ezaugarriak zein diren, nahiz soziodemografikoak eta demolinguistikoak, nahiz hauen motibazioak eta helburuak, eta ikasle hauen artean bereziki etorkin helduen ezaugarriak.

Sarreran erran bezala, etorkinen eta herrikoen ezaugarrien bilakaera denboran zehar aztertu nahi genuke ere, ikuspegi diakronikoa izateko.

Gure corpusa 1994az geroztik Ipar Euskal Herriko AEK-ren ikasleek urtero betetzen dituzten fitxen bidez eraikiko dugu, hain zuzen 1995-1996ko, 2002-2003ko, 2008-2009ko fitxetako datuak kontuan hartuz. Datu horiek **AEKren datu-base** batean bilduak dira.

#### Fitxa kopurua

Orotara, hiru ikasturte horietan bete izan diren 2837 fitxetarik **2607 ikasle-fitxa** baliatzeko gai izan gara: 1995-1996ko 835 fitxa, 2002-2003ko 893 fitxa eta 2008-2009ko 879 fitxa. Besteek lerro hutsa zuten datu-basean. 2008-2009 ikasturtean adibidez, 955 ikasle baziren Ipar Euskal Herriko AEKren gau eskoletan, baina 893 fitxa bakarrik, erran nahi baita 76 fitxa falta zaizkigula<sup>7</sup>.

---

<sup>7</sup> 2008-2009ko 955 gau eskoletako ikasle hauei, “xede arloko” 164 ikasle gehitu behar zaizkie. “Xede arloko” ikasleek lan denboran euskara ikasten dute, nahiz sektore publikoan, nahiz sektore pribatuan. Hauen artean 79 sektore publikoan ziren (Kontseilu orokorrean, Miarritzeko eta Baionako herriko etxeetan, Errobi Herri elkargoan, Hego Lapurdi Herri elkargoan).

Halere erran dezakegu corpus zabal, baliagarri eta adierazgarria daukagula gure ikerketarako.

### Galderen zerrenda

1995-1996ko fitxetako galderen zerrenda oraingoa baino laburrago zen (ikus eranskinak). Lehenik datu soziodemografikoak ziren, sexua, adina, sorlekua, lanbidea, lantokia, langabezia, noiztik Euskal Herrian bizi, eta gero hiru datu demolinguistiko, hizkuntza menperatua(k), aita eta ama euskaraz (bai, zerbait, ez).

2002-2003an motibazioei buruzko zortzi galdera itxi gehitu zaizkio fitxari, « Zerk motibatzen zaitu euskara ikastera ? » izenburuarekin:

1. « Euskal kultura nereganzeko », 2. « Euskal Herrian integrazteko », 3. « Nere sustriak, nortasuna atxemaiteko », 4. « Euskaldunekin komunikatzeko », 5. « Nere haurrak euskara ikasten ari direlako », 6. « Lana atxemaiteko edo aldatzeko », 7. « Hizkuntzak maite ditudalako », 8. « Besterik ».

Beste galdera berri batzuk gehitu dira ere.

Bat ikasketa-mailaz: 1. Batere ez, 2. Lehen maila, 3. BEPC<sup>8</sup>, 4. BEP/CAP<sup>9</sup>, 5. Batxilergoa, 6. Unibertsitateko ikasketak, 7. Beste formakuntzak.

Familia eta euskarari buruzko galdera bat, 1995-1996koa baino osoagoa: « Zure familian nork daki (zekien) euskara ? » Bizilagunak, amak, aitak, amaren aitak, amaren amak, aitaren aitak, amaren amak, lau gaitasun-maila aukerarekin: « batere, doi bat, aski ongi, ongi ».

Gero galdera bat haurrik dutenentzat: « Zure haurra(k) eskolan euskara(z) ikasten ari d(ir)a ? ».

Beste bi galdera lagunei eta lankideei buruz: « Zure inguruko artean nork daki euskara ? » 1. « Maiz ikusten dituzun lagunak » eta 2. « Zure lankideen artean », beti lau gaitasun-maila aukerarekin.

Azkenean, 2003-2004koan ikaskuntza helburuei buruzko hamar proposamen gehitu dira, frantsesez idatziak bakarrik:

« Zure helburuak zehazten ahal dituzu ? »: 1. « *Je veux apprendre quelques notions* », 2. « *Je veux comprendre quelques phrases simples* », 3. « *Je veux être capable de comprendre la radio, la télé* », 4. « *Je veux m'exprimer simplement avec des amis* », 5. « *Je veux aider mes enfants qui apprennent le basque à l'école* », 6. « *Je veux transmettre le bas-*

<sup>8</sup> BEPC da kolegioko azken urteko ikaskuntza diploma, bigarren hezkuntzaren 15-16 urteko ikasleentzat.

<sup>9</sup> BEP/CAP batxilergoa baino lehen eskuratzen diren lanbide-diplomak dira.

*que à mes enfants comme langue première », 7. « Je veux pouvoir aussi exercer mon activité professionnelle en basque », 8. « Je veux obtenir un emploi grâce à l'euskara », 9. « Je veux pouvoir m'exprimer aussi bien en basque qu'en français », 10. « Je veux parler basque le plus possible dans mes relations, à mon travail »<sup>10</sup>.*

Beraz oraingo fitxan hamasei galdera badira, datu pertsonalak kontuan hartu gabe (izena, deitura, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia). Hauen artean bost aukera itxiko galdera, bi aukera anitzeko galdera eta galdera ireki bat daude.

Ondoko ataletan galdera bakoitzari buruzko erantzun multzoak banan-banan aztertzen dira.

## 2.2. DATU ENPIRIKOAK, AITORTUAK – ERANTZUN BATZUEN SUBJEKTIBOTASUNA

Ikerketa soziolinguistiko baten emaitzen balioa neurtzeko, oinarrian dau-den datuen balioa neurtu behar da, haien fidagarritasuna, haien koherentzia.

Giza-zientzietako inkestei buruzko gogoeta metodologikoak diskurtsoez, iturriez, berriemaileez mesfidatu behar dela erakasten digu, zeren eta errealityarekin korrespondantzian ez diren irudikapenak antzezen dituzte, bai eta ere inkestatzaileari eta diskurtso nagusiari egokitze nahiaren eraginaz mesfidatu behar dela.

Beraz kontuan hartzen ditugun datuak behar ditugu ebaluatu, zuhur jokatu haiekin, zeren, eta hau da ikerketa honen ezaugarri garrantzitsuetarik bat, erabilten ditugun **datuak aitortuak** baitira. Erran nahi du ikasleek eman dituzten erantzun guziak egiazat ez direla hartu beharko, ez baitira denak balio berekoak. Erabilten ditugun datu aitortu horiek erantzuleen jarrerren eta irudikapenen iragazkitik iragan dira. Erantzun batzuk subjektibo izan daitezke.

Zein erantzunez mesfidatu behar dugu, besteez baino gehiago? Zein datu-mota ez daiteke fidagarria izan?

Pentsa dezakegu erantzun soziodemografikoak, hala nola generoa, adina, sorlekua, lanbidea, lantokia, fidagarriak daitezkeela. Halere ikasketa-mailari buruzkoak dudagarriagoak izan daitezke, emana den sailkapenarengatik: « 6.

<sup>10</sup> 1. « Nozio batzuk ikasi nahi ditut », 2. « Erranaldi sinple batzuk ulertu nahi ditut », 3. « Irratia, telebista ulertzeko gai izan nahi dut », 4. « Adiskideekin mintzatu nahi dut sinpleki », 5. « Eskolan euskara ikasten duten nire haurrak lagundu nahi ditut », 6. « Lehen hizkuntza bezala euskara nire haurrei transmititu nahi diet », 7. « Euskaraz ere bai nire lanbide-jarduera egin nahi dut », 8. « Lanbide bat euskararen bidez eskuratu nahi dut », 9. « Euskaraz frantsesez bezain ontsa mintzatu nahi dut », 10. « Nire harremanetan, nire lanean euskaraz ahal bezain usu mintzatu nahi dut ».

Unibertsitateko ikasketak » aukeran, adibidez, batxilergotik landako urte bat eta doktoregoa ez dira batere hein berdinekoak, edo « 7. Beste formakuntzak » aukeran erantzun osoki ezberdinak sar daitezke, ikasketa-maila era askotakoa izan baitaiteke.

« Zure familian nork daki (zekien) euskara? » galderari erantzunak ere aski dudazkoak izan daitezke, gurasoen eta are gehiago aitona-amonon euskararen ezagutza maila neurtzearen zailtasunarengatik. Badakigu ere guraso batzuek haur denboran euskara ikasi zutela haurrei izkututzen zietela.

Baina erantzuleen hizkuntza menperatzeari buruzkoak dira behar bada erantzun dudazkoenak. Galdera hau da: « Beste hizkuntzarik menperatzen duzu ? Zeintzu/*Quelle(s) autre(s) langue(s) parlez-vous ?* ». Hizkuntza bat mintzatzea zer den zehazki erratea ez da erraza, anitz gaitasun-maila ezberdin izan daitezkeelako.

Erantzuleak noski frantsesezko galderari erantzunen dio, baina « Zure familian nork daki (zekien) euskara » galderarekin emana zen bezala, « bate-re, doi bat, aski ongi, ongi » gaitasun-maila aukerarik ez dago galdera horrekin. Ondorioz, bigarren hezkuntzan ingelesa eta gaztelania ikasgaiak izan dituztenek bi hizkuntza horiek mintzatzen dituztela erantzun dezakete, eguneroko egoera arruntetan mintzatzeko gai izan gabe adibidez. Hots, autoebaluazioak gainestimaziora eraman dezake, kasu bakanago batzuetan azpiestimaziora.

Motibazioen kasuan proposatu diren zortzi motibazioek motibazio-mota denak kontuan hartzen ote dituzte? Ez dakigu. Halere, zortzigarrenak, « 8. Besterik », aipatu ez den beste motibazioaren bat zehazteko aukera ematen du.

Euskarazko eta frantsesezko galdera batzuen arteko interpretazio ezberdinak izan daitezke. Lehen motibazioa, adibidez, hitz hauetan idatzia da: euskarazkoa « Euskal kultura nereganatzeko » eta frantsesezkoa « *Pour mieux appréhender la culture basque* ». « *Appréhender* » ez da bereganatzea, pentsaeraren bidez ulertzea da gehiago. Halaber 3. galderarekin: « Nere sustraiak, nortasuna atxemaiteko » eta « *Pour retrouver mes racines, la culture de mes ascendants* » ez dira gauza berdinak, euskaraz aurrekoak ez direlako aipatuak.

Halere ikasleek frantsesezko galderari gehienik erantzuten diotela pentsa dezakegu, eta beraz interpretazio guti gorabehera berdina egin dutela.

Helburuen kasuan, aldiz, hamar proposamenen artean erantzuleari beste helburu baten zehaztearen aukera ez zaio ematen. Helburuak denak frantsesez idatziak dira bakarrik. Ondorioz erranahi bakar bat zen.

### 2.3. HUTSUNEAK ETA ERRORE MOTAK

Baliatzen dugun datu-basearen balioa neurtzeko, erantzun batzuen subjektibotasunaz gain, hutsuneak eta balizko erroreak kontuan hartu behar ditugu.

Fitxetako erantzunak datu-basean kopiatzea errore-iturri izan daiteke. Gau eskola bakoitzeko irakasle batek erantzunak kopiatzen ditu edo Baionako AEKko zuzendaritzako norbaitek.

Bestalde datu-basean hutsuneak badirela ohartzen da. Ikasleak fitxa bete ez duelako edo fitxako erantzunak datu-basean kopiatu izan ez direlako. Hori da 2008-2009an gertatu dena. Datu-basean 939 lerro badira baina 879 fitxetako erantzunak kopiatu bakarrik, jakinez orotara 955 ikasle zirela urte horretan. Hutsik diren lerroak ikasle berrienak dira, 2008-2009an gau-eskolan sartu direnak.

Beste hutsune mota sortzen da fitxa ez delako osoki bete, ikasleak erantzun batzuk ez dituelako eman. 2008-2009ko galdera bakoitzarentzat, adibidez, ez dira beti 879 erantzun sartu. Generoarentzat eta lanbidearentzat, motibazioentzat eta helburuentzat bai; aldiz, adinaren kasuan 872 erantzun izan dira, lan-egoerarenean 86I, ikasketa-mailakoan 75I, « zenbat urte Euskal Herrian? » galderaren kasuan 848, familia eta euskararenean 838, haurrik duen 852, lagunartea euskaraz galderarenean 843 eta lankideak euskaraz galderarenean 599 (langabezia da azken zenbaki honen arrazoia).

Ezintasun bat izan dugu ere bai sorlekuarekin: datu-basean gau eskolek denek egiazko sorterrria ez dute eman, batzuek “k” edo “K” hizkia erabili dutelako kanpotiarrentzat. Ondorioz, kasu honetan immigrazio atzerritarra eta ez atzerritarra ezin ditugu bereizi.

Azken ohar bat. Hautatu ditugun hiru ikasturte horien arteko unea aski zabala izanik ere, gerta daiteke ikasle berdina ager daitekeela, hiru urte horietarik bi aldiz segidan: 1995-1996tik 2002-2003 arte 7 urte ditugu eta 2002-2003tik 2008-2009 arte 6 urte.

Ohar horiek oro eginik ere, baliatzen ditugun erantzunak errealitatearen irudi aski garbi eta fidagarri bat ematen dutela uste dugu.

### 2.4. METODOLOGIAZ BI HITZ

AEKko datu-baseko datuak tratamenduko programa baten bidez bilduak izan dira, tratatzeko eta gurutzatzeko moldean, datu pertsonaletatik kanpo, fitxa bakoitzari zenbaki bat emanez.

Erabili dugun metodologia sinplea da. Hiru urteetako ikasleen erantzunak sartuak izan dira taula bakar batean, urteka eta gau eskolaka. Datuak

numerizatu ditugu, erantzun mota edo aldagai bakoitzari zenbaki bat emanez. Softweraren bidez, nahi genituen gurutzaketak egin ditugu, etorkinak eta/edo bertakoak ordenatuan ala abzisan emanez.

Aldagaiak iragaz zaitezkeen, bata edo bestea atxiki nahiaren arabera, bata edo bestea isolatu nahi genuenean. Tratamenduak ikasturte bakoitzarentzat eginez, hamahiru urte buruko bilakaera agertzen zaigu hautatzen dugun aldagaiaren arabera.

Corpusa eta ikerketa metodología aurkeztu eta has gaitezen orain aldagai bakoitzari buruzko xehetasunak azaltzen.

Banan-banan euskara ikasten duten ikasle heldu horien ikaskuntza-maila AEKn, jatorria, generoa, adina, lan-egoera, lanbidea, ikasketa-maila, zenbat urte Euskal Herrian iragan duten, zein hizkuntza(k) menperatzen d(it)u(z)ten, familiako euskaldun kopurua, haurrik duten, haurrak euskara ikasten duen, lagunartean edo lan-gunean euskara norik dakien, ikasleen motibazioak eta helburuak aurkeztuko ditugu.

Arestian erran bezala, arreta berezi bat emanen diegu herritarren eta etorkinen arteko ezberdintasunei, baita ere ezaugarri komunei.



## Euskal Herriko AEKko gau eskoletako mapa

### Ipar Euskal Herriko 15 gau eskoletako zerrenda


**Lapurdi:** Ietik 10era (urdinez)

Arbona, Azkaine, Baiona, Beskoitze, Donibane Lohizune, Hazparne, Hiribururu, Kanbo-Itsasu, Lehuntze, Miarritze, Mugerre, Uztaritze

**Nafarroa Beherea:** 1, 2, 3 (marroiez)

Amikuze, Garazi-Baigorri

**Zuberoa:** 1 (grisez)





### 3. ETORKINAK ETA HERRIKOAK: EMAITZA SOZIODEMOGRAFIKOAK ETA DEMOLINGUISTIKOAK

#### 3.1. AEK-KO IKASKUNTZA MAILAK

##### **AEKko ikaskuntza mailak eta ikasleen gaitasunen sailkapena**

AEKk ikasleen gaitasunen neurtzeko (ahozko eta idatzizko ulermena, mintzamina eta idazmina) 5 maila eraiki ditu 8 urratsetan banatuak, AEKren Curriculumaren eta Hizkuntzen Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoarekin bat eginez.

Horiek dira 5 mailak eta 8 urratsak. Lehenik Europako Erreferentzia Markoko mailak ematen ditugu sigloarekin parentesietan:

- Hasiera maila (A1) = AEKko lehen urratsa
- 1.A maila (A2) = 2. eta 3. urratsak
- 1.B maila (B1) = 4. eta 5. urratsak
- 2. maila (B2) = 6. eta 7. urratsak
- 3. maila (C1) = 8. urratsa, EGA eta hobekuntza.

3. mailan (Europako Erreferentzia Markoko C1) zortzigarren urratsa, EGA eta hobekuntza baditugula ohartzen gara.

Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) pertsona batek euskaraz ahoz eta idatziz aritzeko gaitasuna duela, euskara batuaren ortografia eta arauak ezagutzen dituela erakusten duen ziurtagiria da. EGA mailan direnek ziurtagiri horren eskuratzea prestatzen dute AEKAn.

Beraz 8. urratsean, hobekuntzan edo EGaren prestakuntzan direnak goi mailako ikasleak dira eta gutxi gorabehera ber mailakoak, 8. urratsa doi bat apalago izanez halere.

Alfabetatze mailan direnek euskara badakite baina idazten ez dakite ; beraz ikasle multzo berezi bat da mintzamina menperatzen duena.

### **AEKko eta Europako Erreferentzia Markoko mailen deskribapen laburra**

Irakaskuntzarako Europar Markoa erreferentziatzen hartuz AEKko urratsen erranahia deskriba dezagun. Ikasten den hizkuntzari buruzko gaitasun nagusiak ulermena eta adierazpena dira. Arestian erran bezala ulermenak bi zati baditu, entzumena eta irakurmena, hiztunek entzunez eta irakurriz hizkuntza berria ulertzen dutelarik. Adierazpenak ere bi zati baditu, mintzamina eta idazmena, hiztunak bere pentsamoldea adierazten duelarik hitz eginez elkarrizketan, bai eta ere idatziz.

Europako markoak 6 maila dauzka.

AI. Hastapen maila edo aurkikuntza maila: ikasleak ulertzen eta erabiltzen ditu usaiako hitzak, mintzakidea lagungarri delarik, hala nola agurrak, eskerrak, galde-erantzun sinpleak. AEKko lehen urratsa da.

A2. Arteko maila edo biziraupen maila: ikaslea hizkuntza berriarekin moldatzen da adibidez bidaia batean. Usaiako esaldiak ulertzen eta erabiltzen ditu informazioak trukatzeko, ekintza sinpleak eramateko, inguruko gauzak deskribatzeko. AEKko 2. eta 3. urratsak maila honetan kokatzen dira.

BI. Atalase maila: irakaslea hiztun berri bilakatu da. Nahiko mintzamina dauka eguneroko harremanetarako. Usaiako gertakarietan diskurtso koherente batekin bere iritzia adierazten du. AEKko 4. eta 5. urratsen heinekoa da.

B2. Maila aurreratua eta burujabea: hiztun berriak ez du irakaslearen beharrik hitz egiteko. Elkarrizketan errazki ari da eta bere iritziaren aldeko argudioak eztabaidatzen ditu. Anitz gai konkretutan ala abstraktutan bere adierazpena argia eta zehatza da. Jatorrizko hiztunekin mintzatzen da tentsiorik sortu gabe. AEKko 6. eta 7. mailen heinekoa.

CI. Maila autonomoa: testu luzeak eta zailak ulertzen ditu. Bat-bateko adierazpen erraza egin dezake hitzak bilatu gabe. Hitzzerdiak eta hitz jokoak ulertzen ditu. Komunikazio eraginkorra da bizitza sozialean, profesionalean eta kulturean. Diskurtsoaren jarraipena eta koherentzia kontrolatzen ditu. Hau AEKko 8. maila da, eta EGarena.

C2. Nagusitasun maila: hiztunak hizkuntza berria menperatzen du bere jatorrizko hizkuntza bezala. Entzuten eta irakurtzen duen guzia berehala ulertzen du eta erantzuten erraztasunez, gai konplexuetan ere.

## Herrikoen eta etorkinen mailen konparaketa orokorra

*Ikasleak AEKren urratsen arabera: kopuruak biru ikasturteak bildurik (zenbakitan, %)*

<i>Urratsak</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
1. urratsa	543 = %35	531 = %48	1074 = %41
2. urratsa	252 = %17	203 = %19	455 = %17
3. urratsa	266 = %18	143 = %13	409 = %16
4. urratsa	154 = %10	86 = %8	240 = %9
5. urratsa	111 = %7	57 = %5	168 = %7
6. urratsa	56 = %4	33 = %3	89 = %3
7. urratsa	18 = %1	8 = %1	26 = %1
8. urratsa	23 = %2	11 = %1	34 = %1
EGA	30 = %2	10 = %1	40 = %2
Hobekuntza	18 = %1	7 = %1	25 = %1
Alfabetatze	43 = %3	4 = %0,4	47 = %2
<i>Kopurua</i>	1514 = %100	1093 = %100	2607 = %100

Mailari buruzko 2607 erantzun izan ditugu orotara datu-basean, 1995-1996, 2002-2003 eta 2008-2009 ikasturteak bilduz. Horietan 1514 herriko baditugu eta 1093 etorkin. « Hobekuntza » terminoa erabilia da batzutan goi-mailako ikasleentzat.

Lehen urratsean direnek multzo handiena osatzen dute nahiz herrikoetan (%35), nahiz etorkinetan (%48). 2. urratsean direnek bigarren multzoa osatzen dute.

Bi lehen urrats horiek gehituz etorkinen %67 baditugu eta herrikoen %52. Etorkinek euskararen ikastea herrikoek baino gehiago uzten dutela erran dezakegu edo goizago bederen. Baina ohartzen da ere lehen bi urratsetan ikasle herrikoen erdia baino gehiago dela (%52).

Lehen ikasturteetan, ikaskuntza uzten dutenen kopurua gora da.

Goi mailetan herrikoak nagusitzen dira. 8. urratsean, hobekuntzan edo EGAREN prestakuntzan direnak gehituz herrikoen %5 ditugu. Aldiz hortan diren etorkinak %3 dira. 2. urratsetik landa herrikoen proportzioa etorkinena baino handiagoa da urrats guzietan.

Ikasle kopuru osoa hartuz urrats batetik bestera proportzioa erregulariki ttipitzen da, I urratsetik 7.ra.

Aurreikusirik zen bezala alfabetatzen ari direnak gehiago dira herrikoen artean (43 ikasle) etorkinetan baino (4 ikasle). Alfabetatzen ari diren

horiek ahozko euskara menperatzen dute, ortografia eta idazmena ikasten dituzte.

Urtekako datuen analisatzeak ez digu emaitza berezirik ekarten, 1995-1996, 2002-2003 eta 2008-2009 urteetako datuak guti gorabehera berdinak dira.

### AEKko irakaskuntzaren eraginkortasuna

Betiko galdea: AEKk zenbat euskaldun oso sortzen ditu eta zenbat ikasle gelditzen dira “elebidun hartzaile”? Erantzuna zaila da, ez baita erraz erraita zer den hizkuntza berri bat menperatzea. Inkesta soziolinguistikoetan hiru maila badira:

- Erdaldunak euskaraz ezer ez dakitenak edo hitz batzuk (1. urratsa) ;
- Elebidun hartzaileak edo ia-euskaldunak, euskara ulertzen dutenak eta doi bat mintzatzen (2. eta 3. urratsak).
- Euskaldunak edo elebidun eragileak, euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiten dutenak (4. urratsetik goragokoak).

AEKko ikasleak sailkatuko ditugu inkesta soziolinguistikoen kategoriak erabiliz baina Europako estandarrari erreferentzia eginez. Atalase maila (BI) AEKren 4. urratsean ezartzen dugu.

*AEKko ikasleen hizkuntza gaitasunak eta Europako Erreferentzia Markoa,  
hiru ikasturteetan*

<i>Gaitasunak eta urratsak</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
Euskalduntzekotan AI = 1. urratsean geldituak	291 = %19	328 = %30	619 = %24
Elebidun hartzaileak A2 = 2. + 3. urratsak <i>Barne abandonoa</i> 2. eta 3. urratsean geldituak	518 = %34  98 = %6	346 = %32  117 = %11	864 = %33  215 = %8
Euskaldun osoak BI = 4. urratsa eta gorago <i>Barne euskaldun hobeak</i> B2 = 6. urratsa eta gorago	705 = %47  188 = %13	419 = %38  73 = %7	1124 = %43  261 = %10
Ikasle oro	1514 = %100	1093 = %100	2607 = %100

Taula honek AEKko ikasleen argazki bat ematen du, erakutsiz zertan den AEKtik pasatu diren jende helduen euskalduntasuna. Atalase maila ongi neurtua bada, ikus dezakegu AEKko ikasleetan, laurden (%24) bat euskara guti-ekin gelditzen dela. Iduri luke muga bat badela lehen eta bigarren ikasturtearen artean gainditzeko zaila dena. Zergatik ?

Ikasleen fitxan atal bat bada abandonoari buruz eta 6 arrazoi aurreikus-ten dira: egoitza aldaketa, lan egoeraren aldaketa, osasun arazoak, erritmoa ezin segitu, denborarik ez, motiabazio eskasa eta besterik. Baina atal hau hut-sik gelditu da. Alabaina nork erantzun behar zuen ? Ikaslea joana da, beraz idazkarien edo irakasleen gain zen hurrengo ikasturte hastapenean informa-zio horiek bilatzea. Ez da egin. Alta ba balio luke aztertzea zergatik gertatzen den lehen ikasturtearen bukaerako ikaslegoaren odol huste hau.

Bigarren kategorian badago ikaslegoaren heren bat (%33) jadanik elebi-dun hartzaile bilakatu dena, irratien entzuteko gai direnak, kulturgintzan ulertuz parte hartzeko, harreman sinboliko batzuk eramateko, (agian) urru-nago joateko gogoarekin. Alabaina 215 dira 2. eta 3. ikasturteen buruan gel-ditu direnak, ikaslegoaren (%8). Beraz %25ek jarraitzeko xedea dutela asma daiteke.

Hirugarren kategorian, inkesta egin den egunean, jadanik %43 egiazko euskaldun dira lau urteren buruan eta horietarik laurden batek hobekuntzan jarraitzen du, ikasleen %10. Agian gehitu behar lirateke %25 ikasleak biga-rren kategorian gelditu ez direnak. Prospektiba honek azterketa diakroniko bat suposatzen du.

## **Etorkinen eta herrikoen hizkuntza gaitasunaren konparaketa**

Jatorriaren arabera, ikasle etorkinetan ondorioak askoz ahulagoak dira, herrikoei konparatuz. Etorkinetan %30 lehen urtean gelditzen dira eta beste %11, 2. eta 3. ikasturteetan. Ororen buru, hirugarren kategorian % 38 egiaz-ko euskaldun badaude beste %21 gehituko direlako itxaropenarekin. Hobe-kuntzaren sailan sartzen direnak %7 dira soilik.

Ondorio hobeak gertatzen dira bertako ikasleekin. %19 dira lehen urte-an ikaskuntza gelditzen dutenak. Bestalde 2. eta 3. ikasturteen artean emen-datze bat izan da, oro har bi ikasturteetan %6ren galtzea da soilik. Hiruga-rren kategorian jadanik %47 egiazko euskaldun daude, %28ren gehitzeko itxaropenarekin. Hobekuntzaren bidea hartzen dutenak %13 dira, kasik etor-kinen doblea.

AEKren lana eraginkorra da. Baina zailago da etorkin helduak euskaldun-tzea ezinez eta herriko erdaldunak. Diagnostika zuzen bat egiteko ikertu bekar liteke zein diren lehen ikasturtearen buruko abandonoren arrazoia.

**Laburbilduz**

AEKko euskararen ikaskuntzaren ibilbidean zortzi urrats badira, Europa Erreferentzia Morkoaren sei mailetan sartzen direnak.

Lehen bi urratsetan diren ikasleek multzo handiena osatzen dute, nola herrikoetan (%52), hala etorkinetan (%67).

Lehen ikasturtearen bukaeran irakaskuntza uzten duten ikasleen kopurua izigarri handia da ez baitakigu argi zergatik: %16 bertako ikasleetan, askoz gehiago (%30) etorkinetan.

Europako markoaren definizioak erreferentziatzat hartuz, badakigu 2009an zenbat elebidun hartzaile eta zenbat euskaldun oso ziren AEKko ikasleetan, zenbatek hobekuntza bilatzen duten eta zenbatek irakaskuntza utzi zuten: euskalduntzeko urraspidea askoz eraginkorragoa da herrikoentzat ezinez eta etorkinentzat.

**3.2. IKASLEEN JATORRIA****Emaitza gordinak**

*AEKko ikasleak sorteriaren arabera*

<i>Ikasturtea</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Orotara</i>
<i>1995-1996</i>	546	289	835
<i>2002-2003</i>	513	380	893
<i>2008-2009</i>	455	424	879
<i>3 ikasturteak</i>	1514	1093	2607

Hiru ikasturteak alderatzen baditugu gero eta proportzio berdintasun gehiago bada ikasle herritarren eta etorkinen artean. Ikasturte bakoitz, 100 ikasle hartuz, hona nola banatzen diren herritarrak eta etorkinak:


1995-1996: 65 herritar – 35 etorkin = 30 herritar gehiago.

2002-2003: 57 herritar – 43 etorkin = 14 herritar gehiago.

2008-2009: 52 herritar – 48 etorkin = 4 herritar gehiago.

1995-2009: 58 herritar – 41 etorkin = 17 herritar gehiago.



*Ikasle herritarren eta etorkinen proportzioa ebunekotan*

Hiru ikasturteen batuz bestekoa bilatzen badugu, herriko ikasleen eta etorkinen arteko ezberdintasuna doi bat herrikoen abantailetan da: 100 ikasleetan 58 herrikoak dira eta 42 kanpokoak.

**Jatorria sorlekuaren arabera 2008-2009an***Sorleku kopurua eta jatorriaren sailkapena*

« Corpusa eta metodologia » atalean erran bezala, 955 ikasle izan dira Iparraldeko AEK-ko gau eskoletan 2008-2009 ikasturtean. Ikasle-fitxak denak ongi beterik ez direlako, 879tan bakarrik jatorria emana da, herrikoa ala etorkina aipatuz baina ez beti egiazko sorlekua.

Halere 879 hauetan 530rentzat sorlekua emana da: Azkaine, Baiona, Beskoitze, Donibane Lohizune, Donibane Garazi, Hendaia, Mugerre eta Zube-roako gau eskoletako ikasleak dira<sup>11</sup>. Beraz analisiak ikasle kopuru osoaren erdia baino gehiago kontuan hartuko du.

Jatorria bost taldetan sailkatu dugu, ikasleen sorlekuaren arabera: Ipar Euskal Herrikoan sortu direnak (Iparralde), Hego Euskal Herrikoan (Hego-

<sup>11</sup> Egiazko sorlekua eman ez duten gau eskolak Amikuze (Donapaleu), Arbona, Biarritz, Hazparne, Hiribururu, Itsasu, Lehuntze eta Uztaritze dira, ikasle kopuru osoaren erdia baino gutiago.

alde), Akitarian (Akitania), Frantzian Akitaniatik kanpo (Frantzia) eta atzerriarrak, Frantziatik kanpo sortuak (Atzerria).

Sailkapen hau interesgarria iduritu zaigu euskara ikasten duten etorkinak nondik etortzen diren zehazkiago jakiteko, jakinez Ipar Euskal Herria Biarnoarekin eta bereziki Pauekin, departamenduko hiriburu gisa, Landesekin eta Bordelekin, Akitania eskualdeko hiriburu gisa, harremanetan dela. Lurralde auzo eta hiri horiek Akitania zutabeen bildu ditugu.

Etorkin atzerriarren eta ez atzerriarren bereiztea baliagarria da ere bai, sarreran erran bezala, Frantziatik kanpokoen pisua zein den neurtzeko.

Azkenean Ipar eta Hego Euskal Herrikoak bereizi ditugu ere bai, Hegoaldeko eragina zein zen ebaluatzeko.

#### *Etorkinen sorlekua zortzi gau eskoletan*

Ipar Euskal Herrian sortu direnek talde handiena osatzen dute, 250 ikasle (%47). Hego Euskal Herrikoak aldiz guti dira, 16 ikasle (%3), talde txikiena. Erdia Hendaiako gau eskolan da, 8 ikaslekin. Euskal Herrian sortu direnak 266 dira orotara, ikasleen %50.

Akitarian sortu direnak 72 dira (%14), Akitaniatik kanpoko Frantzian sortu direnak baino gutiago halere. Horiek 159 dira (%30). Beraz Frantziakoak 231 dira orotara, %44 (Ipar Euskal Herrian sortu direnak kontuan ez hartuz beraz).

- Etorkin atzerriarrak 33 dira (%6). Hauek dira beren jatorrizko herriak:
- Europan, Alemania (2), Austria (1), Espainia (7), Hungaria (1), Ingalaterra (1), Portugal (1)
  - Afrikan, Aljeria (2), Boli Kosta (1), Kamerun (1), Maroko (5), Senegal (1), Togo (1)
  - Amerikan, Argentina (1), Brasil (1), Estatu Batuak (2), Kolonbia (1), Uruguai (1)
  - Asian, Israel (1), Japonia (1)
  - Australia (1).

Lehena Espainia dugu 7rekin, gero Maroko 5ekin eta beste Afrikako frantses kolonia ohiak (6).

*Zortzi gau eskolako ikasleak sorlekuaren arabera: kopuruak*


<i>Gau eskola</i>	<i>Iparralde</i>	<i>Hegoalde</i>	<i>Akitania</i>	<i>Frantzia</i>	<i>Atzerria</i>	<i>Kopurua</i>
Azkaine	16	1	6	17	4	44
Baiona	110	3	26	55	9	203
Beskoitze	4	0	4	4	1	13
D. Lohizune	49	4	8	28	5	94
Garazi	34	0	10	32	7	83
Hendaia	11	8	7	8	5	39
Mugerre	4	0	0	1	1	6
Zuberoa	22	0	11	14	1	48
<i>Ikasle oro</i>	250	16	72	159	33	530

Zortzi gau eskola horien ehunekoak eta AEKko gau eskola guzientzat konparatzen baldin baditugu hurbil direla ohartzen gara: %50 herrikoak alde batetik eta %52 bestetik lehen kasuan, %50 etorkin batetik eta %48 bestetik bigarrean.

Beraz estrapolazioa zilegi iduritzen zaigu. Euskal Herritik kanpo sortu direnak gero eta gehiago dira AEKan (ikus 1995-1996ko zenbakiak eta 2008-2009koak), kasik ikasleen erdia bilakatuz. Aurrez ikus daitekeen bezala etorkinetan etorkin ez atzerritarrek talde handiena osatzen dute, %87,5 izanez.

*Zortzi gau eskolako ikasleak sorlekuaren arabera: ehunekoak*

<i>2008-2009</i>	<i>Iparralde</i>	<i>Hegoalde</i>	<i>Akitania</i>	<i>Frantzia</i>	<i>Atzerria</i>	<i>Kopurua</i>
<i>Zortzi gau eskolak</i>	%47	%3	%14	%30	%6	530
<i>Herriko, etorkin</i>	%50		%50			530
<i>Gau eskola guziak</i>	%52		%48			879



## Ipar Euskal Herriko gau eskoletako ikasleen jatorria eta biztanleria osoa-rena

Badakigu etorkinen proportzioa handia dela Ipar Euskal Herrian. 2006an Lapurdin %52 ziren, Nafarroa Beherean %32 eta Zuberoan %20 (Datutalaia). Lapurdik 227.754 biztanleekin 118.432 etorkin zituzkeen 2006an, Nafarroa Behereak 28.835ekin 9.227 etorkin eta Zuberoak 15.515ekin 3.102 etorkin. Orotara 130.761 etorkin ziratekeen Ipar Euskal Herrian 2006an. Horrek %48 etorkin ematen du.

Aztertzen ditugun gau eskoletan etorkin proportzio kasik berdina aurkitzen dugu, %48 2008-2009an. Era batez erran dezakegu AEKko ikasleen jatorria Ipar Euskal Herriko gizartearenaren miraila dela.

Ohar hau egin eta AEKan euskara ikasten duten bertakoen proportzioa oraino handia dela erran dezakegu ere, %52 2008-2009an eta %58 orotara. Horiek hola, euskara gutiengo hizkuntza da Ipar Euskal Herrian eta 2006ko inkesta soziolinguistikoak baieztatzen du, elebidunak %22,5 liratekeela azalduz (Eusko Jaurlaritzak, 2008).

### *Laburbilduz*

Herrikoak etorkinak baino gehiago dira AEKan, baina aldea ttipitzen ari da. 2008-2009an 100 ikasleetan 52 herrikoak dira eta 48 kanpokoak, 1995-1996an herrikoak 65 ziren eta kanpokoak 35.

Sorlekuaren arabera sailkatuz, Ipar Euskal Herrian sortu direnek talde handiena osatzen dute (%47), Hego Euskal Herrikoek talde ttipiena (%3).

Akitanian sortu direnak %14 dira, Akitaniatik kanpoko Frantzian %30 eta etorkin atzerritarrek %6.

Era batez AEKko ikasleen jatorria Ipar Euskal Herriko gizartearen antzekoa dela erran daiteke.

### 3.3. IKASLEEN GENEROA

#### Metodologia orokorra

Abiapuntua da zerrenda orokorretik ateratzen den taula, zenbaki gordinekin. Konparaketak egiteko ehunekoak erabil daitezke, hiru moldetan:

- Ehuneko bertikala baliagarri da ikusteko herrian sortu ikasleak, ikasle etorkinak eta ikasle multzo osoa, proportzionalki nola egituratzen diren

aztertzen den aldagaiaren arabera. Atal honetan multzo bakoitzean ehuneko zenbat emazte eta zenbat gizon diren emaiten digu.

- Ehuneko horizontalak aldiz erakustera emaiten digu ikasturte bakoitzean ehunekotan zenbat ikasle herritar eta zenbat ikasle etorkin dauden aztertzen den aldagaiaren arabera. Bestela erranez, atal honetan, herriko ikasleak eta etorkinak kontatzen ditugu genero bakoitzean ehun ikasle balira bezala.
- Ehuneko diagonalak taula gordinaren miniatura ematen digu, ikasleen kopuru osoa 100 ikaslekoa balitz bezala. Ondorioz tratamendu honek ez liguke gauza berriagorik erakuts.

Tratamendu hauek ikasturte bakoitzarentzat eginez, diakronia agertuko da, denbora batetik bestera.

Ehunekoak bigarren dezimaletaraino ereman daitezke zientifikotasunez. Baina unitatean geldituz, hurbilketa nahikoa da, kopuruak ttipiak baitira eta ikaslea unitate ezin zatitua baita.

## Generoari buruzko emaitza gordinak

*AEKko ikasleak jatorria eta generoaren arabera*

<i>Ikasturtea</i>	<i>Generoa</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Orotara</i>
<i>1995-1996</i>	Emazte	286	155	441
	Gizon	260	134	394
	Oro har	546	289	835
<i>2002-2003</i>	Emazte	268	203	471
	Gizon	245	177	422
	Oro har	513	380	893
<i>2008-2009</i>	Emazte	254	218	472
	Gizon	201	206	407
	Oro har	455	424	879
<i>Hiru ikasturteak</i>	Emazte	808	576	1384
	Gizon	706	517	1223
	Oro har	1514	1093	2607

Ikasturte oroz eta beraz orokorrean, emazteen kopurua gizonena baino handiagoa da. Euskal Herrian sortu ikasleena ikasle etorkinena baino handia-

goa da. Baina ezberdintasunak ttipituz doaz bi multzo horien artean. Alabaina bi aldagaiak kurutzatuz agertzen diren multzoen ordena berdina da lehen bi ikasturteetan: herriko emazteak, herriko gizonak, emazte etorkinak eta gizon etorkinak. 2008-2009an ordena aldatzen da: herriko emazteak, emazte etorkinak, gizon etorkinak, herriko gizonak. Beraz azkenean genero ezberdintasuna ( $472-407=65$ ), jatorri ezberdintasuna ( $455-424=31$ ) baino askoz handiagoa da.

Halere hiru ikasturteetako emaitza gordinak orokorrean hartuz, jatorri ezberdintasuna ( $1514 - 1093 = 401$ ) askoz genero ezberdintasuna ( $1384 - 1223 = 161$ ) baino handiagoa da.

### Ehuneko bertikala: generoaren azterketa jatorri multzoetan

Ikus dezagun emakumezko eta gizonetzko ikasleen proportzioa, herrikoe-tan eta kanpokoetan, ikasturte batetik bestera eta orokorrean.

*AEKko ikasleen generoa jatorriaren arabera (%)*


<i>Ikasturtea</i>	<i>Generoa</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
<i>1995-1996</i>	Emazte	%52	%54	%53
	Gizon	%48	%46	%47
	Oro har	%100	%100	%100
<i>2002-2003</i>	Emazte	%52	%53	%53
	Gizon	%48	%47	%47
	Oro har	%100	%100	%100
<i>2008-2009</i>	Emazte	%56	%52	%54
	Gizon	%44	%48	%46
	Oro har	%100	%100	%100
<i>Hiru ikasturteak</i>	Emazte	%53	%53	%53
	Gizon	%47	%47	%47
	Oro har	%100	%100	%100

1995ean, oro har emazte ikasleak, gizonetzkoak baino gehixago dira. 100 ikasletan 53 emazte eta 47 gizon. Ezberdintasuna handiagoa da ikasle etorkin-etan (%8 emazte gehiago) ezinez eta herriko ikasleetan (%4 emazte gehia-go).

2002an, oro har gizonetzko ikasleen ehunekoak eta emazteena 1995an bezalakoa da: 100 ikasletan 53 emazte eta 47 gizon. Ezberdintasuna %6. Gauza berdinsua ikasle etorkineetan, baina ezberdintasuna %4 herriko ikasleetan, emazteen abantailan.

2008an, orokorki emazteen proportzioa doi bat gehitu da: 100 ikasletan 54 emazte et 46 gizon, beraz 8 ikasleen ezberdintasuna. Ezberdintasun proportzionala herriko ikasleetan gertatu da gehienik (%12 emazte gehiago) ezinez eta ikasle etorkinetan (%4 emazte gehiago).

### *Emazteen eta gizonen ehunekoak ikasletan*



Hiru ikasturteak orokorrean hartuz, ohargarri da genero proportzioa kasik berdina dela herritarretan eta etorkinetan: 100 ikasletan 53 emazte eta 47 gizon.

**Ehuneko horizontala: jatorri-multzoen azterketa generoaren arabera***AEKko ikasleen jatorri multzoak generoaren arabera (%)*

<i>Ikasturtea</i>	<i>Generoa</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Orotara</i>
1995-1996	Emazte	%65	%35	%100
	Gizon	%66	%34	%100
	Oro har	%65	%35	%100
2002-2003	Emazte	%57	%43	%100
	Gizon	%58	%42	%100
	Oro har	%57	%43	%100
2008-2009	Emazte	%54	%46	%100
	Gizon	%49	%51	%100
	Oro har	%52	%48	%100
<i>Hiru ikasturteak</i>	Emazte	%58	%42	%100
	Gizon	%58	%42	%100
	Oro har	%58	%42	%100

1995ean Euskal Herriko ikasleak kasik etorkinen dobleak dira, 100 ikasletan 65 herrikoak eta 35 etorkinak. Ezberdintasun handixago gizonetan (bi heren, heren bat).

2002an Euskal Herriko ikasleen eta etorkinen arteko ezberdintasun kantitatiboa gutitu da, emazteetan bereziki. Halere oro har 100 ikasletan 57 herritar eta 43 kanpoko, % 14ren ezberdintasunarekin.

2008an proportzioak aldatu dira. Emazteetan herritarren eta etorkinen arteko ezberdintasuna ttipitzen da oraino (%54 versus %46). Aldiz gizonetan ikasle etorkinak herrikoak baino gehiago dira (%51 versus %49).

***Laburbilduz***

AEKan, euskara ikasten duten emazteak gizonak baino gehiago dira: 100 ikasletan 53 emazte eta 47 gizon dira.

Ezberdintasun hori herrikoetan handitzen da. 2008-2009an, 100 herriko ikasletan 56 emazte eta 44 gizon dira.

Gizonetan, lehen aldikoz, ikasle etorkinak herrikoak baino gehiago dira 2008-2009an: 206 versus 201 (erantzuna eman dutenen artean, bistan da).



### 3.4. IKASLEEN ADINA

#### Adinaren emaitza gordinak

Hemen ere abiapundua da zerrenda orokorretik ateratzen den zenbaki gordinen taula. "Sortze urtearen" emaitzak lau adin multzotan edo adinartetan banatu ditugu: 16-24 urte, 25-34 urte, 35-49 urte eta 50 urte eta gehiagoko ikasleak. Adinarte bakoitzean erdi-guneko sorturtea agertzen da, ikasle gazteena eta zaharrenaren artekoa.

Emitza gordinak ikasturte bakoitzarentzat agertzen dira eta gero orokorki, hiru ikasturteak metatuz. Erantzunik eman ez dutenak 179 ziren. Ez ditugu azterketetan kontuan hartu.

*AEKko ikasleak adinartean eta jatorriaren arabera*

<i>Ikasturtea</i>	<i>Erdiguneko sorturtea</i>	<i>Adinarteak</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Orotara</i>
<i>1995-1996</i>	1975	16-24	158	28	186
	1965	25-34	189	99	288
	1953	35-49	133	105	238
	1935	50-71	50	47	97
	1955	16-71	530	279	809
<i>2002-2003</i>	1982	16-24	139	26	165
	1973	25-34	151	100	251
	1960	35-49	123	124	247
	1940	50-74	89	115	204
	1961	16-74	502	365	867
<i>2008-2009</i>	1988	16-24	83	19	102
	1979	25-34	159	126	285
	1966	35-49	108	127	235
	1943	50-79	103	147	250
	1965	16-79	453	419	872
<i>Hiru ikasturteak</i>	1982	16-24	380	73	453
	1972	25-34	499	325	824
	1960	35-49	364	356	720
	1939	50-79	242	309	551
	1960	16-79	1485	1063	2548

Hiru ikasturteen arteko konparaketa bat egiten badugu, ohartzen gara orokorrean erantzun duten ikasleen kopurua 63 ikaslez handiagoa dela. Baina herriko ikasleak kasik 80ez guttiagoa direlarik, etorkinak 140ez emendatu dira.

Adinarteak konparatzen baditugu, hiru ikasturteak metatuz, 25-34 urtekoak dira jendetsuenak, gero 35-49 urtekoak, hirugarrenik zaharrenenak, eta azkenik gazteenenak. Ordena kantitatibo bera aurkitzen da orokorki 2002an eta 2008an, baina 1995ean zaharrenen multzoa zen ttipiena. Berezitasun bat agertzen da ikasle etorkinetan: aldi oroz 35-49 urtekoen multzoa, 25-34 urtekoena baino handiagoa da ; bestalde 16-24 urtekoen multzoa beti ahulena da, gero eta ahulagoa (28, 26, 19 ikasle).

### Batez besteko adina


Baditugu kasik ikasle guztien adinak. Beraz batez besteko adina aurki dezakegu herriko ikasleentzat, etorkinentzat, orokorki, ikasturte bakoitzarentzat eta hiru ikasturteak metatuz. Gauza bera egin genezake batez besteko adin teorikoak erabiliz, dakigularik zenbat ikasle diren aipatu kategorian bakoitzean.

Adinarte bakoitzeko batez besteko adin teorikoak dira: 20 urte, 29,5 urte, 42 urte eta 64 urte. Haatik ikasturte batetik bestera, ikasle zaharrenaren adina ez da berdina: 1995ean 71 urte, 2002an 74 urte, 2008an 79 urte. Beraz batez besteko adina araberan zuzendu behar da. Ondorengo taulak agertzen ditu kondatzeko molde honen emaitzak.

#### *AEKko ikasleen batez-besteko adina*

<i>Ikasturtea</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Ikasle oro</i>
<i>1995-1996</i>	33 urte	39,5 urte	35 urte
<i>2002-2003</i>	32 urte	43 urte	39 urte
<i>2008-2009</i>	39 urte	45 urte	42 urte
<i>1995-2009</i>	35,5 urte	42,5 urte	38,5 urte

Orokorrean AEKko ikasleak gero eta zaharragoak dira, batez-besteko adina 1995ean 35 urtekoa zen, 2002an 39 urtekoa eta 2008an 42 urtekoa. Ikasturteak aztertuz, aldi oroz herriko ikasleak etorkinak baino gazteago dira, 7 urtez gazteago 1995ean, 9 urtez 2002an eta 6 urtez 2008an. 1995 eta 2008 artean herriko ikasleak 6 urtez zahartu dira, 33 urtetik 39 urtera, denbora berean etorkinak 5 urte eta erdiz zahartu direlarik, 39,5 urtetik 45 urtera.



## Ehuneko bertikala: jatorri-multzoen azterketa adinaren arabera

*AEKko ikasleen jatorria adinarteen arabera (%)*

<i>Ikasturtea</i>	<i>Erdiguneko sorturtea</i>	<i>Adinarteak</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
<i>1995-1996</i>	1975	16-24	%30	%10	%23
	1965	25-34	%36	%35	%36
	1953	35-49	%25	%38	%29
	1935	50-71	%9	%17	%12
	1955	16-71	%100	%100	%100
<i>2002-2003</i>	1982	16-24	%28	%7	%19
	1973	25-34	%30	%27	%29
	1960	35-49	%25	%34	%28
	1940	50-74	%17	%32	%24
	1961	16-74	%100	%100	%100
<i>2008-2009</i>	1988	16-24	%18	%5	%12
	1979	25-34	%35	%30	%33
	1966	35-49	%24	%30	%27
	1943	50-79	%23	%35	%28
	1965	16-79	%100	%100	%100


*AEKko ikasleen jatorria adinarteen arabera (%)*

<i>Ikasturtea</i>	<i>Erdiguneko sorturtea</i>	<i>Adinarreak</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
<i>Hiru ikasturteak</i>	1982	16-24	%26	%7	%18
	1972	25-34	%34	%31	%32
	1960	35-49	%24	%33	%28
	1939	50-79	%16	%29	%22
	1960	16-79	%100	%100	%100

Taula honetan hiru multzoren adin egitura agertzen dira ehunekotan: herriko ikasleak, ikasle etorkinak eta ikasle guztiak. Adin piramidoan bezelatsu, salbu-eta adin piramidoetan zenbaki gordinak erabiltzen direla.

Hiru ikasturteak metatuz erran dezakegu adinarte gazteena kasik 4 aldiz jendetsuago dela herrikoetan ezinez eta etorkinetan (%26 versus %7). Alderantziz adinarte zaharrena kasik 2 aldiz jendetsuago da etorkinetan (%29 versus %16).

*Ikasleen adin egiturak: kanpoan herrikoak, barnean etorkinak*



Ikasturteen arteko aldaketan ohargarri da, nola herrikoetan hala etorkinetan, adinarte gazteenean gero eta ikasle gutiago dela eta bestalde gero eta adinarte zaharrenean gero eta ikasle gehiago, aldi oroz ehun ikasle hartuz. Era orokorrean etorkinak herrikoak baino zaharrago dira. Eta bi multzoetan, hiru ikasturteetan zehar, ikasleen adina emendatzen da.

### Ehuneko horizontala: adinarreak jatorriaren arabera

Taula honetan jatorriaren eragina agertzen da adinarreak ehunekotan ezarritz, adinarre guztiak ehun ikaslez osatuak balira bezala.

#### *AEKko ikasleen adinarreak jatorriaren arabera (%)*

<i>Ikasturtea</i>	<i>Erdiguneko sorturtea</i>	<i>Adinarreak</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Orotara</i>
<i>1995-1996</i>	1975	16-24	%85	%15	%100
	1965	25-34	%66	%34	%100
	1953	35-49	%56	%44	%100
	1935	50-71	%52	%48	%100
	1955	16-71	%66	%34	%100
<i>2002-2003</i>	1982	16-24	%84	%16	%100
	1973	25-34	%60	%40	%100
	1960	35-49	%50	%50	%100
	1940	50-74	%44	%56	%100
	1961	16-74	%58	%42	%100
<i>2008-2009</i>	1988	16-24	%81	%19	%100
	1979	25-34	%56	%44	%100
	1966	35-49	%46	%54	%100
	1943	50-79	%41	%59	%100
	1965	16-79	%52	%48	%100
<i>Hiru ikasturteak</i>	1982	16-24	%84	%16	%100
	1972	25-34	%61	%39	%100
	1960	35-49	%50	%50	%100
	1939	50-79	%44	%56	%100
	1960	16-79	%58	%42	%100

Hiru ikasturteak metatuz, nabari da, ikasle gazte gehienak herritarrak direla. 16-24 urteko ikasleetan etorkinak %16 dira, herrikoak baino 5etan guttiago. 25-34 urtekoetan ere herrikoak %22 gehiago dira. 35-49 urtekoetan herrikoen eta etorkinen multzoak berdintsuak dira. Aldiz adinarte zaharrenean ikasle etorkinak %12 gehiago dira herrikoekin konparatuz. Hots adinarte gazteago eta araberan ikasle herritar gehiago, adinarte zaharrago eta araberan ikasle etorkin gehiago.

Ikasturteak alderatuz, proportzio orokorra hori ez da den bezala agertzen 1995-1996ean ; ikasle gazteenetan, bai, etorkinak kasik 6 aldiz herrikoak baino guttiago dira, 25-34 urtekoetan ere etorkinak herrikoen erdiak dira. Baina zaharretan ere herrikoak etorkinak baino doi bat gehiago dira. Egia erran ikasturte horretan ikasle etorkinak herrikoen erdiak ziren eta desoreka hori adinarte guztietan agertzen da.

Aipatu proportzioa beste bi ikasturteetan egiaztatua da ikasleak gazteago eta araberan etorkin gutiago, ikasleak zaharrago eta araberan etorkin gehiago. Bereziki 2002-2003ko ikasturtean, ikasle etorkinetan askoz gazte gutiago (100 ikasletan 16 dira) eta zahar gehiago (+12%) herrikoiei konparatuz. Haatik 2008-2009an proportzioa aldatu da: ikasle gazteenetan etorkinak %19 dira, 3 punduz emendatuz, baina ikasle zaharretan ere etorkinak 3 punduz emendatu dira. Ikasle multzoak berdintsuak zirelarik, bi adinarte gazteenetan herrikoak nagusi, eta bi zaharretan etorkinak.

### *Laburbilduz*

Lau adin multzoetan 25-34 urtekoak dira jendetsuenak, gero 35-49 urtekoak, hirugarrenik zaharrenak (50 urte eta gehiagokoak), eta azkenik gazteenak (16-24 urtekoak).

Ikasleak gero eta zaharragoak dira, batezbesteko adina 1995ean 35 urtekoa zen, 2002an 39 urtekoa eta 2008an 42 urtekoa.

Herrikoak etorkinak baino gazteagoak dira urte oroz. 16-24 urteko multzoan gehiago dira bereziki, %81 ziren 2008-2009an. Etorkinak, aldiz, herrikoak baino gehiago dira 50 urte eta gehiagoko multzoan, %59 ziren 2008-2009an.

### 3.5. LAN-EGOERA

#### Lan-egoeraren emaitza gordinak

Ikaslearen fitxan, lan-egoeraren taulan bost erantzunen aukera bada: lan-tegia, lanbidea, lanbiderik gabe, langabezian eta erretretan. Informazio hauk bi zatitan aztertuko ditugu. Lehenik kondatuko ditugu lanean daudenak (hots lantegia aipatu dutenak), erretretan direnak eta langabezian daudenak. Bigarren zatian lanbideak aztertuko ditugu. Erantzunik eman ez dutenak I68 dira eta ez ditugu azterketan sartu.

*AEKko ikasleak lan-egoeraren eta jatorriaren arabera: zenbaki gordinak*


<i>Ikasturtea</i>	<i>Lan-egoera</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Orotara</i>
<i>1995-1996</i>	Lanean	373	182	555
	Erretretan	19	26	45
	Langabezian	113	64	177
	Oro har	505	272	777
<i>2002-2003</i>	Lanean	341	226	567
	Erretretan	38	55	93
	Langabezian	114	88	202
	Oro har	493	369	862
<i>2008-2009</i>	Lanean	309	244	553
	Erretretan	70	89	159
	Langabezian	67	82	149
	Oro har	446	415	861
<i>Hiru ikasturteak</i>	Lanean	1023	652	1675
	Erretretan	127	170	297
	Langabezian	294	234	528
	Oro har	1444	1056	2500

### AEKko ikasleen lan egoera hiru ikasturteak hartuz

Gehiengo handi batean AEKko ikasleak beste langune bateko langileak dira zenbaki gordinak hartuz. Orokorrean ageri dena ikasturte guztietan egiaztatua da. Eta aldi oroz langile gehiago bada herriko ikasleetan ezinez eta etorkinetan.

Erretretadunak askoz gutiago dira, baina gero eta gehiago ikasturte bate-tik bestera. Bestalde aldi oroz erretratadun gehiago bada ikasle etorkinetan ezinez eta herrikoetan.

Langabezian direnak orokorrean gehiago dira herriko ikasleetan, salbu 2008-2009ko ikasturtean non ere etorkin langabe gehiago baitira.



### Ehuneko bertikala: jatorri-multzoen azterketa lan-egoeraren arabera


Ikus dezagun jatorriaren arabera multzo bakoitzean eta orokorki ehun ikasleen artean zenbat diren lanean, erretretan eta lan-gabezian. Hiru ikasturteak aztertuz, ikusiko dugu zer aldaketa gertatu den 1995tik 2008 arte.

Zenbaki gordinetan ezberdintasunak handiak dira ikasle multzoen artean, baina ehunekotan egonkortasuna eta berdintasuna dira nabarrienak.



*AEKko ikasleak lan-egoeraren eta jatorriaren arabera (%)*

<i>Ikasturtea</i>	<i>Lan-egoera</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
<i>1995-1996</i>	Lanean	%74	%67	%71
	Erretretan	%4	%10	%6
	Langabezian	%22	%23	%23
	Oro har	%100	%100	%100
<i>2002-2003</i>	Lanean	%69	%61	%66
	Erretretan	%8	%15	%11
	Langabezian	%23	%24	%23
	Oro har	%100	%100	%100
<i>2008-2009</i>	Lanean	%69	%59	%64
	Erretretan	%16	%21	%19
	Langabezian	%15	%20	%17
	Oro har	%100	%100	%100
<i>Hiru ikasturteak</i>	Lanean	%71	%62	%67
	Erretretan	%9	%16	%12
	Langabezian	%20	%22	%21
	Oro har	%100	%100	%100

*AEKko ikasleen lan-egoera ikasturtero*


Ikasturte batetik bestera, ikasle guziak kontuan hartuz, lan batean ari direnak beti gehiengoan dira baina arabera gero eta guttiago dira ; langabezian direnak ere bai. Aldiz erretretan direnak gero eta gehiago dira. Hiru ikasturteetan ikasle etorkin gehiago bada erretretan eta langabezian herrikoei konparatuz.

### Ehuneko horizontala: lan-egoera bakoitzean zenbat ikasle

Ikus dezagun lan-egoera bakoitzean ehun ikasleen artean zenbat diren herrikoak eta zenbat etorkinak. Hiru ikasturteak aztertuz, ikusiko dugu zer aldaketa gertatu den 1995tik 2008 arte.

*AEKko ikasleak lan-egoera eta jatorriaren arabera (%)*

<i>Ikasturtea</i>	<i>Lan-egoera</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Orotara</i>
<i>1995-1996</i>	Lanean	%67	%33	%100
	Erretretan	%42	%58	%100
	Langabezian	%64	%36	%100
	Oro har	%65	%35	%100
<i>2002-2003</i>	Lanean	%60	%40	%100
	Erretretan	%41	%59	%100
	Langabezian	%56	%44	%100
	Oro har	%57	%43	%100
<i>2008-2009</i>	Lanean	%56	%44	%100
	Erretretan	%44	%56	%100
	Langabezian	%45	%55	%100
	Oro har	%52	%48	%100
<i>Hiru ikasturteak</i>	Lanean	%61	%39	%100
	Erretretan	%43	%57	%100
	Langabezian	%56	%44	%100
	Oro har	%58	%42	%100

*Lan profesional bat duten ikasleak ehunekotan*

Ehun ikasle hartuz, 1995ean lanean ari ziren herritarrak etorkinen doubleak ziren (67 versus 33). Baina beste bi ikasturteetan araberako ezberdintasuna gutxituz doa: 2002an 60 versus 40 eta 2008an 56 versus 44.

Alderantziz erretretan diren ikasleak urte oroz gehiago dira etorkinetan eta hein berdintsuan, etorkinen %57 versus herrikoen %43 batez beste. Ulergarri da zeren eta ikusi baitugu adinaren arabera etorkinak herrikoak baino zaharrago direla. Gainera erretradunak badira Euskal Herrira bizitzeko etortzen direnak.

Langabeziari begira, gauzak ez dira biziki argi. Ehun ikasle hartuz, 1995ean lanik gabe ziren herrikoak kasik etorkinen doubleak ziren: 64 versus 36. Gero egoera aldatu da eta 2008an lanik gabeko etorkinak arabera herrikoak baino gehiago ziren: %55 versus %45. Larrialdi ekonomikoaren eraginez, lan baldintzak gaizkondu dira etorkinentzat iduriz.

**Laburbilduz**

Orokorrean AEKko ikasleak lanean dira gehienik (%67) eta urte oroz langile gehiago bada herriko ikasleetan (%71) ezinez eta etorkinetan (%62). Baina enplegu-tasa apaltzen da urte batetik bestera, %74tik 1995ean %69ra 2008an herrikoentzat eta %67tik %59ra etorkinentzat.

Erretretan direnak gero eta gehiago dira herriko ikasleetan bai eta ere etorkinetan, %16 alde batetik eta %21 bestetik 2008-2009an.

Langabezia aldiz apaltzen da. 2008-2009an herrikoen %15 langabezian dira eta etorkinen %20.

Ipar Euskal Herriari konparatuz, langabezia AEKko ikasleetan lurraldean baino handiago da: %6,4 Ipar Euskal Herrian 2008an, Merkataritza Ganbararen arabera (2009, *Iparaldeko zenbakiak*: 6).

### 3.6. LANBIDEAK

#### Lanbideen taula gordina

Kapitulu honetan ikasleen lanbideak aztertzen ditugu. Hartzen ditugu lan profesional batean ari direnak, erretretan direnak baztertuz, bai eta ere langabezian daudenak. Gerta daiteke erretretan edo langabezian daudenek ere bazutela edo badutela lanbide bat. Baina AEKko ikasle fitxak eskaintzen dituen aukeren zerrenda ikusiz, ageri da lantegi batean ari direnen lanbideak direla kontuan hartuak. “Lan egoera: lantegia, lanbidea, lanbiderik gabe, langabezian, erretretan”.

Lanbideak sailkatu ditugu Colin Clark (1939) eskoziar ekonomistak definitu zituen hiru ekoizpen sektoreen arabera. Ikus UZEIren *Ekonomia biztegia*, “Jendetza eta sozio-ekonomi egituraz”, 103. orrialdean. Lehen sektorea baliabide naturalen eta lehengaien bilketarena da, bereziki laborantza eta arrantza. Bigarren sektorean daude transformazio edo erraldaketa industriak adibidez janariak, soinekoak, etxegintza, zurgintza, metalgintza, kimika. Hirugarren sektorea zerbitzuena da hala nola merkataritza, komunikabideak, hezkuntza, zerbitzu pertsonalak ala publikoak eta beste.

Gure zerrendan ikasleak ere gehitu ditugu. Oraindik ez daude ekoizpen sektore batean baina langile intelektual bezala definitzen ahal ditugu, ekoizle izateko prestatzen ari direnak. Hona emaitza gordinen taula.

#### *AEKko ikasleak lanbidearen eta jatorriaren arabera*

<i>Ikasturtea</i>	<i>Lanbidea</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Orotara</i>
1995-1996	Laborantza	6	5	11
	Industria	69	31	100
	Zerbitzuak	209	116	325
	Ikasle	66	20	86
	Oro har	350	172	522

*AEKko ikasleak lanbidearen eta jatorriaren arabera*

<i>Ikasturtea</i>	<i>Lanbidea</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Orotara</i>
2002-2003	Laborantza	4	3	7
	Industria	121	58	179
	Zerbitzuak	183	159	342
	Ikasle	19	2	21
	Oro har	327	222	549
2008-2009	Laborantza	11	13	24
	Industria	66	42	108
	Zerbitzuak	216	183	399
	Ikasle	12	4	16
	Oro har	305	242	547
<i>Hiru ikasturteak</i>	Laborantza	21	21	42
	Industria	256	131	387
	Zerbitzuak	608	458	1066
	Ikasle	97	26	123
	Oro har	982	636	1618

Lehen begirada batean, ikasturteak bederazka hartuz edo hiruek metatuz, ikusten dugu desoreka handia lanbide sektoreen artean. Laborariak gutti dira, industriako teknikariak askoz gehiago: 10etan gehiago 1995ean, 25etan gehiago 2002an. Zerbitzuen sektorea da jendetsuena, ikasturte oro, nola herriko ikasleetan hala etorkinetan. Askotan industrialariak baino hiruetan gehiago. Ikasleen kopurua erdigune batean dago laborarien eta industrialarien artean.

Lanbide banaketa honek azterketa zehatzago bat merezi du. Lehen galdea litzateke banaketaren desoreka hau gizarte bizitzaren miraila ote den.

### **Ekoizpen sektoreak Ipar Euskal Herrian**

Lehen konparaketa bat egin genezake Ipar Euskal Herri osoko ekoizpen enpleguen eta AEKko ikasleek dauzkaten artean. Garapen Kontseiluak eta Komertzialdegiak errolda urte oroz Ipar Euskal Herriko ekonomiaren egoera aurkezten dute INSEE erakundearen emaitzak hartuz Baionako arrondizamenduan eta Zuberoako bi kantonamenduetan.

Aurkezpen horretan I. sektorea laborantzan mugatzen da, arrantzak azterketa berezia daukalarik. 2. sektorean bi eremu handi kantifikatuak dira, industriako enpleguak eta etxegintzakoak, hemen elkarretaratzen ditugunak. 3. sektorean ere bi eremu elkarrekin biltzekoak dira, merkataritza eta beste zerbitzuak, pribatuak zein publikoak, bereziki osasunaren eta hezkuntzaren alorretan.

AEKko eta Iparralde osoko jendetzak hain dira ezberdinak non emaitza gordinek ez baitute deus erakusten. Baina ehunekoan bitartez ikus daiteke AEKko ikaslegoa herriaren argazkia dela enpleguari begira. Hona hemen ekoizpen enpleguen taula.

*Enpleguak ekoizpen sektoreka (%)*

<i>Enpleguak</i>	<i>1. sektorean</i>	<i>2. sektorean</i>	<i>3. sektorean</i>	<i>Kopurua %100</i>
<i>INSEE 1990</i>	%8	%25	%67	91.336
<i>AEK 1995</i>	%3	%23	%74	436
<i>INSEE 1999</i>	%6	%21	%73	98.562
<i>AEK 2002</i>	%1	%34	%65	528
<i>INSEE 2006</i>	%6	%22	%72	108.921
<i>AEK 2008</i>	%5	%20	%75	531
<i>INSEE 90-06</i>	%7	%22	%71	99.606
<i>AEK 95-09</i>	%3	%25	%72	1.495

Taula honetan “kopurua” zutabean %100 ezartzeko ordeztan, kopuru gordinak ikusten da, beste zutabeetako ehunekoak zenbaki gordinera itzuli nahi dutenentzat. Azken bi lerroetan, batez bestekoak ateratzeko, INSEErantzat kopuruen batez bestekoa hartu dugu, maizenik langile berak baitira. Aldiz AEKrentzat kopuruen kopurua hartu dugu, ikasturte batetik bestera ikasle ezberdinak baitira.

INSEE erakundearen arabera aspaldidanik ekonomiaren tendentzia da lehen sektorea ahulena dela enpleguen aldetik. Errolda batetik bestera gero eta ahulago da. Industriaren sektorea lanborantzarena baino indartsuago da, baina 2. sektorea ere ahulduz doa. Gora behera batzurekin, ekoizpen enpleguetarik %22 eskaintzen ditu nonbait han. Aldiz zerbitzuen sektoreak, merkataritza barne, askoz beste biak baino indartsuago da. 3. sektore honek gero eta lan-postu gehiago eskaintzen ditu eta enpleguen %70ren haina gaindituz.

AEKko ikasleetan enpresa batean lan egiten dutenak kondatu ditugu bakarrik, langabeak, erretretadunak eta ikasle soilak baztertuz. Ohargarri da

AEKko estatistika INSEEnaren miraila dela, bereziki 1995ean eta 2008an. AEKko ikasleetan ere laborariak dira gutiengoan, %5 eta %1 artean. Ehuneko ttipia ulergarria da, sektore sozio-profesional hau euskaldunena baita, beraz jende helduek ez dute euskara ikasi beharrik.

Bigarren sektoreko ikasleak %22en inguruan kokatzen dira AEKren ikaslegoan gizartean bezelatsu. Salbu 2002-2003ko ikasturtean, non ere industrialariak %34ra heltzen baitira, beste bi sektoreak 1995-1996ean eta 2008-2009an baino askoz ahulago direlarik.

Hirugarren sektoreko ikasleak gehiago handian daude hiru ikasturteetan, bereziki 2008-2009an, non ere ikasleen hiru laurdenetara heltzen baitira.

INSEEn hiru errolden batez-besteak ateratuz eta AEKko hiru ikasturterenak berdintasunak nabari dira bigarren eta hirugarren sektoreetan ehuneko bizpahiru puntu gora-behera: %22 eta %71 versus %25 eta %72 hurrenez hurren. Lehen sektorean batez-besteak ehuneko ahula da INSEEn (%7), baina askoz ahulago AEKn (%3).

Oro har erran dezakegu, ikasleen lanbideak ikusiz, AEK Ipar Euskal Herriko gizartearen miraila dela. Gauza bera ikus genezake hain segur erretadunekin eta langabezia daudenekin.

### Azterketa zehatza

Hiru ekonomia sektoreetan kategoria sozio-profesional ezberdin asko daude. Interesgarri litzateke ikustea zein lanbideetan kokatzen diren AEKko ikasleak. Egingarri da zeren eta fitxa askotan ikasle bakoitzaren langunea eta lanbidea agertzen baitira. Azterketa osoa luzegi bailitake, ikasturte bakoitzean ehun lanbide hartu ditugu. Haatik ikasturteen arteko konparaketa zuzena egiteko, ez ditugu ikasleak herri beretan hartu.

1995-1996 ikasturtean zerrendaren hastapenean 100 lanbide bildu ditugu : Amikuzen 14 ikasle, Arbonan 13 ikasle, Baigorri 6 ikasle eta Baionan 67 ikasle.

2002-2003 ikasturtean zerrendaren erdigunean 100 lanbide: Baionan 9 ikasle, Beskoitzen 3 ikasle eta Donibane Lohizunen 88 ikasle.

2008-2009 ikasturtean zerrendaren azken zatian 100 lanbide: Garazin 43 ikasle, Hazparnen 31 ikasle, Hendaian 24 ikasle eta Itsasun 2 ikasle.

INSEE erakundeak kategoria sozio-profesional asko erabiltzen ditu baina gehiago langileak enpresan duen heina neurtzeko, erran gabe zein den lantegiaren helburua. Adibide batzuk: « Enpresaburu, ofiziale liberala, administrazio zuzendari, zuzendariorde, enpresa ingadore, erdiguneko administratzaile, teknikaria ». Interesatzen zaiguna da ikasleak zein lan egiten duen bere lan gunean.

Horretarako 8 ofizio multzo zerrendatu ditugu 3 ekoizpen sektoreei jarraikiz. Lehena, laborantza, den bezala utzi dugu. Bigarren sektorean bereizi ditu beren kontura lan egiten dutenak (ofizialeak) eta industria lantegieta-ko soldatadunak. Hirugarren sektorean bost lan eremu definitu ditugu: bulegoa, salerospena, hezkuntza, osasuna eta kulturgintza. Eremu batzu falta dira, administrazioa, aisialdia eta beste. Arduradun publikoak arabera lan eremuan banatu ditugu. Ez dugu kirolari profesionalik aurkitu.

Hona lanbideen banaketa ikasturteen arabera eta gero orokorrean.

*AEKko 300 ikasle ikasturtea, lanbidea eta jatorriaren arabera*

<i>Ikasturtea</i>	<i>Lanbidea</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Orotara</i>
<i>1995-1996</i>	1. laborantza	1	1	2
	2. ofiziale	2	4	6
	3. industria	12	7	19
	4. bulegoa	9	8	17
	5. salerospen	13	6	19
	6. hezkuntza	7	11	18
	7. osasuna	6	7	13
	8. kulturgintza	2	4	6
	Oro har	52	48	100
<i>2002-2003</i>	1. laborantza	1	0	1
	2. ofiziale	14	9	23
	3. industria	7	3	10
	4. bulegoa	13	8	21
	5. salerospen	15	1	16
	6. hezkuntza	8	7	15
	7. osasuna	7	6	13
	8. kulturgintza	1	0	1
	Oro har	66	34	100
<i>2008-2009</i>	1. laborantza	1	5	6
	2. ofiziale	8	6	14
	3. industria	5	6	11
	4. bulegoa	15	8	23
	5. salerospen	4	5	9
	6. hezkuntza	9	11	20
	7. osasuna	7	6	13
	8. kulturgintza	2	2	4
	Oro har	51	49	100



2002-2003 ikasturtean herriko ikasleen eta etorkinen kopuruak ezberdina dira beste ikasturteetan berdintsuak direlarik. Halere ohargarri da ikasle etorkin baino herritar gehiago badela bulegoetan eta salerospenetan. Aldiz ikasle etorkin gehiago hezkuntzan. Beste lan alorretan ez da ezberdintasun handirik.


*AEKko 300 ikasle 3 ikasturteetan, lanbidea eta jatorriaren arabera*

	<i>Lanbidea</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
<i>Hiru ikasturteak</i>	1. laborantza	3 = %2	6 = %5	9 = %3
	2. ofiziale	24 = %14	19 = %15	43 = %14
	3. industria	24 = %14	16 = %12	40 = %13
	4. bulegoa	37 = %22	24 = %18	61 = %20
	5. salerospen	32 = %19	12 = %9	54 = %15
	6. hezkuntza	24 = %14	29 = %22	53 = %18
	7. osasuna	20 = %12	19 = %15	39 = %13
	8. kultura	5 = %6	6 = %5	11 = %4
	Oro har	169 = %100	131 = %100	300 = %100

Taula honetan adibidetzat hartu ditugun 300 ikasleak aurkezten ditugu, hiru ikasturteak metatuz. Ikus dezagun zer nolako lanbideak agertzen diren zerrendatu ditugun 8 languneetan.

1. Laborantzan: laborari, baratzezain, oihanzain...
2. Ofizialetan: zurgin, hargin, iturgin, sukaldari, gozogile, elektrikari, mekanikari, zapatari, herriko mutil, ileapaintzaile, etxekandere...
3. Industrian: lantegietako teknikariak (Boncolac, Dassault, gasnategi, inprimategi, laborategi, Socoa, Turbomeca, trenbide)...
4. Bulegoetan: diruzain, idazkari (19), telefonista, liburuzain, itzultzaile...
5. Salerospenetan: dendari, saltzaile (20), komertzio-ibiltari (VRP), banku-langile, ostaler...
6. Hezkuntzan: irakasle (37), hezkuntza berezia, elkarte animatzaile, haurtzain...
7. Osasunean: mediku (4), erizain (12), botikari, haginlari, ortofonista, emagin, optikari, behartsu laguntzaile (3)...
8. Kultura: artista, zizelkari, antzerkilari, musikari, kantari...

*Kanpoko biribila herriko ikasleena da, barnekoa etorkinena.*



Pentsatzekoa da, ikasleek deramaten lana motibagarri dela euskara ikasterakoan, eta beren helburu pedagogikoak finkatzerakoan. Galde hau formula genezake: ikasleek zein langunetan sentitzen dute euskararen beharra ?

Emaiza orokorretan bulego lanak eta hezkuntza mailako ardurak agertzen dira lehentasunean (%20, %18 hurrenez hurren). Gero hein berdintsuan bigarren sektoreko ekoizpenak eta osasun mailako ofizioak (%15 %13 artean). Proporzio askoz ahulagoan kulturgintzan eta laborantzan ari direnak (%4, %3 hurrenez hurren).

Argibide batzuk eskaini genezazke. Euskararen beharra sentitzen da lehenik idazki asko erabiltzen den lekuetan (bulegoetan eta hezkuntza) eta gero harreman personal asko den languneetan (lantegietan, saltegieta eta osasun zerbitzuetan). Aldiz artistak guti dira AEKn, Euskal kulturgintzan ari direnak maizenik euskaldunak baitira. Laborari askok ere euskara bada-kite.

Herriko eta kanpoko ikasleen lanbideen konparaketa adierazgarria da. Askoz herriko ikasle gehiago bada salerospenetan (%19 versus %9), bai eta ere bulegoetan (%22 versus %18) neurri ahulagoan halere. Alderantziz askoz ikasle etorkin gehiagok hezkuntzan dihardute (%22) herritarrei konparatuz (%14). Beste lan eremuetan ezberdintasunak ttipiak dira 2 edo 3 pundukoak.

**Laburbilduz**

Lehen sektorean, AEKko ikasleen %3 dira (laborantzan). Bigarren sektoreko ikasleak %25en inguruan kokatzen dira (industria). Hirugarren sektoreak enpleguen %70ren heina gainditzen du (zerbitzuak).

Ohargarri da nola AEKren estatistika INSEEk ematen duen Ipar Euskal Herrikoaren miraila den guti gorabehera.

Ikasle etorkin baino herritar gehiago bada bulegoetan eta salerospene-  
netan; aldiz ikasle etorkin gehiago hezkuntzan. Beste lan eremuetan ezber-  
dintasunak ttipiak dira.

**3.7. IKASKETA-MAILAK****Ikasketa-mailak**

AEKren ikasle-fitxak galdetzen du zein den ikaslearen ikasketa-maila ikas-  
turte hastapenean. Galde hau ez zen egin 1995-1996ko ikasturtean. Beraz  
emaitzak 2002ko eta 2008ko baditugu. Ikasketak definitu dira ikasleak buru-  
ratu duen curriculumaren arabera edo erdietsi duen diplomaren bitartez. Sei  
maila eman ziren ikaslearen hauturako:

1. Ikasketarik ez du bururatu.
2. Lehen mailako ikasketa bururatu du, normalean I0-II urtetan.
3. BEPC (*Brevet élémentaire du premier cycle*): diploma hau kolegioko “hiruga-  
rrean” erdiesten den oinarrizko diploma, I4-I5 urtetan.
4. BEP-CAP (*Brevet d’enseignement professionnel – Certificat d’aptitude profession-  
nelle*): lanbide diploma hau erdiesten dira ikaskuntza legala bururatzean,  
I6. urtean edo berantago.
5. Batxilergoa (*Baccalauréat*): diploma honek lizeoko ikasketa bururaten  
du I7-I8 urtetan. Unibertsitatean sartzeko beharrezkoa den gaitasun  
agiria da.
6. Unibertsitatearen maila batxilergoaren ondotik egin diren ikasturte-  
en arabera neurtzen da: batxilergoa gehi 2, 3, 5, 7 urte. Normalean  
epe horietan gero eta diploma handiagoak erdiesten dira: DEUGa  
(*Diplôme d’études universitaires générales*) orain ezabatu dena, lizentzia,  
masterra eta doktoregoa. Fakultate bakoitzak badu bere curriculum  
berezia. AEKko fitxak ez du unibertsitate diplomaz galderik egiten  
edo iragan dituzten urteez ; ikasleen ikasketa-maila aski desberdin  
izan daiteke.

7. Beste formakuntza bat zerrenda honetan sartzen ez dena, adibidez erizaingo eskolakoak edo arte eder eskola batekoak. Ikasleak formakuntza hori zein den zehaz lezake.

### Ikasketa-mailei buruzko emaitzak

Ikasle fitxen bidez emaitzak baditugu 2002-2003 eta 2008-2009 ikasturteentzat eta gure usaiako metodoari jarraikiz herrikoak eta etorkinak bereizten ditugu.

Emaitza gordinen arabera nabari da ikasle guti lehen mailan gelditu direla (9), baina dozena bat ikasketarik gabe. Ikasketa maila gorago eta ikasle gehiago bada, bi ikasturteetan, herriko ikasleetan bai eta ere etorkinetan.

Ehunekoen arabera ikasketarik gabeko ikasleak %I dira, lehen mailako ikasketa bururatu dutenak %I baino gutiago, BEPC eskuratu dutenak %4, BEP-CAP %I4, batxilergoa %2I, unibertsitateko ikasketak egin dituztenak %46 eta beste formakuntzarik %I3.

AEKko ikasleen ikasketa-maila orokorra aski gora dela agertzen zaigu.

*Ikasketa mailen taula*

<i>Ikasketa-maila</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
2002-2003			
<i>Deus ez</i>	3 = %I	2 = %I	5 = %I
<i>Lehen maila</i>	0 = %0	3 = %I	3 = %I
<i>BEPC</i>	15 = %5	18 = %7	33 = %5
<i>BEP-CAP</i>	60 = %I9	39 = %I4	99 = %I7
<i>Batxilergoa</i>	78 = %25	55 = %20	33 = %23
<i>Unibertsitatea</i>	131 = %42	131 = %49	262 = %45
<i>Beste bat</i>	25 = %8	22 = %8	47 = %8
<i>Orotara</i>	312 = %I00	270 = %I00	582 = %I00
2008-2009			
<i>Deus ez</i>	6 = %2	1 = %0,5	7 = %I
<i>Lehen maila</i>	4 = %I	2 = %I	6 = %I
<i>BEPC</i>	12 = %3	12 = %3	24 = %3
<i>BEP-CAP</i>	57 = %I5	37 = %I0	94 = %I3
<i>Batxilergoa</i>	88 = %23	62 = %I7	150 = %20
<i>Unibertsitatea</i>	148 = %38	199 = %54	347 = %46
<i>Beste bat</i>	70 = %I8	53 = %I4,5	123 = %I6
<i>Orotara</i>	385 = %I00	366 = %I00	751 = %I00

*Ikasketa mailen taula*

<i>Ikasketa-maila</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
<i>Bi ikasturteak</i>			
<i>Deus ez</i>	9 = %1	3 = %0,5	12 = %1
<i>Lehen maila</i>	4 = %0,5	5 = %1	9 = %1
<i>BEPC</i>	27 = %4	30 = %5	57 = %5
<i>BEP-CAP</i>	117 = %17	76 = %12	193 = %15
<i>Batxilergoa</i>	166 = %24	117 = %18	283 = %22
<i>Unibertsitatea</i>	219 = %40	330 = %52	549 = %43
<i>Beste bat</i>	95 = %13,5	75 = %11,5	170 = %13
<i>Orotara</i>	697 = %100	636 = %100	1273 = %100

Herriko ikasleen eta etorkinen ikasketa-maila konparatzen badugu, ezberdintasun bat agertzen zaigu. Etorkinen ikasketa-maila herrikoena baino gorago da. Unibertsitateko ikasketak egin dituztenak %52 dira, herrikoen %40 bakarrik. Batxilergoaren mailan alderantzia da, etorkinak %18 dira eta herrikoak %24. Halere nabari da batxilergo mailara heltzea batxilergoa eskuratzea eta unibertsitera joatea baino apalago dela.

Lehen mailetan, deus ez, lehen eta BEPC mailetan beraz, datuak berdintsuak dira.

***Laburbilduz***

AEKko ikasleen ikasketa-maila orokorra biziki gora da. Unibertsitateko ikasketak egin dituztenak %46 dira aztertu diren bi urteetan (2002-2003 eta 2008-2009).

Deus ez dutenak, lehen mailara gehi BEPC mailara heldu direnak %6 dira.

Etorkinen ikasketa-maila herrikoena baino gorago da. Unibertsitateko ikasketak egin dituztenak %52 dira, herrikoak %40.

**3.8. ZENBAT URTE EUSKAL HERRIAN ?**

Interesgarria da jakitea ikasleak noizdanik bizi diren Euskal Herrian. Frantsesezko galdera, « *Depuis combien de temps vivez-vous au Pays basque?* », euska-

razkoa baino argiago zen, « Zenbat urte Euskal Herrian? ». Azken honekin joan-etorriak konta daitezke ere, erran nahi baita Euskal Herrian iragan diren urte kopuru osoa, jakinez oro har biztanleriaren zati baten mugikortasuna biziki handia dela. Halere ikasleak frantsesezko galdera irakurri duela pentsa dezakegu, errazago baita harentzat.

## Metodologia

Galdetegian bost aukera baziren: “urte bat baino gutiago”, “5 urte baino gutiago”, “10 urte baino gutiago”, “10 urte baino gehiago” eta “betidanik”. Lehen hiruen idazketa aldatu dugu, “urte bat edo gutiago”, “5 urte edo gutiago”, “10 urte edo gutiago” emanez.

Ohiko metodoari jarraikiz herrikoen eta etorkinen kopuruak bereizi ditugu bi talde horien ezaugarriak azaltzeko. Hiru ikasturteen arteko balizko berezitasunak ere aztertu ditugu, 1995-1995 urtean, 2002-2003 urtean eta 2008-2009 urtean izan daitezkeenak beraz.

## Emaitzak

*Euskal Herriko egonaldiak: emaitza gordinak jatorriaren arabera biru urteetan*

Zenbat urte Euskal Herrian ?	Herrikoak	Etorkinak	Orotara
<i>urte bat edo gutiago</i>	26	192	218
<i>5 urte edo gutiago</i>	35	281	316
<i>10 urte edo gutiago</i>	20	134	154
<i>10 urte baino gehiago</i>	69	344	413
<i>betidanik</i>	1272	91	1363
<i>Kopuru orokorra</i>	1422	1042	2464

*Euskal Herriko egonaldiak: ebunekoak jatorriaren arabera biru urteetan*

Zenbat urte Euskal Herrian ?	Herrikoak	Etorkinak	Batezbesteko
<i>urte bat edo gutiago</i>	%2	%18	%9
<i>5 urte edo gutiago</i>	%2	%27	%13
<i>10 urte edo gutiago</i>	%1	%13	%6
<i>10 urte baino gehiago</i>	%5	%33	%17
<i>betidanik</i>	%90	%9	%55
<i>Kopuru orokorra</i>	%100	%100	%100

### Datu harrigarri batzuk: Nola esplika ditzazkegu ?

Sarrera atalean etorkinak hola definitu ditugu: Euskal Herrian, Ipar Euskal Herrian nahiz Hego Euskal Herrian sortua ez den jendea. Euskal Herrian sortu dena bertakoa, herrikoa da.

Har ditzagun lehenik Euskal Herrian urte bat edo gutiago iragan dutenak. Ohartzen gara hoietan 26 herriko badirela. Balizko errorea izan ezik nola esplikatu hori? Euskal Herrian sortu direla, behar bada urte anitz iragan, baina gero joan direla eta duela guti berriz jin direla litzateke arrazoia.

Bestalde, Euskal Herrian betidanik egon direnetan, 91 etorkin badirela ohartzen da. Zer gerta ditake ? Kasu hau ilunago da. Euskal Herritik kanpo sortu direla eta segidan, sorturtean, Euskal Herrira jin direla bizitzera ? Hala ere, eta kopuru horren pisua erlatibizatzeke, kasu honetan liratekeenak 2464 erantzunetarik %3,69 dira bakarrik, ehuneko gutiesgarria beraz, baina halere etorkinen %8,73.

### Euskal Herrian denbora iragan duten araberako bost talde ezberdinak

Oro har haatik datuak onargarriak dira.

1422 herrikoen artean guti dira Euskal Herrian bizi osoan egon ez direnak: hauek 150 dira, ikasle herrikoen %10. Azken hauek beraz Euskal Herritik joan ondotik Euskal Herrira berriz jin dira eta hauetan hamar urte baino gehiago iragan dituztenak 69 dira (%5), talde handiena. Ondorioz euskara ikasten duten herrikoen egonkortasun geografikoa handia dela erran dezakegu.

1042 etorkinen artean, hamar urte baino gehiago iragan dituztenek kopuru handiena osatzen dute 344 ikaslekin, etorkinen herena.

Urte bat edo gutiago iragan duten 192 etorkinak azpimarratzekoak dira, Euskal Herrira heltzearekin batera euskararen ikastea deliberatu dutelako. Halaber urte bat edo gutiago iragan duten 26 herrikoek, denbora gutiren buruan euskararen ikasketa hasi dute. Herrikoen %2 dira eta etorkinen %18.

Urtekako datuen analisatzeak ez digu emaitza berezirik ekarten, hiru ikasurteetako datuak gutxi gorabehera berdinak dira.

#### *Laburbilduz*

AEKn euskara ikasten duten herrikoen egonkortasun geografikoa handia da. Betidanik Euskal Herrian egon direnak %90 dira eta 10 urte baino gehiago iragan dituztenak %5.

Etorkinen multzo handiena da 10 urte baino gehiago iragan dituztena (%33).

Urte bat edo gutiago iragan dutenak azpimarratzekoak dira, Euskal Herrira heltzearekin batera euskararen ikastea deliberatu dutelako. Herrikoen %2 dira eta etorkinen %18.

### 3.9. BESTE HIZKUNTZAK

#### Hizkuntza gaitasunei buruzko emaitza gordinak

Galdea hau zen: « Beste hizkuntzarik menperatzen duzu? ». Ipar Euskal Herrian denek frantsesa badakite eta AEKn euskara ikasten dute. Beste hizkuntzak dira gaztelania (1), ingelesa (2), alemana (3), italiera (4), okzitania (5), errusiera (6), portugesa (7), arabiera (8) edo beste (9).

Taula honek erakusten du zenbat hiztunek zein hizkuntza menperatzen dituzten. 0 zenbakidunak frantsesdun elebakarrak dira. Lehen zutabeko zenbakiek eta zenbaki multzoek hizkuntzak identifikatzen dituzte. Hiztunak hiru zutabetan kontatuak dira, herrikoak, etorkinak eta hiru ikasturteetako ikasle guztiak.

*Hizkuntza gaitasunen taula gordin*

<i>Beste hizkuntzak</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Ikasle oro</i>
0	590	322	912
1	362	136	498
1 2	392	243	635
1 2 3	7	39	46
1 2 3 4	1	4	5
1 2 3 4 7	-	1	1
1 2 3 4 9	-	1	1
1 2 3 5 9	-	1	1
1 2 3 7	-	3	3
1 2 3 9	-	5	5
1 2 4	6	9	15
1 2 4 6	3	-	3
1 2 4 9	2	1	3
1 2 5	-	3	3
1 2 6	1	1	2
1 2 6 7	-	1	1
1 2 7	4	7	11
1 2 7 8 9	-	1	1
1 2 7 9	-	2	2
1 2 8	1	2	3
1 2 8 9	-	1	1
1 2 9	5	10	15



*Hizkuntza gaitasunen taula gordina*

<i>Beste hizkuntzak</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Ikasle oro</i>
I 3	4	2	6
I 3 4 7	-	1	1
I 3 4 9	-	1	1
I 4	1	1	2
I 4 6 9	-	1	1
I 5	-	1	1
I 5 7	-	1	1
I 5 9	-	1	1
I 7	3	5	8
I 8	-	1	1
I 9	-	6	6
2	118	173	283
2 1 9	-	1	1
2 3	12	44	56
2 3 4	-	5	5
2 3 5	-	1	1
2 3 6	-	3	3
2 3 7 8	-	1	1
2 3 7 9	-	1	1
2 3 8	-	1	1
2 3 9	-	2	2
2 4	1	6	7
2 5	-	2	2
2 6	1	1	2
2 7	-	3	3
2 8	-	1	1
2 9	1	6	7
3	3	7	10
3 7 9	-	1	1
4	-	5	5
5	4	6	10
6	-	1	1
7	-	2	2
8	-	2	2
9	-	4	4
<b>Orotara</b>	<b>1514</b>	<b>1093</b>	<b>2607</b>



an (912). Bigarren multzoa hirueledunena da (frantsesa, gaztelania, ingelesa) herriko ikasleetan (392), ikasle etorkinetan (243) eta beraz orokorrean (635), bigarren multzoa. Hirugarren multzoa da frantses eta gaztelaniadunena, bai herriko ikasleetan (362) bai eta ere etorkinetan (136) eta beraz orokorrean (498). Laugarren multzoan ere elebidunak dira, baina aldi honetan frantsesa eta ingelesarekin nola herriko ikasleetan (110), hala etorkinetan (173), beraz orokorrean (283).

Beste hiztun multzoak askoz ttipiagoak dira. Halere aipa ditzagun frantses-ingeles-alemandunak (44 kanpoko ikasleetan, 12 herrikoetan), frantses-gaztelania-ingeles-alemandunak (39 kanpoko ikasleetan, 7 herrikoetan), frantses-gaztelania-ingeles-portugesdunak (7 kanpoko ikasleetan, 4 herrikoetan), frantses-alemandunak (7 kanpoko ikasleetan, 3 herrikoetan) eta frantses-okzitanieradunak (6 kanpoko ikasleetan, 4 herrikoetan).

AEKko ikasleetan elebakar baino askoz elebidun gehiago bada euskara kontuan hartu gabe: heren bat elebakar, bi heren elebidun. Ikasle etorkinen eleaniztasuna askoz herrikoena baino aberatsago da. Baina orotan erran bezala frantses elebakarren multzoa handiena da, bereziki herriko ikasleetan (590) bai eta ere etorkineetan (322). Frantsesaz aparte, gaztelania eta ingelesa dira hizkuntza mintzatuenak Iparraldean.

INSEEn 1999ko erroldak ere erakutsi zigun hemen 18 urte eta gehiagoko 215.000 herritarren artean bazirela 63.000 euskaldun (%29), 22.000 gaztelaniadun (%10,2), 8.000 ingelesdun (%3,7), 2.600 okzitanieradun (%1,2) eta 120.000 frantsesdun elebakar (%55,8) besteak beste. Inkesta honetan agertzen den gauza berria da eleaniztasunaren zabalera, adibidez ikasleen laurdena hirueledun daitekeelarik.

Zenbaki gordinak irakurri ondoren, orain eleaniztasunaren fenomenoaz aztertuko dugu ehunekotan eta gero hizkuntza bakoitzaren garrantzia.


## Eleaniztasuna

Gogoan atxik ikasle guztiak frantsesdunak direla eta gero eta euskaldunago. Hemen ez dugu euskalduntasuna kontuan hartzen, ikasleen mailaren araberakoa baita. Beraz erdaldunen hizkuntza gaitasuna aztertzen dugu edo, bestela erranez, ikasleen hizkuntza gaitasunaz, euskara ikasten hasi zirelarik.

Aitzineko taulan hizkuntzak bederazka izendatu ditugu. Hemen ikusi nahi dugu, euskara ezik, beste zenbat hizkuntza menperatzen dituzten ikasleek, hizkuntza horiek edozein izanik. Hots eleaniztasuna kantifikatu nahi dugu.

*Elebakar direnen eta ez direnen taula, jatorriaren arabera (zenbakitan, %)*

<i>Hizkuntza kopurua</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Ikasle oro</i>
Frantsesa elebakar	590 = %39	322 = %29	912 = %35
F + hizkuntza I	479 = %32	336 = %31	815 = %31
F + 2 hizkuntza	415 = %27	322 = %29	737 = %28,5
F + 3 hizkuntza	24 = %1,6	87 = %8	111 = %4
F + 4 hizkuntza	6 = %0,4	22 = %2	28 = %1
F + 5 hizkuntza	0	4 = %1	4 = %0,5
<i>Orotara</i>	1514	1093	2607



Lehen garrantzizko oharra da, ikasle guztiak AEKn sartzean hartuz, frantsesdun elebarrak gutiengoan direla, herenera baino gehixago (%35). Jadanik erran dugu euskaldun guztiak elebidunak zirela, denek frantsesa baitakite. AEKko ikasleen kopurua, Ipar Euskal Herriarren lagin fidagarria balin bada (askotan frogatu dugun bezala), erran dezakegu, Iparraldean erdal-dunen gehiengo handia ere elebiduna dela, %65 hain zuzen.

Bigarren ohar harrigarria hau da, elebakar ez direnetan, kasik ikasle elebidun bezainbat hirueledun badela: %31 eta %28,5 hurrenez hurren, ez bakarrik etorkinetan bai eta ere herritarretan. Zergatik? Hain segur denek ingele-sa ikasi baitute kolegioetan eta lizeoetan eta askok gaztelania. Baina eleanizdunak, laueledunak edo gehiago gutti dira (%5), ez baita harrizkeoa.

Ezberdintasun nabariak badira herriko eta kanpoko ikasleen artean. Etorkinetan herritarretan baino askoz elebakar gutiago da, zenbabi gordinetan ala

ehunekotan (etorkinen %29 eta herrikoen %39 hurrenez hurren). Gainera bostetan eleanizdun gehiago bada etorkinetan (%11 versus %2). Berdintasun bat halere, bieledunen eta hirueledunen proportzioa berdintsua da bi multzoetan.

Eleaniztasunaren fenomeno hau, gero eta indartsuago izanen dela pentsa dezakegu, ez bakarrik immigrazioaren eraginez. Herritarretan ere elebakarrak guttiago dira. Mundializazioak eleaniztasunera behartzen gaitu, Internet, nazioarteko instituzio, lan eskaintza eta kontsumoaren bideetarik. Dena dela elebakarra nolazbait gaur eguneko analfabetoa da.

### Hizkuntzen arrakasta

Hona hizkuntza bakoitzarentzat hiztunen kopurua ordenan, hiru ikasturteetako ikasleak bilduz, herrikoak eta etorkinak bereiziz.

<i>Hizkuntzak</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Ikasle oro</i>
Gaztelania (1)	792	493	1285
Ingelesa (2)	547	586	1133
Alemana (3)	27	124	151
Italiera (4)	14	36	50
Okzitaniera (5)	4	16	20
Errusiera (6)	5	8	13
Portugesa (7)	7	30	37
Arabiera (8)	1	10	11
Besterik (9)	8	46	54
<i>Hiztunak</i>	1405	1349	2754

Frantsesa eta euskara kontuan hartu gabe, gaztelania eta ingelesa dira beste hizkuntza mintzatuena bai herritarretan bai eta ere etorkinetan: ikasle guztiak hartuz hizkuntza bakoitzean 1.000 hiztun baino gehiago dira. Espelikazioa da gaztelania auzoko estatuaren hizkuntza ofiziala dela eta mugaz gaineko harremanak ugari direla. Aldiz ingelesa mundualizazioaren hizkuntza. Bi hizkuntzak ikaskuntzaren bigarren mailan ikasten dira eta orain lehen mailan hasten da.

Horiek hola beste hizkuntzak ez dira biziki ezagunak, etorkinen jatorrizko hizkuntzak izanikan ere: alemanez 151 hiztun, italieraz 50, portugesez 37, okzitanieraz 20. Ohargarri da ok hizkuntza (gaskoina edo biarnesa) seigarren mailan dela. Auzo hizkuntza da baina ez da biziki ezaguna.

Ikasle herritarrak eta etorkinak konparatzen baditugu, gaztelaniadun gehiago bada herritarretan eta ingelesdun gehiago etorkinetan. Lau hiztun multzo horiek dira jendetsuenak, 500 hiztun guti gora behera. Bosgarren hiztun multzoa da etorkin alemandunena 124 hiztunekin. Beste hiztun multzoak arrunt ttipiak dira. Adibidez ikasle etorkin portugesdunak 30 dira, dakigularik Iparraldeko gizartean etorkin portugesen multzoa dela jendetsuena.

### Ikuspegi diakronikoa


Hizkuntza gaitasuna aztertuko dugu hiru ikasturteetan zehar ikusteko aldaketarik agertzen den. Herriko ikasleak eta etorkinak bereizten ditugu. Lau gaitasun ikertuko ditugu: elebakarrak frantses hutsa erabiltzen dutenak, frantsesaz gain beste hizkuntza bat edo beste erabiltzen dituztenak, gaztelaniadunak eta ingelesdunak hots hizkuntza erabilienak.

*AEKko ikasleen bizkuntza gaitasunak*

<i>Ikasturtea</i>	<i>Hizkuntzak</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
<i>1995-1996</i>	Frantses hutsa	210 = %38	68 = %24	278 = %33
	Besterik	336 = %62	221 = %76	557 = %67
	Gaztelania	282 = %52	131 = %45	413 = %50
	Ingelesa	188 = %34	166 = %57	354 = %42
	Ikasle oro	546	289	835
<i>2002-2003</i>	Frantses hutsa	195 = %38	126 = %33	321 = %36
	Besterik	318 = %62	254 = %67	572 = %64
	Gaztelania	278 = %54	168 = %44	446 = %50
	Ingelesa	183 = %36	183 = %48	380 = %43
	Ikasle oro	513	380	893
<i>2008-2009</i>	Frantses hutsa	185 = %41	128 = %30	313 = %36
	Besterik	270 = %59	296 = %70	566 = %64
	Gaztelania	232 = %51	194 = %46	426 = %48
	Ingelesa	176 = %39	223 = %53	399 = %45
	Ikasle oro	455	424	879

*AEKko ikasleen bizkuntza gaitasunak*

<i>Ikasturtea</i>	<i>Hizkuntzak</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
<i>Hiru ikasturteak</i>	Frantses hutsa	590 = %39	322 = %29	912 = %35
	Besterik	924 = %61	771 = %71	1695 = %65
	Gaztelania	792 = %52	493 = %45	1285 = %49
	Ingelesa	547 = %36	572 = %52	1133 = %42
	Ikasle oro	1514	1093	2607



Ikasle guziak kontuan hartzen baditugu, aipatu bi hizkuntza-gaitasunetan elebakarren multzoa da ahulena, hiztunen herena, %33 lehen ikasturtean eta gero 3 puntu gehiago. Beraz elebidunak edo eleaskodunak gehiengo handian dira hiru ikasturteetan zehar, %67 eta %64 artean. Ikasturte orotan gaztelaniadunak ingelesdunak baino gehiago dira, baina bien arteko proportzioa ttipituz doa: %50 versus %42, %50 versus %43, %48 versus %45 hurrenez hurren.

Orain herriko ikasleak eta ikasle etorkinak alderatzen baditugu, ezberdintasun handiak agertzen dira. Hiru ikasturteetan, frantsesdun elebakarren ehunekoa ahulago da ikasle etorkinetan 14 punduz lehen ikasturtean, 5 punduz bigarrenetan eta 11 punduz hirugarrenean. Bataz beste % 29 elebakar dira ikasle etorkinetan eta %39 herrikoetan. Ondorioz eta proportzio beretan, elebitasuna askoz indartsuago da etorkinetan, bataz beste 10 punduren ezberdintasunarekin.

Gaztelania eta ingelesari buruzko gaitasunean ere ezberdintasunak nabari dira bi multzoen artean. Ikasturte oroz gaztelaniadunak ingelesdunak baino gehiago dira herriko ikasleetan: %52 versus %36, %54 versus %36, %51 versus %39, hurrenez hurren. Alderantziz aldi oroz ingelesdunak nagusi dira gaztelaniadunei ikasle etorkinetan: %57 versus %45, %48 versus %44, %53 versus %46, ikasturte batetik bestera.

Bi hizkuntza gaitasun hauen artean, batz besteko ezberdintasuna handiago da herriko ikasleetan (16 puntu) ezinez eta ikasle etorkinetan (7 puntu). Baina ezberdintasun hau mugitu da ikasturteetan zehar: lehen eta hirugarren ikasturteen artean gaztelaniazko gaitasuna puntu batez gehitu da ikasle etorkinetan, ingelesezko gaitasuna 5 puntu gehitu delarik herriko ikasleetan berdenboran. Nolazbait ingelesaren aldeko dinamika gaztelaniaren aldekoa baino handiagoa da, Iparraldean AEKko ikasleengan.

### *Laburbilduz*

Erantzunen arabera AEKko ikasleetan elebakar baino askoz elebakar ez diren gehiago bada euskara kontuan hartu gabe: heren bat elebakar, bi heren elebakar ez direnak. Ikasle etorkinen eleaniztasuna askoz herrikoe-na baino aberatsago da. Baina hizkuntza gaitasunak bereiziz, frantsesdun elebakarren multzoa da multzorik handiena, herriko ikasleetan (%39), ikasle etorkinetan (%29) eta beraz orokorrean (%35). Etorkinetan herri-tarretan baino askoz elebakar gutiago da, eta gainera eleanizdun gehiago bada etorkinetan: etorkinen %11 eta herrikoen %2.

Frantsesa kontuan hartu gabe, gaztelania eta ingelesa dira beste hizkuntza ezagutuena. Gaztelaniadun gehiago bada herritarretan (%52 versus %45) eta ingelesdun gehiago etorkinetan (herrikoen %36, etorkinen %52). Gaztelaniadunak ingelesdunak baino gehiago dira, baina bien arteko proportzioa ttipituz doa: %50 versus %42 1995-1996an, %48 versus %45 2008-2009an.

## 3.10. EUSKARA IKASLEEN FAMILIETAN

### **Galdeak eta erantzunak**

Ikasleen fitxetan bada galde bat ikusteko zein den hizkuntza giroa beren familietan, giro euskalduna ala erdalduna ala bien artekoa. Galdearen formulazioa aldatu da denborarekin: 1995-1996 ikasturtean gurasoen hizkuntza gaitasuna neurtu nahi zen, aldiz beste bi ikasturteetan familia osoarena.



1995-1996 ikasturteko galdea bi hitzetan zen *Aitak*, *Amak* eta erantzuna hiru letretan (*b/z/e*): bai, zerbait, ez.

2002-2003 eta 2008-2009 ikasturteetan galdea zen: « Zure familian nork daki (zekien) euskara ? *Qui sait ou savait parler basque dans votre famille ?* »

Erantzuteko taulan, zutabeen familiako zazpi kide daude eta lerroan lau gaitasun.

	<i>Batere ez</i> Pas du tout	<i>Doi bat</i> Un peu	<i>Aski ongi</i> Assez bien	<i>Ongi</i> Bien
<i>Bizilagunak</i> / conjoint	I	2	3	4
<i>Amak</i> / mère	I	2	3	4
<i>Aitak</i> / père	I	2	3	4
<i>Amaren aitak</i> / grand-père maternel	I	2	3	4
<i>Amaren amak</i> / grand-mère maternelle	I	2	3	4
<i>Aitaren aitak</i> / grand-père paternel	I	2	3	4
<i>Aitaren amak</i> / grand-mère paternelle	I	2	3	4

Gertatu dena da ikasle zenbaitek ez dutela informaziorik eman ahaide batzurentzat. Kontuan hartu ditugu bakarrik erantzun esplizitoak, hots ikasleak aipatu dituen ahaideak.

## Metodologia

Ahalezko erantzunen kopurua biziki handia da. Ikasle bakoitzarentzat, 1995-1996ko galdetegian, 9 konbinazio posible ziren eta bigarren galdetegian 2.400 (7 hiztun 4ko berreturarekin) ! Ondorioz erantzunak hiru kategoriatan sailkatu ditugu: familia euskaldunak, familia erdaldunak eta familia elebidunak edo (linguistikoki) mistoak, ahaideen hizkuntza gaitasunaren arabera. Norbait euskalduntzat hartzen dugu, euskara gutienez “doi bat” dakielarik, erdalduntzat batere ez dakielarik. Hemen dago sailkapenaren ahulezia. Zenbat da “doi bat” eta aski ote da euskaldun izateko ? Pentsu dugu euskara ulertzen dutela eta beraz elebidun hartzaileak direla.

Egia da “doi bat”-ekoak erdalduntzat hartu begenitu emaitzak ilunagoak izanen ziren.

1995-1996ko ikerketan familia euskalduna da bi gurasoek euskara dakielarik (edo aipatu guraso bakarrek). Familia mistoa edo elebiduna da guraso bat euskalduna delarik eta bestea erdalduna. Familia erdalduna da bi gurasoak erdaldunak direlarik (edo aipatu guraso bakarra).

Beste bi ikasturteetako ikerketetan, familia euskalduna da aipatu 7 ahaideak euskaldunak direlarik, edo gutienez 7 ahaidetarik 6, bizilaguna barne bada. Familia erdalduna da aipatu ahaide guztiak erdaldunak direlarik. Beste kasu guzietan familia elebiduntzat hartzen dugu eta batuz beste 3 ahaide euskaldun daude familia bakoitzean. Ikerketa mugatu batean 119 familia mistotan, 833 ahaidetarik 330 euskaldun kontatu ditugu: %39,6 hain zuzen.

### Familietako hizkuntza giroaren bilakaera

Hiru ikasturteetan zehar, AEKko ikasleen familiak zerrendatu ditugu, hizkuntza giroaren arabera: familia euskaldunak, linguistikoki mistoak eta erdaldunak. Bereizi ditugu Euskal Herrian sortu ikasleak eta kanpotik datozenak. Emaitzak zenbaki gordinetan eta ehunekotan agertzen dira. Zenbaki gordinak ehunekotan ezarriz, multzo bakoitzaren perfila ikusten da, familietako hizkuntza giroaren arabera.

#### *Ikasleen familiak, ahaideen hizkuntza gaitasunaren arabera*

<i>Ikasturteak</i>	<i>Familiak</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
<i>1995-1996</i>	F. euskaldunak	294 = %56	32 = %12	326 = %40
	F. mistoak	114 = %21	46 = %16	160 = %20
	F. erdaldunak	121 = %23	203 = %72	324 = %40
	Familia oro	529 = %100	281 = %100	810 = %100
<i>2002-2003</i>	F. euskaldunak	192 = %41	45 = %14	237 = %30
	F. mistoak	205 = %44	88 = %27	293 = %37
	F. erdaldunak	72 = %15	192 = %59	264 = %33
	Familia oro	469 = %100	325 = %100	794 = %100
<i>2008-2009</i>	F. euskaldunak	184 = %42	55 = %14	239 = %29
	F. mistoak	207 = %47	157 = %39	364 = %43
	F. erdaldunak	48 = %11	187 = %47	235 = %28
	Familia oro	439 = %100	399 = %100	838 = %100
<i>Hiru ikasturteak</i>	F. euskaldunak	670 = %47	132 = %13	802 = %33
	F. mistoak	526 = %36	291 = %29	817 = %33
	F. erdaldunak	241 = %17	582 = %58	823 = %34
	Familia oro	1437 = %100	1005 = %100	2442 = %100

Ikasturte batetik bestera, Euskal Herrian sortu diren ikasleen familietan, gero eta giro erdaldun guttiago dira: %23 1995-1996an, %15 2002-2003an, %11 2008-2009an. Familia euskaldunak ere gutitu dira zenbaki gordinak hartuz: 294, 192, 184. Ondorioz familia elebidunen proportzioa askoz goratu da: %21, %44, %47.

Ikasle etorkinen familiak askoz erdaldunago dira. Halere, ikasturte batetik bestera gero eta giro erdaldun guttiago daude: %72, %59, %47. Familia euskaldunen kopurua egonkorra da: %12, %14, %14.

Familia euskaldunak eta elebidunak metatuz, gero eta kantitate handiagotan aurkitzen ditugu: %28 1995-1996an, %41 2002-2003an, %53 2008-2009an. Nola uler dezakegu 2008-2009an, etorkinen familietan giro erdaldunak giro euskaldunak eta elebidunak baino gutiago direla? Metodologiak esplikazio bat ematen digu: euskara “doi bat” dakitenak euskalduntzat hartu ditugu eta elebidun hartzaile asko baditake etorkinetan, bereziki aspaldian Euskal Herrian bizi direnetan.

Ikasle guztiak ikasturteka hartzen baditugu, orokorki eta jatorria kontuan hartu gabe, ohartzen gara, ikasleen familietan gero eta hizkuntza giro euskaldun gutiago badela ikasturte batetik bestera eta ehunekotan: 1995-1996an %40, 2002-2003an %30 eta 2008-2009an %29. Gainbehera berdintsua agertzen da ikasleen familietako hizkuntza giro erdaldunetan: 1995-1996an %40, 2002-2003an %33 eta 2008-2009an %28. Alderantziz, denbora berean, ikasleen familietan gero eta hizkuntza giro misto edo elebidun gehiago ikusten da: 1995-1996an %20, 2002-2003an %37 eta 2008-2009an %43.

*Ikasleen familia euskaldunen (1), mistoen (3) eta erdaldunen (2) kopuruaren aldaketa ikasturteetan zehar, zenbaki gordinetan*




Diagrama honetan, emaitza berak beste molde batean ezarri ditugu. Familiak hiru kategoriatan sailakatuak dira, hizkuntza giroaren arabera: familia euskaldunak (1), familia (linguistikoki) mistoak (3) eta familia erdaldunak (2). Kategoria bakoitzaren bilakaera erakusten dugu ikasturteetan zehar 1995-1996an, 2002-2003an, 2008-2009an. Herriko ikasleak urdinez, etorkinak gorritz. Emaitzak zenbaki gordinetan agertzen dira baina ehunekotan ezarri ere diagramaren itxura berdintsua litzateke.

Hiru ikasturteetan zehar, familia euskaldunen eremuan Euskal Herrian sortuak diren ikasleak beti gehiago daude ikasle etorkinei konparatuz. Baina bilakaeran herriko ikasleak gero eta gutiago dira, ikasle etorkinak gero eta gehiago direlarik. Bi kurbak norabide alderantzian daude:

- nabarmenki zenbaki gordinetan, 294, 192, 184 versus 32, 45, 55,
- bai eta ere ehunekotan, %56, %41, %42 versus %12, %27, %39, salbuespen ttipi batekin.

Denbora berean, familia mistoen edo elebidunen alorrean ere herriko ikasleak etorkinak baino gehiago dira hiru ikasturteetan. Baina hemen bi kurbak, herritarrena eta etorkinena, petik gora doaz eta bien arteko ezberdintasuna ttipitzen da:

- nola zenbaki gordinetan 114, 205, 207 versus 46, 88, 157,
- hala ehunekotan %21, %44, %47 versus %16, %27, %39.

Eta denbora berean, familia erdaldunen eremuan ikasle etorkinak beti gehiago dira, Euskal Herrian sortuak diren ikasleei konparatuz. Baina bilakaeran bi kurbak, etorkinena eta herritarrena, gain behera doaz eta bien arteko ezberdintasuna handitzen da:


- nola zenbaki gordinetan 203, 192, 187 etorkin versus 121, 72, 48 herriko,
- hala ehunekotan %72, %59, %47 versus %23, %15, %11.

### **Ikusmolde orokorra**

Orain hiru ikasturteetako ikasle guztiak aztergaitzat hartuko ditugu, taula orokor batean eta araberako grafikoan.

*Ikasleen familietako bizkuntza giroa orotara (zenbakitan, %)*

<i>Ikasturteak</i>	<i>Familiak</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
<i>Hiru ikasturteak</i>	F. euskaldunak	670 = %47	132 = %13	802 = %33
	F. mistoak	526 = %36	291 = %29	817 = %33
	F. erdaldunak	241 = %17	582 = %58	823 = %34
	<i>Familia oro</i>	1437 = %100	1005 = %100	2442 = %100

*Ikasleen familietako bizkuntza giro euskalduna (1), mistoa (3) eta erdalduna (2) zenbaki gordinetan.*

Orokorki, nabari da herriko ikasleen familietan giro euskaldun askoz gehiago badela etorkinen familiei konparatuz, hala ehunekotan (%47 versus %13) nola zenbaki gordinetan (670 versus 132).

Ezberdintasun bera agertzen da familia misto edo elebidunetan baina proportzio ahulagoan zenbaki gordinetan (526 versus 291) bai eta ere ehunekotan (%36 versus %29).

Normal den bezala, askoz ahaide erdaldun gehiago bada ikasle etorkinen familietan ezinez eta herriko ikasleen familietan zenbaki gordinetan (582 versus 241) bai eta ere ehunekotan (%58 versus %17).

Baina hiru ikasturteetako ikasle guztiak biltzen baditugu, jatorria kontuan hartu gabe, ohartzen gara familietako hizkuntza giroen oreka kasik matematikoa dela, zenbaki gordinetan eta are gehiago ehunekotan:

- familietako hizkuntza giro euskalduna 802 ikasleentzat (%33);
- familietako hizkuntza giro elebiduna 817 ikasleentzat (%33);
- familietako hizkuntza giro erdalduna 823 ikasleentzat (%34).

### **Ipar Euskal Herriko emaitza soziolinguistikoekin alderatuz**

Aztertzen ditugun hiru ikasturteen denboran, hiru inkesta soziolinguistiko egin ziren Euskal Herri osoan, Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritzapean (1996an, 2001ean eta 2006an). Interesgarria litzateke, Iparraldeko emaitzak konparatzea AEKko ikasleei buruzko ikerketa honekin. Adibidez ikasleen familietako, lagunarteetako, lankidegoetako hizkuntza giroek ba ote dute zer-bait ikusteko herritarren hizkuntza gaitasunarekin. Hurrengo kapitulua burutu ondoren konparaketa zabala egingen dugu.

#### **Laburbilduz**

AEKko ikasleen familietako hizkuntza giroa euskaldunago da Euskal Herrian sortu direnetan eta erdaldunago ikasle etorkinetan. Ikasturte batetik bestera herriko ikasleen familiak gero eta (linguistikoki) mistoagoak dira: 1996an %56 euskaldun, 2008an %42. Denbora berean, ikasle etorkinen familietako giroa gero eta euskaldunago da: 1996an %72 erdaldun, 2008an %47.

Hiru ikasturteetako ikasle guztiak kontuan hartuz, familia euskaldunak, erdaldunak eta elebidunak hein berean daude, herenaren heinean.

Dena dela, hiru ikerketa soziolinguistikoak baliatuz interesgarri litzateke ikustea ikasleen familiak inguruko herritarrak baino euskaldunago diren ala ez. Eta konparaketa bera egingen dugu ikasleen lagunarteekin eta lankidegoekin.

### 3.II. EUSKARA ETA IKASLEEN HAURRAK

2002-2003 eta 2008-2009ko ikasle fitxetan bi galde badira haurrei buruz:

I. « Haurrik baduzu ? *Avez-vous des enfants ?* »

2. « Zure haurra(k) eskolan euskara(z) ikasten ari dira ?

*Vos enfants apprennent-ils l'euskara à l'école ?* ».

Erantzunak bai edo ez.

Atal honetan bi galde hauei buruzko erantzunak aztertzen ditugu.

1995-1996 ikasturteko ikasle-fitxan galde hauek ez ziren egin.

#### « Haurrik baduzu ? »

Taula honetan agertzen dira lehen galdeari buruzko emaitzak, zenbat ikasle guraso diren, eta zenbat haurrik gabe.

*Haurrik duten AEKko ikasleak jatorriaren arabera*

<i>Ikasturteak</i>	<i>Haurrik baduzu ?</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
<i>2002-2003</i>	Bai	134 = %37	167 = %57	301 = %46
	Ez	224 = %63	124 = %43	348 = %54
	Orotara	358 = %100	291 = %100	649 = %100
<i>2008-2009</i>	Bai	188 = %43	230 = %56	418 = %49
	Ez	251 = %57	183 = %44	434 = %51
	Orotara	439 = %100	413 = %100	852 = %100
<i>Bi ikasturteak</i>	Bai	322 = %40	397 = %56	719 = %48
	Ez	475 = %60	307 = %44	782 = %52
	Orotara	797 = %100	704 = %100	1501 = %100

AEKan herriko ikasleak etorkinak baino gehiago direla badakigu. Halere, etorkinak herrikoak baino guraso gehiago dira.

2002-2003ko ikasturtean 358 herriko ikasleetan 134k haurrak bazituzten eta 291 ikasle etorkinetan 167k haurrak bazituzten. Herrikoetan %37 guraso eta etorkinetan %57, %20ko gehiagorekin.

2008-2009ko ikasturtean ezberdintasuna ttipitu da. Halere herriko ikasleek %43k haurrak badituztelarik, etorkinetan %56 dira kasu berean.

Bi ikasturteetako ikasleak denak kontuan hartuz, herriko ikasleak etorkinak baino 93 gehiago dira, 797 eta 704 ikasle orotara. Baina herriko ikasleetan etorkinetan baino 75 guraso gutiago dira, 322 eta 397 guraso hurrenez hurren. Ehunekotan ezberdintasun hori argiago agertzen zaigu: etorkinen %56k haurrak badituzte, aldiz herrikoen %40k soilik. Oro har, AEKren ikasle kopuruaren erdia baino gutiago guraso da, %48 hain zuzen.

Joera hau Ipar Euskal Herrikoari konparagarria da. Iparraldeko hazkunde demografikoa etorkinei zor zaie, saldo naturala negatibo delarik (Euskal Herriko Garapen Kontseilua, 2003: II).

### « Zure haurra(k) eskolan euskara(z) ikasten ari dira ? »

Ohar tekniko bat hasteko: galde honek erantzun doi bat gutiago eskuratu ditu lehenak baino, 298 herrikoena eta ez 322 goiko taulan ikusten dugun bezala, 382 etorkinena eta ez 397. Galdea minbera zen, hain segur, erantzunik eman ez duten gurasoentzat.

#### *Ikasleen haurrek euskara ikasten duten ala ez*

<i>Ikasturteak</i>	<i>Haurrek euskara ikasten ?</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
2002-2003	Bai	62 = %48	53 = %33	115 = %40
	Ez	66 = %52	110 = %67	176 = %60
	Orotara	128 = %100	163 = %100	291 = %100
2008-2009	Bai	92 = %54	91 = %42	183 = %47
	Ez	78 = %46	128 = %58	206 = %53
	Orotara	170 = %100	382 = %100	389 = %100
<i>Bi ikasturteak</i>	Bai	154 = %52	144 = %38	298 = %44
	Ez	144 = %48	238 = %62	382 = %56
	Orotara	298 = %100	382 = %100	680 = %100

Ikasle etorkinetan herrikoetan baino guraso gehiago direla ohartu gara. Halere, etorkinetan gutiago dira beren haurrak euskalduntzen dituztenak.



2002-2003ko ikasturtean %48 herriko ikasleen haurrak euskara ikasten ari ziren eta %33 etorkinenak soilik. Haurrak erdaldundu zituzten ikasleak gehiago ziren, erdiak baino gehiago herriko ikasleetan, bi herenak baino gehiago etorkinetan.

2008-2009ko ikasturtean beren haurrak euskaldundu dituzten ikasleak emendatu dira. Emendatze hau gertatu da, ikasturte batetik bestera, herrikoen hurrekin, %48tik %54ra pasatuz, nahiz etorkinen hurrekin, %33tik %42ra pasatuz. Ikasturte honetan etorkinen haurren ehunekoak 9 puntu irabazi ditu, herrikoenak 6 puntu. Euskara ikasten duten herrikoen haur euskaldunek gehiengo lortzen dute (%54), etorkinen hurrek ez oraino (%42).

Bi ikasturteak kontuan hartuz, etorkinetan herrikoetan baino gehiago dira haurrak dituzten ikasleak: etorkinak 382, herrikoak 298. Aldiz herriko ikasleetan etorkinetan baino gehiago dira beren haurrak euskalduntzen dituzten gurasoak: 154 herrikoentzat, 144 etorkinentzat. Era batez horrek erakutsiko luke euskarari buruzko atxikimendua handiago dela herrikoen artean etorkinen artean baino.

Oro har, AEKko ikasleen artean hurrek euskara ikas dezaten ez da gehiengoaren erabakia, %44ena da hain zuzen. Herrikoen artean erabaki hau haatik gehiengora doi-doi heltzen da, %52rekin. Etorkinen haur eskualdunen ehunekoa arras ttipiago da, %38a izanez.

Dena dela, 2002-2003 eta 2008-2009 ikasturteak baizik ez ditugu konparatzen ahal. Ondorioz ikusten dugun goranzko joera adierazgarria den ez dakigu. Halere urte batetik besterako emendatze handia agertzen da, erran nahi baita ikasleen hurrek euskara gero eta gehiago ikasten dutela. Joera hau iraunkorra balitz euskararen geroarentzat berri ona litzateke.

### *Laburbilduz*

Herriko ikasleak etorkinak baino gehiago dira AEKan. Halere, ikasleetan etorkinak herrikoak baino gehiago dira haurrak dituztenak: etorkinen %56 guraso dira, herrikoen %40. Joera hau Ipar Euskal Herriko demografiari konparagarria da.

Ikasleen hurrek euskara ikas dezaten ez da gehiengoaren erabakia, ikasleen %44ena baizik. Aukera hau handiago da herriko ikasleetan (%52) etorkinetan baino (%38).

2002-2003ko ikasturteetik 2008-2009kora euskarazko hezkuntza emendatu dela agertzen da, nahiz herrikoen hurrekin (%48 versus %54), nahiz etorkinen hurrekin (%33 versus %42). Bilakaera hau iraunkorra balitz, euskararen garapena segurtatua litzateke.

### 3.12. EUSKARA IKASLEEN INGURUNEAN

#### Galdeak eta erantzunak

2002-2003 eta 2008-2009ko ikasturteetako ikasleen fitxetan bada galde orokor bat ikasleen familiaz kanpoko ingurune linguistikoa neurtzeko, eguneroko lagunekin eta lankideekin. 1995-1996ko ikasturtean ez zen horrelako galderik. Galdea:

« Zure ingurukoen artean nork daki euskara ?  
*Qui parle basque dans votre entourage ? »*

Erantzuna bi zatitan eman ziteken, zenbat lagun eta zenbat lankide euskaldun ziren eta zein neurritan. Hona erantzuteko taula.

	Nehor <i>Personne</i>	Batzuek <i>Quelques- un(e)s</i>	Erdiak <i>La moitié environ</i>	Kasik denek <i>Presque tou(te)s</i>
Maiz ikusten dituzun lagunen artean <i>Parmi les ami(e)s que vous fréquentez régulièrement</i>	I	2	3	4
Zure lankideen artean <i>Parmi vos collègues de travail</i>	I	2	3	4

#### Metodologia

Ikasleen ingurune euskalduntasuna bi zatitan aztertuko dugu: lehenik euskara lagunartean eta gero euskara lankideekin. Ingurune bakoitzean Euskal Herrian sortu ikasleak eta ikasle etorkinak bereiziko ditugu eta emaitza gordinak ehunekotan ezarriko.

Lehen urrats batean aztertuko dugu zer ingurune aldaketa agertzen den ikasturte batetik bestera, jatorriaren arabera multzoetan eta orokorki. Bigarren urratsean bilduma bat egingen dugu, bi ikasturteak metatuz.

Bururatzean konparaketa bat egingen dugu hizkuntza giroa aztertzeko familian, lagunartean eta lanaren alorrean.

## 3.12.1. EUSKARA LAGUNARTEAN

**Lagunarteko giroaren ezaugarriak**

2002-2003ko ikasleetan Euskal Herrian sortu ikasleen laurdenak ez du lagun euskaldunik, eta ikasle etorkinen heren bat kasu berean da. Euskaldun batzuk dituzten lagunartekak dira gehienik gertatzen bi multzoetan, bi herenak herriko ikasleetan eta erdia baino gehiago etorkinetan ere. Horiek hola bi multzo horietan %13 dabilta lagun erdia edo gehiago euskaldunak diren lagunartean.

*Euskaldunak AEKko ikasleen lagunartean jatorriaren arabera*


<i>Ikasturteak</i>	<i>Euskaldunak lagunartean</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
2002-2003	Nehor	77 = %24	76 = %30	153 = %27
	Batzuk	210 = %65	147 = %57	257 = %61
	Erdia	36 = %13	32 = %13	68 = %12
	Kasik denak	0 = %0	1 = %0	1 = %0
	Ikasle oro	323 = %100	256 = %100	579 = %100
2008-2009	Nehor	45 = %11	60 = %15	105 = %12
	Batzuk	263 = %60	205 = %51	468 = %56
	Erdia	98 = %22	95 = %23	193 = %23
	Kasik denak	31 = %7	46 = %11	77 = %9
	Ikasle oro	437 = %100	406 = %100	843 = %100
<i>Bi ikasturteak</i>	Nehor	122 = %16	136 = %21	258 = %18
	Batzuk	473 = %62	352 = %53	825 = %58
	Erdia	134 = %18	127 = %19	261 = %18
	Kasik denak	31 = %4	47 = %7	78 = %5
	Ikasle oro	760 = %100	662 = %100	1422 = %100

2008-2009ko ikasleen lagunartekak biziki euskaldunago dira 2002-2003koei konparatuz. Lagunarte osoki erdaldunak askoz guttiago dira herriko ikasleetan (orain %11, lehen %24), bai eta ere ikasle etorkinen kasuan (orain %15, lehen %30). Orain ere euskaldun batzuk dituzten lagunartekak dira gehienik gertatzen bi multzoetan, eta 2002-2003ko hein berdintsuetan.

Ohargarri da lagunuen erdia edo gehiago dauzkaten lagunarten kantitatea 2008-2009an: bertako ikasleen %29 eta kanpoan sortuak direnen %34 dabilta lagunarte erdi edo osoki euskaldunetan. Beraz %4 gehiago ikasle etorkinen ezinez eta herrikoentzat ! Dirudi Euskal Herritik kanpo sortuak diren ikasleak, mintzakide euskaldunekin ibiltzen direla, nolazbait familieta-ko euskaltasun eskasa konpentsatzeko. Edo ere, behar bada, beren lagunartea euskalduna baita euskararen ikastea deliberatzen dute.

Hurrengo grafikoan bi ikasturteetako emaitzak beste molde batean ezarri ditugu. Lagunartea lau kategoriatan sailkatuak dira, hizkuntza giroaren arabera: euskaldun gabeko lagunartea (1), euskaldun batzuk dituztenak (2), lagunarte erdi euskaldunak (3) eta lagunarte (kasik) osoki euskaldunak (4). Bi ikasturteak bat bestearen sahetsean. Herriko ikasleak urdinez, etorkinak gorritz. Emaitzak zenbaki gordinetan agertzen dira eta ez ehunekotan.

*AEKko ikasleen lagunartean euskaraz ari direnak: nehor (1), batzuk (2), erdia (3), kasik denak (4), ikasturteka eta zenbaki gordinetan.*



Ikusten dugu lagunarten perfilak konparagarriak direla bi ikasturteetan, euskaldun batzuk dauzkaten lagunartea gehiago handian direlarik. Ohargarri da ere 2008-2009ko lagunartea aitzinagoko ikasturtekoak baino euskaldunago direla. Alabaina lagunarte erdaldunak (1) guttiago dira, lagunartean batzuk euskaldunak (3) askoz gehiago, lagunarte (kasik) osoki euskaldunak badira 2002-2003an ez zelarik.

Euskal Herrian sortuak diren ikasleak (urdinez) ikasle etorkinak (gorriz) baino gehiago dira bi ikasturteetan: 2002-2003an 323 versus 256, 2008-2009an 437 versus 406. Ondorioz lagunarte erdaldunetan (I) ikasle etorkinak bi ikasturteetan gehiago dira ehunekotan: 2002-2003an %24 versus %30, 2008-2009an %11 versus %15. Bestalde 2002-2003an, bertako ikasle gehiago zabiltzan lagunarte erdi euskaldunetan (36 versus 32). Baina alde-rantziz 2008-2009an, ehunekotan, ikasle etorkin gehiagok lagunarte erdi euskaldunak zituzten (%23 versus %22) eta are gehiago lagunarte (kasik) osoki euskaldunetan (etorkinen %11 versus bertakoen %7 bakarrik).

Oro har, 2008-2009ko ikasleen lagunarteak aitzinagoko ikasturtekoak baino euskaldunago dira eta bereziki ikasle etorkinetan.

### Ikusmolde orokorra

Orain bi ikasturteetako ikasle guztiak elkarretaturik aztertuko ditugu taula orokor batean eta arabera grafikoan.


Oro har, nabari da Euskal Herrian sortuak diren ikasleen lagunarteak ikasle etorkinenak baino euskaldunago direla. Alde batetik herriko ikasle gutiago dabilza lagunarte osoki erdaldunetan: 122 versus 136. Bestalde euskaldun batzuk dauden lagunarteetan eta lagunen erdia euskaldunak diren multzoetan herriko ikasleak etorkinak baino gehiago dira: 607 versus 479.

Salbuespen harrigarria da ikasle etorkin gehiago dabilzala lagunarte (kasik) osoki euskaldunetan bertako ikasleei konparatuz: 47 versus 31. Beste kategoria bat asmatuz, lagunen erdia edo gehiago euskaldunak diren lagun multzoetan, ikasle etorkin gehiago dabilza herriko ikasleei konparatuz: 174 versus 165. Zergatik? Euskara ikasi duten etorkinek lagun euskaldunak bilatu behar dituzte, familian ez baitute mintzakiderik. Eta denbora berean herrian integratzeko molde ona da. Edo behar bada ere beren lagunartea euskalduna baita euskararen ikastea deliberatu dute.

#### *Lagunarteko euskalduntasuna jatorriaren arabera eta orokorki*

<i>Ikasturteak</i>	<i>Euskaldunak lagunartean</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
<i>Bi ikasturteak</i>	Nehor	122 = %16	136 = %21	258 = %18
	Batzuk	473 = %62	352 = %53	825 = %58
	Erdia	134 = %18	127 = %19	261 = %18
	Kasik denak	31 = %4	47 = %7	78 = %5
	Ikasle oro	760 = %100	662 = %100	1422 = %100

*AEKko ikasleen lagunartean euskaraz ari direnak: nebor (1), batzuk (2), erdia (3), kasik denak (4), bi ikasturteetan eta zenbaki gordinetan.*



Bi ikasturteetako ikasleak biltzen baditugu, jatorria kontuan hartu gabe, hona nola banatzen diren lau lagunarte kategorietan:

- (1) lagunarte osoki erdaldunetan: 258 ikasle (%18) ;
- (2) euskaldun batzuk dauden lagunartean: 825 ikasle (%58) ;
- (3) lagunarte erdi euskaldunetan: 261 ikasle (%18)
- (4) lagunarte (kasik) osoki euskaldunetan: 78 ikasle (%5)

Ikasleen lagun multzoetan 10etik 2 arrunt erdaldunak dira, beste 2 erdi edo osoki euskaldunak eta 6 doi bat euskaldunak. Zer erran dezakegu? Familiako kideak ez dira hautatzen, lankideak ez beti, adiskideak bai. Euskara ikasi nahi dutenek lagun euskaldunak bilatu behar dituzte, bereziki etorkinek familiarian ez baitute mintzakide askorik. Edo beren lagunak euskaldunak baitira euskara ikasten dute.

Baina ezin dugu erran orokorki lagunartean biziki euskaldunak direnik. Ponderazio bat egiten badugu, laurdena emanez doi bat euskaldunak direnei, AEKko ikasleen lagunartean euskalduntasuna %28,5 da: (%58: 4 = %14,5) + (%18: 2 = %9) + %5 = %28,5).

### 3.12.2. EUSKARA LANKIDEEKIN

#### Galdeari buruzko erantzunak eta ekar dezaketen informazioa

Ikasle fitxan « Zure inguruko artean nork daki euskara ? *Qui parle basque dans votre entourage ?* » izenburuaren pean bigarren galderen emaitzak aztertuko ditugu: (Nork daki euskara) zure lankideen artean ; (*qui parle basque*) *parmi vos collègues de travail*. Lagunei buruzkoarekin bezala, lau aukera badaude: « nehor », « batzuek », « erdiak », « kasik denek ».

Galde honen helburua da neurtzea ikaslearen hizkuntza-ingurumena lantokian zein izan daitekeen. Noski galde honen bidez lan-hizkuntza zein den ezin dugu jakin, ohartuz denek euskara baldin badakite ere, ez dela erantzuten duen ikaslearen kasua, edo bederen euskara ez duela ongi menperatzen. Baina erantzunek ez digute zuzen erraten ere ikaslearen hizkuntza-ingurumena lantokian zein den. Lankideek euskara baldin badakite ere, ez dute baitezpada erabiltzen.

Hots, erantzunek lankideen euskararen ezagutzaz informazioa ekartzen digute, ez besterik. Zehaztasunik gabeko informazioa da, ikaslearen subjektibotasunari lotua dena.

#### Euskararen ezagutzaren bilakaera lankideen artean

*Herriko eta kanpoko ikasleen lankide euskaldunak (zenbakitan, %)*

<i>Ikasturteak</i>	<i>Lankide euskaldunak</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
2002-2003	Nehor	141 = %54	110 = %56	251 = %55
	Batzuk	84 = %32	57 = %29	141 = %31
	Erdia	37 = %14	28 = %15	65 = %14
	(Kasik) denak	0 = %0	0 = %0	0 = %0
	Ikasle oro	262 = %100	195 = %100	457 = %100
2008-2009	Nehor	117 = %36	100 = %37	217 = %36
	Batzuk	138 = %42	119 = %43	257 = %43
	Erdia	38 = %12	38 = %12	71 = %12
	(Kasik) denak	32 = %10	22 = %8	54 = %9
	Ikasle oro	325 = %100	274 = %100	599 = %100

*Herriko eta kanpoko ikasleen lankide euskaldunak (zenbakitan, %)*

<i>Ikasturteak</i>	<i>Lankide euskaldunak</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
<i>Bi ikasturteak</i>	Nehor	258 = %44	210 = %45	468 = %44
	Batzuk	222 = %38	176 = %37	398 = %38
	Erdia	75 = %13	61 = %13	136 = %13
	(Kasik) denak	32 = %5	22 = %5	54 = %5
	Ikasle oro	587 = %100	469 = %100	1056 = %100

Erantzuleak langileak dira bakarrik. Erretretadunentzat eta langabezia direnentzat galdeak ez du interesik. Lagunarteari buruzko galdearen jendetza I422koa zen. Ikasle langileak 1056 dira, beraz bi ikasturte horietako ikasle guztien bi heren.

Bi ikasturteetan bertako ikasleak etorkinak baino askoz gehiago dira. 2002-2003an herrikoak 262 dira, etorkinak 195, 67 ikasleren ezberdintasunarekin. 2008-2009an herrikoak 325 dira, etorkinak 274, 51 ikasleren ezberdintasunarekin.

Erantzunen arabera lau lankidego ezberdin defini daitezke:

(1) lankidego erdaldunetan ez da euskaldunik, AEKko ikaslea salbu behar bada ;

(2) lankidego doi bat euskaldunak, lankide euskaldun batzurekin ;

(3) lankidego erdi euskaldunak, lankide euskaldun bezeinbat erdaldunekin ;

(4) lankidego (kasik) osoki euskaldunak, erdaldunik gabekoa.

Bi ikasturteen arteko aldatetak neurtzeko, ikus ditzagun zein diren ikasturte bakoitzaren ezaugarriak.


2002-2003ko ikasturtean euskaldunik gabeko lankideak ziren kopuru handiengan, bai Euskal Herrian sortu ikasleentzat (%54) bai eta ere ikasle etorkinentzat (%56). Ikasleen erdiak baino gehiago kasu honetan ziren. Askoz gutiago (heren baten heinean) ikasleek lan egiten zuten lankidego doi bat euskaldunetan: bertako ikasleen %32k, etorkinen %29k. Ikasle oso gutik lan egiten zuten langilego erdi euskaldunetan: herriko ikasleen %14k, etorkinen %15k. Ikasle batek ere ez du aipatu lankidego osoki euskaldunik.

Urte batetik bestera lankideen euskararen ezagutza handitu da, ditugun zenbakien arabera. 2008-2009an ikasle multzorik handiena ez dago lankide-



go erdaldunetan (%36) baina bai euskaldun batzuk daudenetan (%43). Ikasurte honetan aurkitzen dira lankidego osoki euskaldunak, %10 herriko ikasleentzat eta %8 ikasle etorkinentzat. Lankideen erdia edo gehiago dauden lankidegotan lan egiten, dute %22 herriko ikaslek eta %20 ikasle etorkinek.

*AEKko ikasleen lankide euskaldunak: nebor (1), batzuk (2), erdia (3), kasik denak (4), ikasturteka eta zenbaki gordinetan*



Aipatu ditugun bi ikasturteetako emaitzak grafiko baten moldean agertzen dira. Ikasleen lankidegoak hiru edo lau kategoriatan sailkatuak dira euskararen ezagutzaren arabera. Bi ikasturteak bata bestearen sahetsean dira. Herrikoak urdinez eta etorkinak gorritz.

Nabari da bi ikasturteen profilak ezberdinak direla. 2002-2003ko ikasturtean ez da lankidego osoki euskaldunik eta lankidego erdalduna da jendetsuena. 2008-2009ko ikasturtean badaude lankidego euskaldunak multzo ttipiena bada ere; gainera lankidego doi bat euskaldunek osatzen dute multzo jendetsuena. Multzo guztietan Euskal Herrian sortuak diren ikasleak etorkinak baino askoz gehiago dira. Ikusi dugu ehunekotan ezarriz ezberdintasuna bizpahiru pundukoa dela multzo bakoitzean, euskaldunak erdia diren multzoan salbu.

Oro har 2002-2003tik 2008-2009ra, berean lankidego erdaldunen multzoa ttipitu da %55etik %36ra pasatuz eta ildo beretik lankidego euskaldu-

nak emendatu dira: lankideen erdiak edo gehiagokoak %14tik %21era. Euskaldun batzuk dituzten lankidegoak ere bai %31tik %43ra, baina kasu honetan erdaldunak gehiengoan dira.

### Ikusmolde orokorra

Taula honetan, bi ikasturteetako ikasleak metatzen ditugu, herrikoak eta etorkinak bereiziz. Argazki orokor bat badugu.

*AEKko ikasleak lankideen euskararen ezagutzaren arabera*

	<i>Lankide euskaldunak</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Batezbesteko</i>
<i>Bi ikasturteak</i>	Nehor	258 = %44	210 = %45	468 = %44
	Batzuk	222 = %38	176 = %37	398 = %38
	Erdia	75 = %13	61 = %13	136 = %13
	Kasik denak	32 = %5	22 = %5	54 = %5
	Ikasle oro	587 = %100	469 = %100	1056 = %100

Orotara 1056 erantzun izan dira, 587 herriko eta 469 etorkin.


- Ikasle multzoak zailka ditzagun lankidegoen euskalduntasunaren arabera:
- euskara ez dakiten lankideek multzo handiena osatzen dute 468 erantzunekin;
  - bigarren multzoa lankide batzuek euskara dakitena da 398 erantzunekin;
  - hirugarrena lankideen erdiak dakitena da 136 erantzunekin,
  - eta azkena kasik lankide orok dakitena da 54 erantzunekin.

« Nehor » multzotik « (kasik) denak » multzora kopuru beherakada ohargarria da.

Taula hau ezar dezagun grafiko baten moldean.

Bi ikasturteak elkarretaratuz, grafikoak herrikoen eta etorkinen arteko paralelismo osoa erakusten digu. Bi ikasle multzoentzat hizkuntza-ingurumena gutxi gorabehera berdina da. Kasik erdiarentzat ikasleen lankideek ez dute euskara ezagutzen, herrikoen %44rentzat eta etorkinen %45entzat.

*AEKko ikasleen lankide euskaldunak: nehor (1), batzuk (2), erdia (3), kasik denak (4), orokorki eta zenbaki gordinetan*



Beharakada berdina da ala herrikoentzat ala etorkinentzat, ehunekoek erakusten duten bezala, kasik denak berdin-berdinak dira. Horrek erakusten du lantokiko hizkuntza-ingurumena antzekoa dela, edo zehatzago mintzatuz lankide horien euskararen ezagutza antzekoa dela AEKko herriko ikasleentzat eta ikasle etorkinentzat.

Oro har, AEK-an euskara ikasten duten ikasleen lankideek hizkuntza hori ezagutzen ez dutela erran daiteke, edo gutxi ezagutzen dutela bederen. « Nehork » eta « batzuek » gehitzen baldin baditugu herrikoen %82 lortzen ditugu eta etorkinen %83.

Bere aldetik 2006ko IV. inkesta soziolinguistikoak Ipar Euskal Herriko biztanleen %22,5 elebiduna litzatekeela erraten digu eta %8,6 elebidun hartzailea. AEKko ikasleen lankideek era batez holako hizkuntza-gaitasun proportzioa erakutsiko lukete, zenbaki mota ezberdin horiek konparagarriak baldin badira.

### 3.12.3. AEK-KO IKASLEEN FAMILIAK, LAGUNARTEAK ETA LAN-KIDEGOAK

Aztertzen ditugun hiru ikasturteen denboran, hiru inkesta soziolinguistiko egin ziren Euskal Herri osoan, Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritzapean.

Interesgarria litzateke, Iparraldeko emaitzak konparatzea AEKko ikasleei buruzko ikerketa honekin. Adibidez ikasleen inguruneko hizkuntza giroek ba ote dute zerbait ikusteko herritarren hizkuntza gaitasunarekin. Ingurunea aipatzen dugularik gogoan ditugu ikasleen familiak, lagunarteak eta lankidegoak.

Kasu ! Bi gauza ezberdin konparatzen ditugu norbanakoen hizkuntza gaitasuna eta egitura batzuren hizkuntza giroa. Halere, ezberdintasunak ezberdintasun, entsegu bat egin genezake ikusteko zer agertuko den.

## Metodologia

Inkesta soziolinguistikoetan hiru hizkuntza gaitasun bereizten dira:

- euskaldunak edo elebidunak, euskara ongi edo aski ongi dakitenak ;
- elebidun hartzaileak edo ia-euskaldunak, euskara ulertzen dutenak ;
- erdaldun elebakarrak, euskara ez dakitenak.

Emaitzak baditugu orokorki eta adinarteen arabera.

AEKri buruzko ikerketan bi hizkuntza gaitasun aipatzen dira euskaldunak eta erdaldunak, euskara doi bat dakitenak ere euskalduntzat hartuak direlarik. Ikasleen familiak 3 kategoriatan banatuak dira: familia euskaldunak, (linguistikoki) mistoak edo elebidunak eta erdaldunak. Familia mistoetan 100 ahaidetarik 40 euskaldun dira eta 60 erdaldun, guti gorabehera.

Ikasleen inguruko beste egiturak (lagunartea, lankidegoa) 4 hizkuntza girotan sailkatuak dira euskaldunen proportzioaren arabera:

- (1) egitura erdaldunak, nehork ez daki euskara ;
- (2) euskaldun batzuk dauden egiturak, demagun laurden bat euskaldun ;
- (3) egitura erdi euskaldunak, kideen erdiak euskara daki ;
- (4) egitura (kasik) osoki euskaldunak, kide (kasik) guztiek euskara dakite.

Proportzio hauen arabera, egitura bakoitzean atera dezakegu ehunekotan zenbat euskaldun edo erdaldun dauden ikaslearen inguruan.

## Emaitzak

Ondoko taulako lehen zutabeen zerrendatu ditugu AEKko hiru ikasturteetan egin bilketak ikasleen familietako, lagunarteetako eta lankideetako hizkuntza giroak aztertuz. Denbora berean egin ziren hiru inkesta soziolinguistikoak zerrendatu ditugu ere (1996an, 2001ean eta 2006an). Ipar Euskal Herriko emaitza orokorrak aztertu ditugu eta 24-49 adinarteko emaitzak bereizi ditugu, AEKko ikasleen adinartea baita.

Bigarren zutabea euskalduntasunarena da: Iparraldeko inkesta soziolinguistikotetan metatu ditugu euskaldunak eta elebidun hartzaileak, zeren eta AEKko ikerketetan ikasleen igurunean euskalduntzat hartuak baitira euskara doi bat, aski eta ongi dakitenak. Holaxet emaitzak konparagarriago dira. Denak ehunekotan emanak dira.

Hirugarren zutabearen daude hiru inkestetako erdaldun elebakarrak eta AEKko ikasleen ingurunean ahaide, lagun eta lankide erdaldunak ehunekotan.

Azken zutabearen kopuruak zenbaki gordinetan eman ditugu, ehunekoen balioak zein diren bilatu nahi dutenentzat.

### Zer diote inkesta soziolinguistikoek?

Inkesta soziolinguistikoen jarraian Iparraldeko euskalduntasuna ahulduz doa:

1996ko inkestan, herritarren %36 euskaldun ziren, %27 elebidun eragile eta %9 elebidun hartzaile; erdaldunak %64. 16-49 urteko adinarrean, %32 euskaldun ziren (%21 + %11); erdaldunak %68.

2001eko inkestan, euskaldunen ehunkoa berdina da (%36), elebidun eragile gutxiago (%24) eta elebidun hartzaile gehiago (%12); erdaldunak %64. 16-49 urteko adinarrean, %31 euskaldun ziren (%18 + %13); erdaldunak %69.

2006ko inkestan, herritarren heren bat (%32) euskaldun da (%23 + %9), bi heren erdaldun (%68). 16-49 urteko adinarrean, %25 euskaldun ziren (%15 + %10); erdaldunak %75.

#### *Herritarren bizkuntza gaitasunak eta AEKko ikasleen inguruko bizkuntza giroa*

	<i>Euskaldunak + ia-euskaldunak</i>	<i>Erdaldunak</i>	<i>Ikasleen eta herritarren kopuruak (%100)</i>
<i>INKESTA 1996 :</i>			
16-90 urtekoak	%36	%64	212.000
24-49 urtekoak	%32	%68	90.000
<i>AEK 1995-1996 :</i>			
Gurasoak	%50	%50	810
<i>INKESTA 2001 :</i>			
16-90 urtekoak	%36	%64	222.000
24-49 urtekoak	%31	%69	92.700

*Herritarren bizkuntza gaitasunak eta AEKko ikasleen inguruko bizkuntza giroa*

	<i>Euskaldunak + ia-euskaldunak</i>	<i>Erdaldunak</i>	<i>Ikasleen eta herritarren kopuruak (%100)</i>
<i>AEK 2002-2003 :</i>			
<i>Abaideak</i>	%45	%55	794
<i>Lagunak</i>	%21	%79	579
<i>Lankideak</i>	%15	%85	457
<i>INKESTA 2006 :</i>			
<i>16-90 urtekoak</i>	%32	%68	230.000
<i>24-49 urtekoak</i>	%25	%75	90.100
<i>AEK 2008-2009 :</i>			
<i>Abaideak</i>	%46	%54	838
<i>Lagunak</i>	%35	%65	843
<i>Lankideak</i>	%26	%74	599

**Zer agertzen da euskaldunen zutabeen?**

Euskaldunen zutabeen, ohargarri da AEKko ikasleen ahaideak inguruko herritarrak baino euskaldunago direla ikasturteetan zehar:

- 1995-1996an, gurasoen erdiak euskaldun ziren. Inkesta soziologikoan baino %14 gehiago. Beste ahaideei buruz ez zen galderik.
- 2002-2003an ikasleen fitxan galdeak baziren 7 ahaideren euskalduntasunari buruz. Ikerketaren zabaltze honek teknikoki ulertaraz dezake familietako euskalduntasuna %50etik %45etara jautsi dela. Halere ikasleen ahaideak herritarrak baino 9 punduz euskaldunago ziren.
- 2008-2009an ikasleen familiei buruzko ikerketa molde berean egin zen. Herritar euskaldunak %36etik %32ra jautsi diren denboran, ikasleen ahaideen euskalduntasuna puntu batez goratu da %45etik %46ra. Beraz orain ikasleen ahaideak herritarrak baino 14 punduz euskaldunago dira. Sei urtez ahaideen aldeko ezberdindatusuna 5 punduz goratu da, %9z euskaldunagotik %14z euskaldunagora.

AEKko ikasleen inguruko beste egituretan, lagunartea eta lankidegoa, euskalduntasuna askoz ahulagoa da.

2002-2003ko ikasturtean ikasleen lagunak euskaldun ziren %21en heinean, (61%: 4) + (12%: 2), eta lankideak %15en heinean (31%: 4) + (14%: 2). Beraz beren adineko %31 herritar euskaldun ziren momentuan, ikasleen lagunarteetan euskalduntasuna 10 punduz ahulago zen eta lankideen artean 16 punduz ahulago.

2008-2009ko ikasturtean egoera sakonki aldatu da. 24-49 urteko herritar euskaldunen proportzioa %31etik %25era jaitsi den denboran, ikasleen lagun euskaldunak %21etik %35era goratu dira, eta lankide euskaldunak %15etik %26ra. Ondorioz ikasleen lagunak herritarrek baino 10 punduz euskaldunago direlarik, lankideak puntu batez euskaldunago dira.

### Zer agertzen da erdaldunen zutabeen?

Erdaldunen zutabea aztertzerakoan, ikusten dugu erdaldunak gehiengoan direla multzo guztietan salbu ikasleen gurasoetan 1995-1996an (%50).

Hiru inkesta soziolinguistikoetan erdaldunen kopurua gehituz doa (%64, %64, %68), jendetza gehitzen den neurrian: 212.000, 222.000, 230.000 herritar 16 urte eta goragokoak. Alabaina, neurri handi batean, jendetzaren garapena etorkinengatik gertatzen da.

1995-1996an ikasleen aita-ametean euskaldunak eta erdaldunak hein berdintsuan dira. Baina ahaide gehiago kontuan hartzen direlarik, adibidez gurasoen gurasoak eta ikasleen bizilagunak, orduan erdaldunak %54, %55etara heltzen dira. Halere erdaldunak, ikasleen ahaideetan herritarretan baino guttiago dira araberan, 9 punduz 2002-2003an, 14 punduz 2008-2009an.

Ikasleen inguruneko lagunak eta lankideak ahaideak baino askoz erdaldu-nagoak dira. Baina beren adineko herritarrei konparatuz egoera ez da berdina.

2002-2003ko ikasturtean eta araberan, ikasleen lagunetan ahaideetan baino %24 erdaldun gehiago daude eta beren adineko herritarretan baino %10 erdaldun gehiago. Gainera ikasleen lankideetan ahaideetan baino %30 erdaldun gehiago daude eta beren adineko herritarretan baino %16 erdaldun gehiago.

2008-2009ko ikasturtean ikasleen ingurunean erdalduntasuna ahuldu da. Halere ehunekotan, ikasleen lagunetan ahaideetan baino %11 erdaldun gehi-go daude eta beren adineko herritarretan baino %10 erdaldun guttiago. Ikasleen lankideetan ahaideetan baino %20 erdaldun gehiago daude baina, eta hau berria da, beren adineko herritarretan baino %1 euskaldun gehiago.

### Bururatzeko

AEKko ikasleen multzoak beren denborako jendetza osoari konparatu dugu. Konparaketa hau sinesgarri den neurrian, atera daitekeen ondorio da,

ikasle horien familietako hizkuntza giroa, inguruko hiztunena baino askoz euskaldunago dela. Halere ohargarri da ikasleen ahaidetan euskalduntasuna doi bat goratu dela %45etik %46ra, herritarrena beheratu delarik %36tik %32ra.

Alderantziz, ikasleen inguruko beste egituretan, lagunarte ala lankidego, hizkuntza giroak herritarrena baino askoz erdaldunago dira, %21en ezberdintasuneraino. Are gehiago familiekin konparatuz %30en ezberdintasuneraino. Halere ohargarri da ikasturte batetik bestera ikasleen ingurunean funtsezko euskalduntze bat gertatu dela. Ezberdintasunak herritar euskaldunekin lagunarteetan %3ra eta lankideetan %6ra jautsi dira. Ezberdintasunak ahai-de euskaldunekin lagunarteetan %11koa eta lankidegoetan %20koa dira oraino.

Euskara ikasten ari diren jende helduek ba ote dute eragin baikorrik beren ingurune hurbilean bizi direnen euskalduntasunean? Itxuraz bai, euskaldunen eta erdaldunen zutabeak ikusiz, erran dezakegu beren inguruko egitura berdina konparatuz gero eta euskaldun gehiago aurkitzen direla eta gero eta erdaldun guttiago. Baina ezin da erran ikasleenganeko bilakaera bat denik, ikasturte batetik bestera ez baitira ikasle berak. Nolazbait egoera soziolinguistikoa da aldatu dena, adibidez euskarari buruzko aldekotasuna. Eta horretan AEK erakundeak badu bere eragina, 1969az geroztik Ipar Euskal Herrian sortu duen dinamikari esker.

Pentsa dezakegu ere beren ingurune euskaldunak ikasleak bultzatzen dituela euskara ikastera.

### Laburbilduz

AEKko ikasleen hizkuntza-ingurunea aztertu nahiz, hiru ikerketa egin ditugu: zenbat lagun euskaldun dituzten, zenbat lankide euskaldun eta, gero, bi ingurune hoi en eta familia ingurunearen arteko konparaketa egin dugu.

Euskara ikasten dutenek mintzakide euskaldunak behar dituzte. Baina oro har ikasleen lagunarteetan ez da goaita ziteken bezainbat euskaldun: heren baten heina soilik. Ikasle etorkin gehiago dabilta lagunarte osoki erdaldunetan herritarrei konparatuz.

Ikasle langile gehienek, nola herritarrek hala etorkinek diote lankide euskaldun batzuk dauzkatela, baina 2002-2003an lankide euskaldunak ez dutenek gehiengo lortzen dute. Halere 2008-2009ko ikasleen lankidegoak euskaldunago dira baina laurdenaren heina gairiditu gabe.

Ikasleen hizkuntza-ingurune hiru egiturak konparatzen baditugu familiak dira euskaldunenak herriko ikasleentzat; ikasleen ahaideak oro



har herritarrak baino askoz euskaldunago dira. Ikasleen lagunarteak familiak baino erdaldunago dira, baina langilegoak baino euskaldunago. 2008-2009an ikasleen lagunarteak eta lankidegoak 2002-2003an baino euskaldunago dira.

Iparraldean euskalduntasuna ahuldu delarik, ikasle helduen lagunetan %35 euskaldunak dira, beren adineko herritarrak baino %10 gehiago, AEK erakundearen dinamika baikorraren seinale. Hain segur beren ingurune euskaldunarengatik euskara ikasten hasi direla izan daiteke.



2009ko Korrika Ipar Euskal Herrian<sup>12</sup>

<sup>12</sup> « Korrika Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) Euskal Herri osoan zehar egiten duen euskararen aldeko lasterketa erraldoia da. Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu. 2009ko martxoaren 26an Tuteran hasita, 11 egunez eta gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatuko du hamaseigarrenez Korrikak. 2.000 kilometro baino gehiago euskararen alde, adin eta mota guztietako milaka korrikalarirekin, gau eta egun gelditu gabe, apirilaren 5ean Gasteizera heldu arte » (<http://www.korrika.org>).

## 4. ETORKINAK ETA HERRIKOAK: MOTIBAZIOAK ETA HELBURUAK

### 4.1. EUSKARA IKASTEKO MOTIBAZIOAK

#### Corpusa

Motibazioei buruzko galderarik ez zen 1995-1996an. Beste bi urteetako erantzunak azter ditzazkegu. 2002-2003 ikasturtean 893 erantzun bildu ziren: 513 herriko ikasle eta 380 etorkin. 2008-2009an 879 erantzun: 455 herriko ikasle eta 424 etorkin. Orotara 1772 erantzun: 968 herriko ikasle eta 804 etorkin.

Ikasle bakoitzaren erantzunak anitzak izan daitezke. Beraz kontuan hartu behar da ikasle batek motibazioetan hautaketa bat baino gehiago egin zezake-ela. Eta hau da maizenik gertatu dena. Hona motibazioari buruzko inkesta, ikasleen fitxan agertzen den bezala.

Galde orokorra da: « Zerk motibatzen zaitu euskara ikastera ? *Quelles sont vos motivations pour apprendre le basque?* »

Zortzi erantzun proposatuak ziren.

1. Euskal kultura neregantzeko.  
*Pour mieux appréhender la culture basque.*
2. Euskal Herrian integratzeko.  
*Désir d'intégration au Pays Basque.*
3. Nere sustraiak, nortasuna atxemaiteko.  
*Pour retrouver mes racines, la culture de mes ascendants.*
4. Euskaldunekin komunikatzeko.  
*Pour communiquer avec les bascophones.*
5. Nere haurrak euskara ikasten ari direlako.  
*Pour aider mes enfants qui l'apprennent à l'école.*

6. Lana atxemaiteko edo aldatzeko.  
*Pour trouver un emploi ou avoir une nouvelle qualification.*
7. Hizkuntzak maite ditudalako.  
*Intérêt pour les langues.*
8. Besterik. Zehaztu.  
*Autre. Précise éventuellement.*

## Emaizak

Ondoko taulan motibazioak arrakasta orokorraren arabera sailkatuak dira. Lehenik emaitza gordinak ematen ditugu: motibazio bakoitzaren pareko zenbakiak adierazten dute zenbat aldiz agertzen den erantzunetan. Ehunekoak ateratzeko, zenbaki gordina konparatzen da multzoan bildu diren fitxa guztiekin. Hots 100 ikaslek zenbat aldiz hautatu duten aipatu motibazioa.

Beraz kopurua 100 baino gehiago izanen da ikasle askok motibazio bat baino gehiago hautatu baitute. Adibidez, 2002-2003an, “kultura” motibazioa agertzen da herriko ikasleek bete duten 513 fitxetarik 145etan. Beraz 100 ikasletan 28ren hautua da. 2002-2003 ikasturtean ere 513 herriko ikasleen fitxetan 872 motibazio agertu dira orotara, arabera 100 ikaslen fitxetan 169 motibazio agertu dira.

*Motibazioen sailkapena arrakastaren arabera bi ikasturteetan*

Ikasturtea	Motibazioak	Herrikoak (513)	Etorkinak (380)	Batezbesteko (893)
2002-2003	1. komunikazioa (4)	233 = %45	190 = %50	423 = %47
	2. kultura (1)	145 = %28	183 = %48	328 = %37
	3. nortasuna (3)	182 = %35	56 = %15	238 = %27
	4. hizkuntzak (7)	106 = %21	113 = %30	219 = %25
	5. integrazioa (2)	59 = %12	146 = %38	205 = %23
	6. hurrekin (5)	67 = %13	55 = %14	122 = %14
	7. lanerako (6)	57 = %11	113 = %11	97 = %11
	8. besterik (8)	23 = %4	14 = %4	37 = %4
		<i>Motibazio guztiak</i>	872	797

*Motibazioen sailkapena arrakastaren arabera bi ikasturteetan*

Ikasturtea	Motibazioak	Herrikoak (455)	Etorkinak (424)	Batezbesteko (879)
2008-2009	1. komunikazioa (4)	352 = %77	329 = %78	681 = %77
	2. kultura (1)	177 = %39	272 = %64	449 = %51
	3. nortasuna (3)	265 = %58	101 = %24	366 = %41
	4. hizkuntzak (7)	128 = %28	188 = %44	316 = %36
	5. integrazioa (2)	59 = %13	225 = %53	284 = %32
	6. haurrekin (5)	90 = %20	89 = %21	179 = %20
	7. lanerako (6)	52 = %11	46 = %11	98 = %11
	8. besterik (8)	25 = %6	25 = %6	50 = %6
	<i>Motibazio guztiak</i>	1.148	1.275	2.423
	Motibazioak	Herrikoak (968)	Etorkinak (804)	Orotara (1.772)
Bi ikasturteak	1. komunikazioa (4)	585 = %60	519 = %65	1104 = %62
	2. kultura (1)	322 = %33	455 = %57	777 = %44
	3. nortasuna (3)	447 = %46	157 = %20	604 = %34
	4. hizkuntzak (7)	234 = %24	301 = %37	535 = %30
	5. integrazioa (2)	118 = %12	371 = %46	489 = %28
	6. haurrekin (5)	157 = %16	144 = %18	301 = %17
	7. lanerako (6)	109 = %11	86 = %11	195 = %11
	8. besterik (8)	48 = %5	39 = %5	87 = %5
	<i>Motibazio guztiak</i>	2.020	2.072	4.092


**Motibazioak banaka bi ikasturteak konparatuz**

Bi ikasturteak konparatuz ikuspegi diakroniko baten hastapena izanen dugu. Motibazioen banan-banako azterketa egiten dugu, motibazio bakoitzaren aldeko hautuak fitxen kopuru osoari konparatuz. Adibidez “Euskal kultura nereganzeko” motibazioa 2002-2003an, ikasle guztien %37k hautatu dute. Aldiz 2008-2009ko ikasleatarik %51k hautatu dute. Ehunekoaren emendatze bat gertatu da beraz.

Bigarren zutabearen emaitza orokorren arabeko motibazioen sailkapena egiten dugu, lehenik motibazio aipatuena. Hiru sailkapen agertzen dira, herriko ikasleena, etorkinena eta orotara, elkarren arteko ezberdintasunak erakusteko.

Tauletan motibazio bakoitza hitz batez adierazten dugu baina fitxako sailkapena parentesi artean emanez, jatorrizko formulazioari erreferentzia egiteko moldean. Frantsesezko galdera garrantzitsua da, honi ihardetsi baitiote ikasle gehienek eta ez euskarazkoari. Halere euskarazko itzulpena aski hurbil zaio frantses testuari.

### Motibazio bakoitzaren arrakasta



### Aukera baikorrak gero eta gehiago dira motibazio guztientzat

2008an motibazio denek baiezko erantzun gehiago eskuratu dute 2002an baino, batzutan askoz gehiago. Ondorioz 2008an ikasleak motibatuagoak zirela erran dezakegu.

Emendatze hori “Euskaldunekin komunikatzeko” motibazio hautatuenean agertzen da bereziki: %32 gehiago herrikoentzat eta %28 etorkinentzat, eta “Nere sustraiak, nortasuna atxemaiteko” motibazioan: %23 gehiago herrikoentzat, baina anitzez emendatze ahulagoa etorkinentzat (%9). Etorkinentzat %16en emendatzea dugu “Euskal kultura nereganzeko” motibazioarekin, baina emendatze ahulagoa herrikoentzat (%11).

### Motibazioen ordena berdina 2002-2003an eta 2008-2009an

Bigarren oharra da motibazioen ordena ez dela aldatzen urte batetik bestera, motibazio hautatuenetik guttienik hautatuenera. Aldiz ordena aldatzen

da herriko ikasleen erantzun sailkapenaren eta etorkinen artean, eta orokorrean. Lehentasunezko ordena hau emaitza orokorretan ikusten dena da.

1. « Euskaldunekin komunikatzeko, *Pour communiquer avec les bascophones* »: 2002an %47, 2008an %77.
2. « Euskal kultura nereganzeko, *Pour mieux appréhender la culture basque* »: 2002an %37, 2008an %51.
3. « Nere sustraiak, nortasuna atxemaiteko, *Pour retrouver mes racines, la culture de mes ascendants* »: 2002an %27, 2008an %41.
4. « Hizkuntzak maite ditudalako, *Intérêt pour les langues* »: 2002an %25, 2008an %36.
5. « Euskal Herrian integratzeko, *Désir d'intégration au Pays basque* »: 2002an %23, 2008an %32.
6. « Nere haurrak euskara ikasten ari direlako, *Pour aider mes enfants qui l'apprennent à l'école* »: 2002an %14, 2008an %20.
7. « Lana atxemaiteko edo aldatzeko, *Pour trouver une emploi ou avoir une nouvelle qualification* »: 2002an %11, 2008an %11.
8. « Besterik, *Autre* »: 2002an %4, 2008an %6.

Sailkapen taulan herriko ikasleen eta ikasle etorkinen artean desberdintasun batzuk badira, bi taldeentzat « Euskaldunekin komunikatzeko » motibazioa lehena izanik ere. Bestalde “Lana atxemaiteko” eta « Besterik » azkenak dira bi taldeentzat.

### Motibazioak banan-banan jatorriaren arabera 2008-2009an

Motibazioak banan-banan azter ditzagun orain, 2008-2009ko ikasturtea erreferentziatzat hartuz.

- I. « Euskaldunekin komunikatzeko »: 2008an %77.

Motibazio hori biziki handia da, herrikoen %77rentzat eta etorkinen %78rentzat, eta beraz ongi banatua. 2002tik 2008ra 32%ren handitzeak, kasik bikoiztuz, erakusten du motibazio horrek herriko ikasleentzat duen garrantzia.

2. « Euskal kultura nereganzeko »: 2008an %51.

Motibazio hori, orotara bigarrena izanik ere, hirugarrena da herrikoentzat. Etorkinen %64k hautatu dute bigarren motibazioa gisa, aldiz herrikoen %39k bakarrik eta hirugarren mailan. Aurreikus daitekeen bezala, herrikoek etorkinek baino gehiago euskal kultura ezagutzen dute. Ondorioz bereganatzearen beharrik ez dute sentitzen edo guttiago bederen.

3. « Nere sustraiak, nortasuna atxemaiteko »: 2008an %41.

Motibazio horrekin alderantzia da. Herrikoak dira bereziki hautatu dutenak, %58k. Etorkinen (%24) doblea dira. Hori ere normalizat har dezakegu: herriko ikasleek euskal nortasunaren beharra daukate, beren euskal sustraiak berriz aurkitu nahi dituzte.

4. « Hizkuntzak maite ditudalako »: 2008an %36.

Hizkuntzendako motibazioa handiagoa da etorkinetan (%44), hirugarrena izanez, nortasunarendako baino handiago. Herrikoen %28k hautatu dute; gutxiago dira beraz. Euskara ikasteko, etorkinen hizkuntzendako gogoia beharrezkoa da.

5. « Euskal Herrian integratzeko »: 2008an %32.

Batez besteko ehuneko horrek herrikoen eta etorkinen arteko desberdintasun handia gordetzen du. Integratzeko motibazioak etorkinen %53 eskuratzen du, aldiz herrikoen %13. Azken horientzat seigarren motibazioa da, aldiz etorkinentzat hirugarrena da. Integratzeko nahia handia da etorkinetan; pentsa daitekeen bezala herrikoek beren burua integratutzat hartzen dute.

6. « Nere haurrak euskara ikasten ari direlako »: 2008an %20.

Komunikatzeko motibazioarekin bezala, motibazio hori orekatua da: herrikoen %20ek eta etorkinen %21ek hautatu dute. Kontuan har ikasle haurdunak %48 zirela. Dena dela, ikasle horiek euskara ikasten dute eta beren hurrek ere bai. Euskararen jarraipena segurtatua izan daiteke holako familietan.

7. « Lan atxemaiteko edo aldatzeko »: 2008an %11.

Herrikoen eta etorkinen arteko banaketa orekatua da (%11). Motibazio honen sailkapen apala harrigarritzat har daiteke. Halere ulergarria da jakinez Ipar Euskal Herrian lanpostu guttik euskara behartzen dutela. Iduri luke gau eskoletako ikasleek Ipar Euskal Herriko lan-mundua ezagutzen dutela.

8. « Besterik »: 2008an %6.

Ikasleek zortzigarren aukera bat bazuten, beste motibazio baten zehaztea nahi baldin bazuten. Erantzun gutti izan dira. Ehuneko hau, %6, ttipiena da herriko ikasleentzat, bai eta ere ikasle etorkinentzat.

### **Ikusmolde orokorra: herrikoak eta etorkinak**

Banan-banako analisisian motibazio bakoitzaren arrakasta urteka neurtu dugu ikasleen kopuruari begira. Orain bi ikasturteetako emaitzak bilduko



ditugu, motibazio bakoitzaren indar erlatiboa neurtzeko eta motibazioen ordena adierazteko.


Lehenik kondatu ditugu zenbat aldiz ikasleek aukeratu duten motibazio bakoitza, herriko ikasleek, etorkinek eta orotara.

*AEKko ikasleen motibazioen sailkapena bi ikasturteetan*

Motibazioak	Herrikoak (968)	Etorkina (804)	Batezbesteko (1.772)
Komunikazioa (4)	1. 585 = %60	1. 519 = %65	1. 1.104 = %62
Kultura (1)	3. 322 = %33	2. 455 = %57	2. 777 = %44
Nortasuna (3)	2. 447 = %46	5. 157 = %20	3. 604 = %34
Hizkuntzak (7)	4. 234 = %24	4. 301 = %37	4. 535 = %30
Integrazioa (2)	6. 118 = %12	3. 371 = %46	5. 489 = %28
Haurrekin (5)	5. 157 = %16	6. 144 = %18	6. 301 = %17
Lanerako (6)	7. 109 = %11	7. 86 = %11	7. 195 = %11
Besterik (8)	8. 48 = %5	8. 39 = %5	8. 87 = %5
<i>Motibazio guztiak</i>	2.020	2.072	4.092

Taula orokor honetan agertzen den sailkapena eta motibazioen banabanako analisisian ikusi duguna berdinak dira. Motibazioen sailkapena ez da berdina herriko ikasleen eta etorkinen artean.

*Motibazioen arrakasta jatorriaren arabera bi ikasturteetan (%)*



## Ikasle guztiei begira

Hona zein diren euskara ikasteko motibazioen indar erlatiboak, bi ikas-turteetako ikasle guztiak kontuan hartuz: herriko ikasleak (H), etorkinak (E), ikasle oro (O).

1. Euskaldunekin komunikatzeko: H = %60, E = %65, O = %62.
2. Euskal kulturaz jabetzeko: H = %33, E = %57, O = %44.
3. Norbere sustraiak eta nortasuna atxemateko: H = %46, E = %20, O = %34.
4. Hizkuntzei buruzko interesa: H = %24, E = %37, O = %30.
5. Euskal Herrian integratzeko: H = %12, E = %46, O = %28.
6. Haurrak euskara ikasten ari direlako: H = %16, E = %18, O = %17.
7. Euskara lanean erabiltzeko: H = %11, E = %11, O = %11.
8. Beste motibaziorik: H = %5, E = %5, O = %5.

Ikasle guztientzat, bertako ala etorkin, komunikazioa da motibazio nagusia eta laneko erabilera motibazio ahulena. Proposatu zerrendaz kanpo, motibazio gutti aukeratu dute.

## Herritarren eta etorkinen arteko ezberdintasunak

Zein dira ikasle herritarren motibazioak ?

- Motibazio nagusiak dira euskaldunen arteko komunikazioa (%60) eta nortasunaren adierazpena (%46).
- Erdi-guneko motibazioak dira euskal kultura (%33), interes linguistikoa (%24) eta haurren hizkuntza (%16) kontuan hartuz haurrak dituzten ikasleak %40 direla.
- Motibazio ahulenak dira integrazioa (%12) eta euskara lanerako (%11).

Zein dira ikasle etorkinen motibazioak ?

- Motibazio nagusiak dira euskaldunekin komunikatzea (%65), euskal kulturaren jabetasuna (%57) eta integrazioa (%46).
- Erdi-guneko motibazioak dira interes linguistikoa (%37), nortasunaren atxemaitea (%20) eta haurren hizkuntza (%18), kontuan hartuz haurrak dituzten ikasle etorkinak %56 direla.
- Motibazio ahulena da euskara lanean (%11).

## Motibazioen sailkapen sintetikoa


*Jatorriaren arabera, euskara ikasteko motibazioak*

Motibaziok	Herrikoak (968)	Etorkinak (804)	Ikasle oro (1.772)
Nortasun motibazioak (1, 2, 3)	887 = 44	983 = 51	1.870 = %47
Motibazio praktikoak (4, 5, 6)	851 = 42	619 = 32	1.470 = %37
Interes linguistikoa eta beste (7,8)	282 = 14	340 = 17	622 = %16
<i>Motibazio guztiak</i>	2.020 = 100	1.942 = 100	3.962 = %100

Motibazioak hiru multzotan bil daitezke erranahi nagusiaren arabera :

- Nortasunaren eremuko motibazioak, kultura (1), integrazioa (2) eta sustraiak (3) ;
- Motibazio praktikoak, komunikazioa (4), haurren euskalduntzea (5), lanerako (6) ;
- Beste motibazioak, hizkuntzak maite (7) eta beste (8).

*AEKko ikasleen motibazioak orokorki*



AEKko ikasleen lehen motibazio andana euskaltasunari buruzkoa da. Hizkuntzaren bidez herriko ikasleek beren erroak aurkitu nahi dituzte, eta kultura sakondu, nor diren ulertzeko. Aldiz ikasle etorkinek Euskal Herrian integratzea bilatzen dute, hizkuntzaren bidez eta neurri ahulagoan euskal kultura landuz.

Harrigarri da nortasunari buruzko motibazioak indartsuagoak direla etorkinetan ezinez-eta herriko ikasleetan. Azken hauek behar bada beren burua euskal herritartzat hartzen dute jadanik, etorkinek aldiz ez.

Motibazio praktikoak euskararen erabilerara norabidetuak dira: euskaldunekin komunikatzeko, euskara haurrei transmititzeko, euskararen bidez lan bat edo lan hobea aurkitzeko. Motibazio andana hau bigarren mailan da bai herriko ikasleetan, bai eta ere etorkinetan. Baina ikusi dugu komunikazioa dela motibazio nagusia ororentzat, aldiz orok ikusten dute euskarazko lanbi-deak xuhur direla Ipar Euskal Herrian.

Orokorki, euskara ikasterakoan, herriko ikasleen nahikundea praktikoa da etorkinena baino. Azken hauen kezka nagusia da beren tokia atzema-tea euskaldunen artean.

Motibazio linguistikoa edo hizkuntzei buruzko interesa ahulena da bi multzoetan. Motibazio hau interes intelektual bat da eta hizkuntza berri bati interesatzeko hizkuntza hau menperatu behar da, literatura eta beste. Ikaslea borrokan ari da hizkuntzaren zailtasunak gainditzeko. Ulegarri da ez dela oraino gai euskararen « edertasuna » dastatzeko.

## Beste ikerketak

Azpimarratzekoa da motibazioaren garrantzia. J.M. Sánchez Carrión “Txepetx”en arabera, jende helduengan, motibazioa beharrezkoa da euskara ezagutzeko, erabiltzeko eta haurrei transmititzeko (ikus *Un futuro para nuestro pasado*, 35-65). Haurren euskaltasunaren iturburua ere gurasoen motibazioa da. Gai hau sakonago landu nahi badugu, ikertu beharko genuke, euskara ikas-tera bultzatzeko, zer eragin duen adinak (ikus 3.4) eta nolaz ez familiako giroak (ikus 3.10) eta lagunarteko dinamikak (ikus 3.12).

### *Laburbilduz*

Proposatu ziren zazpi motibazioen artean « Euskaldunekin komuni-katzeko » da hautatuena (%62), 2.a « Euskal kultura nereganzeko » (%44), 3.a « Nere sustraiak, nortasuna atxemaiteko » (%34), 4.a « Hiz-kuntzak maite ditudalako » (%30), 5.a « Euskal Herrian integratzeko »

(%28), 6.a « Nere haurrak euskara ikasten ari direlako » (%17), azkena « Lan atxemaiteko edo aldatzeko » (%11),

2008an motibazio denek baiezko erantzun gehiago eskuratu dute 2002an baino, batzutan askoz gehiago.

Herritarrentzat motibazio nagusiak dira euskaldunen arteko komunikazioa (%60), nortasunaren adierazpena (%46) eta euskal kultura bereganatzea (%33). Etorkinen motibazio nagusiak dira euskaldunekin komunikatzea (%65) ere bai, ondotik euskal kulturaren jabeakuntza (%57) eta integrazioa (%46)<sup>13</sup>. Bi jatorri multzoentzat motibazio ahulena euskara lanerako da (%11).

Motibazioak hiru multzotan bildu ditugu, beren naturaren arabera. Nortasunaren eremuko motibazioak (kultura, integrazioa eta sustraiak) indartsuenak dira herrikoetan eta etorkinetan. Motibazio praktikoak (komunikazioa, haurren euskalduntzea, lanerako) erdikoak dira, herrikoetan eta etorkinetan. Motibazio linguistikoa (hizkuntzak maite) gehi « Beste » dira ahulenak herrikoetan eta etorkinetan ere.

## 4.2. AEK-KO IKASLEEN HELBURUAK

2003-2004ean ikaskuntzaren helburuei buruzko hamar proposamen gehitu dira ikasle-fitxan. Frantsesez bakarrik idatziak dira. Beraz urte bateko erantzunak aztertzen ditugu, 2008-2009 ikasturtekoak.

### Metodologia

Ikasle-fitxako atal horren izenburua zen: « Pouvez-vous préciser vos objectifs ? » (*Zure helburuak zebazten abal dituzu?*<sup>14</sup>)

Proposatuak ziren hamar helburu ezberdinak zerrendatzen ditugu:

I. Je veux apprendre quelques notions.

*Nozio batzuk ikasi nahi ditut.*

<sup>13</sup> Carme Junyent hizkuntzalari katalanak dio: « Bai euskarak eta bai katalanak badaukate hiztun gutxi daukaten hizkuntzen abantaila bat: haiek hitz egiteak taldean sartzeari ahalbidetzen du » (Aierdi eta Uranga, *Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak*: 14). Xabier Aierdik eta Belen Urangak ohartarazten dute: « Hori ez da ingelesarekin gertatzen, noski » (*ibid.*).

<sup>14</sup> Galderak euskaratu ditugu.

2. Je veux comprendre quelques phrases simples.  
*Erranaldi simple batzuk ulertu nahi ditut.*
3. Je veux être capable de comprendre la radio, la télé.  
*Irratia, telebista ulertzeko gai izan nahi dut.*
4. Je veux m'exprimer simplement avec des amis.  
*Adiskidekin mintzatu nahi dut sinpleki.*
5. Je veux aider mes enfants qui apprennent le basque à l'école.  
*Eskolan euskara ikasten duten nire haurrak lagundu nahi ditut.*
6. Je veux transmettre le basque à mes enfants comme langue première.  
*Lehen bizkuntza gisa euskara nire baurrei transmititu nahi diet.*
7. Je veux pouvoir aussi exercer mon activité professionnelle en basque.  
*Euskaraz ere nire lanbide-jarduera egin nahi dut.*
8. Je veux obtenir un emploi grâce à l'euskara.  
*Lanbide bat euskararen bidez eskuratu nahi dut.*
9. Je veux pouvoir m'exprimer aussi bien en basque qu'en français.  
*Euskaraz frantsesez bezain ongi mintzatu nahi dut.*
10. Je veux parler basque le plus possible dans mes relations, à mon travail.  
*Nire harremanetan, nire lanean euskaraz abal bezain usu mintzatu nahi dut.*

### Helburuei buruzko ikuspegi orokorra

Hamar helburu horiekin aukera konbinazio anitz gertatu dira. Ikasleek 176 konbinazio ezberdin egin dituzte orotara, batzuk aski arrakastatsuak, beste anitz ikasle bakar baten aukera izanez.

2008-2009an 879 fitxetarik 803 ikaslen aukerak bildu dira, beste fitxek erantzunik ez baitzuten. Konbinazio arrakastatsuenak hauek dira:

- 4. helburua 73 aukera,
- 3. + 4. helburuak: 65 aukera,
- 9. helburua 63 aukera,
- 1. + 2. + 3. + 4. helburuak 21 aukera,
- 3. + 4. + 5. helburuak 20 aukera,
- 3. + 4. + 9. helburuak 19 aukera,
- 4. + 7. helburuak 19 aukera ere bai, eta beste.

4. helburua, "Adiskidekin mintzatu nahi dut sinpleki", usu agertzen da konbinazioetan. Hautatuena dela ikusiko dugu ondoko lerroaldean.

## Helburuen banan-banako azterketa

Aukera kopuruaren arabera hamar helburu horien sailkapena egin dezagun, ikasle guztien baiezko erantzunak oinarritzat hartuz. Ikusiko dugu zein diren helburu hautatuena. Horri esker ikasle horien euskararen ikaskuntzako helburu nagusiak agertaraziko ditugu. Fitxako zenbakia parentesi artean agertzen da.

*Baiezko erantzuna helburu bakoitzaren arabera: zenbaki gordinak eta ehunekoa*

<i>Aukera baikorren sailkapena orokorrean</i>	<i>Herrikoak (455)</i>	<i>Etorkinak (424)</i>	<i>Batezbesteko (879)</i>
1. Adiskidekin mintzatzeko (4)	245 = %54	259 = %61	504 = %57
2. Hedabideak ulertzeko (3)	176 = %39	182 = %43	358 = %41
3. Euskara frantsesa bezala (9)	206 = %45	150 = %35	356 = %41
4. Euskaraz ahal bezainbat (10)	140 = %31	112 = %26	252 = %29
5. Euskaraz lan egin (7)	106 = %23	95 = %22	201 = %23
6. Haurrak ikasten ari (5)	64 = %14	73 = %17	137 = %16
7. Euskara eman hurrei (6)	81 = %18	33 = %8	114 = %13
8. Esaldi sinpleak ulertzeko (2)	40 = %9	60 = %14	100 = %11
9. Nozio batzu ikasteko (1)	35 = %8	48 = %11	83 = %9
10. Euskara lana ukaiteko (8)	18 = %4	21 = %5	39 = %4
<i>Erantzun baikorren kopurua</i>	I.III	I.033	2.144

## Ohar teknikoak

Emanen ditugun ehunekoetan erantzun baikorrak kontuan hartu ditugu. Aukera ezak eta erantzunik ezak ez ditugu konpilatu. Ehunekoak finkatu ditugu erantzuteko aukera zuten ikasleen arabera, hots banatu fitxen arabera: 455 herriko, 424 etorkin, 879 orotara. Jakinez ikasle bakoitzak helburu bat baino gehiago aukeratzen ahal zuela, erantzun baikorren kopurua fitxen kopurua baino askoz handiagoa da: herrikoek I.III erantzun baikorrak eman dituzte, etorkinek I.033. 2.144 erantzun baditugu orotara.

Beraz, adibidez, sailkapen honetan agertzen den lehen helburuaz, “Adiskidekin mintzatu nahi dut sinpleki”, eman erantzunak hola irakurri behar dira: 245 herriko ikaslek aukera baikorra eman diote helburuari, banatu fitxen %54. Gauza bera 256 etorkinek, banatu fitxen %61. Besteek, edo helburua ez dute aukeratu, edo erantzunik ez dute eman. Hemen ehunekoak erran nahi du 100 ikaslen aukerak ; beraz kopurua 100 baino gehiagokoa da, ikasle bakoitzak aukera bat baino gehiago egin baitzezaken.

## Sailkapena

Arestian erran bezala fitxako 4. helburua, “Adiskidekin mintzatu nahi dut sinpleki (4)” da hautatuena, fitxetako %57 aukera baikorrekin. Etorkinentzat helburu hori arrakastatsuago da (%61), herrikoentzat baino (%54).

Sailkapenean bigarren helburua “Irratia, telebista ulertzeko gai izan nahi dut (3)” helburua da %41ekin. Hau ere etorkinentzat arrakastatsuago da (%43) herrikoentzat baino (%39).

Hirugarren helburu hautatuena da, “Euskaraz frantsesez bezain ontsa mintzatu nahi dut (9)” orotara %41 berriz. Baina aldi honetan herrikoak dira gehiago hautatzen dutenak: %45, aldiz etorkinen %35ek.

Sailkapenean laugarren helburua da “Nire harremanetan, nire lanean euskaraz ahal bezain usu mintzatu nahi dut (10)”: %29. Helburu hori arrakastatsuago da herrikoen artean (%31) etorkinen artean baino (%26).

Azken helburua da “Lanbide bat euskararen bidez eskuratu nahi dut (8)”: orotara %4. Harrigarri da etorkinek gehixeago hautatzen dutela (%5), herrikoek baino (%4).

Halere helburu honi hurbil zaio “Euskaraz ere bai nire lanbide-jarduera egin nahi dut (7)”, aski ongi sailkatua da bosgarrena izanez: orotara %23. Arrakasta berdintsua du ikasle etorkinetan (%22) eta herrikoetan (%23).

Azkenaren aitzineko helburua da “Nozio batzuk ikasi nahi ditut (1)”: orotara %9. Helburu hau etorkinek gehiago hautatzen dute (%11), herrikoek baino (%8).

Sailkapen orokorraren aurkezpena bukatzeko erran dezagun seigarren helburua dela “Eskolan euskara ikasten duten nire haurrak lagundu nahi ditut (5)”, zazpigarrena delarik “Lehen hizkuntza gisa euskara nire hurrei transmititu nahi diet (6)”, eta zortzigarrena “Erranaldi sinple batzuk ulertu nahi ditut (2)”.

## Herriko ikasleen eta etorkinen arteko ezberdintasunak

Azpimarra dezagun sailkapena ez dela osoki berdina herrikoentzat eta etorkinentzat, lehen eta azken helburuak berdinak izanik ere bi ikasle multzoentzat, lehen lerroan “adiskideekin mintzatzea” eta beste muturrean “euskara lana ukaiteko”.

Herrikoentzat bigarren helburua kalitatiboa da, “euskaraz frantsesez bezain ontsa mintzatzea”. Aldiz haientzat “nozio batzuk ikastea” ez da bate-re ongi sailkatua, bederatzigarrena izanez. Etorkinentzat azken hau bosgarren helburua da eta “irratia edo telebista ulertzea” bigarrena. Beraz etorkinek oinarritzko komunikazioa helburu nagusi gisa lukete, herrikoek aldiz komunikazio-gaitasun handiagoa bilatuko luketelarik.



Herrikoentzat euskara “lehen hizkuntza gisa haurrei transmititzea” seigarren helburua da, bederatzigarrena etorkinentzat. Transmisioa garrantzitsua goa litzateke herrikoentzat (%18) etorkinentzat baino (%8).

*Helburu bakoitzaren sailkapena: herrikoak versus etorkinak*

<i>Aukera baikorren sailkapena orokorrean (879)</i>	<i>Herrikoak (455)</i>	<i>Etorkinak (424)</i>
1. Adiskideekin sinpleki mintzatzeko	1.	1.
2. Hedabideak ulertzeko	3.	2.
3. Euskara frantsesa bezala	2.	3.
4. Euskaraz ahal bezain usu	4.	4.
5. Euskaraz lan egin	5.	5.
6. Nire haurrak ikasten laguntzeko	7.	6.
7. Euskara nire haurrei transmititzeko	6.	9.
8. Esaldi sinpleak ulertzeko	8.	7.
9. Nozio batzuk ikasteko	9.	8.
10. Euskara lanbide bat eskuratzeko	10.	10.

Oro har ezberdintasunak ez dira hain handiak, baina hor dira.

### **Hamar helburuen sailkapen orokorraz**

Helburu hautatuenak ahozko komunikazioari buruzko helburuak dira, nola lehena den “adiskideekin mintzatzeko sinpleki”, hala bigarrena da “irratia eta telebista ulertzea”: ahozko adierazpena alde batetik, ahozko ulermena bestetik.

Hirugarren helburuak ahozko komunikazioaren kalitatea bilatzen du: “euskaraz frantses bezain ontsa mintzatzeko”; bigarren helburua da herrikoentzat. Helburu askonahia da, lehenari konparatuz.

Laugarren helburu arrakastatsua “harremanetan eta lanean euskaraz ahal bezain usu mintzatzeko” da. Honek ere ahozko komunikazioarekin badu zer ikustekorik.

Aldiz, euskararen lanerako balioa ez da lehenetsia. “Lanbide bat euskararen bidez eskuratzeko” azken helburua da sailkapenean eta “euskaraz ere lanbide-jarduera egin nahi izatea” bosgarrena, nola herrikoentzat, hala etorkinentzat.

Hitz batez erran dezakegu euskarazko komunikazio gaitasuna lehenetsu-  
na dela AEKko ikasleentzat. Oinarritzko ezagutza bilatzen dute. Euskara hau-  
rrei transmititzea edo lanean baliatzea ez dira gaitasun hori bezain arrakasta-  
tsuak.

### *Laburbilduz*

Proposatu diren hamar helburuetan “adiskidekin mintzatu nahi dut  
sinpleki” da hautatuena (%57), hala herrikoentzat (%54) nola etorki-  
nentzat (%61).

Bigarrena “euskaraz frantsesez bezain ontsa mintzatu nahi dut” da  
herrikoentzat (%45); hirugarrena da etorkinentzat (%35).

Hirugarren helburua “irratia, telebista ulertzeko gai izan nahi dut” da  
herrikoentzat (%39). Helburu hau bigarrena da etorkinentzat (%43).

Sailkapenean, “lanbide bat euskararen bidez eskuratu nahi dut” azken  
helburua da herrikoentzat (%4) eta bai ere etorkinentzat (%5).

Oro har iduri luke etorkinek oinarritzko komunikazioa lortu nahiko  
luketela, herrikoek aldiz komunikazio-gaitasun handiagoa bilatuko luke-  
tela.

## 4.3. BESTE BI INKESTA

### I. Baionaldeko CSA galdeketa euskararen irakaskuntzaz, 2001

Baiona-Angelu-Biarritz (BAB) hiri elkargoak ikerketa bat eskatu zion  
2001ean CSA iritzi-zundaketa erakundeari, euskararen irakaskuntzari buruz.  
Galdezkatuak ziren 3 urtez petikako haurrak zituzten gurasoak orotara, 501  
pertsonek. Ikus emaitza zehatzak eranskinetan.

Laginarenean egitura BABko jendetzaren itxurakoa da.

- Bizitza lekua: Baionan 220 (%44), Biarritzen 121 (%24) Angelun 159  
(%32).
- Hizkuntza gaitasunaren arabera: euskaldunak 46 (%9), erdi-euskaldu-  
nak 128 (%26), erdaldunak 327 (%65).
- Jatorriaren aldetik: Euskal Herrian sortuak 220 (%44), etorkinak 281  
(%56).

*Euskararen irakaskuntza*

Galdea: « Urte bat edo biren buruan, zure haurrak eskola hasiko du. Nahi zenuke zure haurrak euskara ikas dezan eskolan? »

Guraso gazteen gehienek (282 pertsona) nahi dute beren haurrak euskara ikas dezan eskolara joanen delarik: 282 pertsona = %56 (%19 osoki ados, %37 nahiko ados). Guraso gazteagoetan da xede kartsuena: 30 urte baino guttiagokoetan %64, 30-39 urtekoetan %57 eta 40ez goragokoetan %54.

Hizkuntza gaitasunaren arabera, euskara ongi dakitenen %85 ados dira, euskara doi bat dakitenen %60 eta erdaldunen %51.

Jatorriaren arabera, bertako gurasoetan %58k euskararen irakaskuntza nahi dute eta kanpokoetan %54k.

Euskararen irakaskuntzarik nahi ez duten gurasoak 209 dira, % 42 (%23 osoki kontra, %19k nahiago ezetz). Kontrako horietan herrian sortuen %40 dira, kanpokoan %43.

*Euskal irakaskuntzari buruzko motibazioak*

Galde irekia: « Zergatik nahi duzu zure haurrak euskara ikas dezan? »

Ez zen erantzun proposaturik. Hona erantzun aipatuenak, bataz besteko maiztasunaren arabera sailkaturik. Inkestatuak aukera bat baino gehiago bazi-tuen.

<i>Baietzaren motibazioak</i>	<i>Herrikoak</i> (129 guraso)	<i>Etorkinak</i> (153 guraso)	<i>Batezbesteko</i> (282 guraso)
Euskal Herrian bizi gara	%37	%37	%37
Kultura aberatsa, izpiritu irekidura	%23	%27	%24
Ondareari, jatorriari atxikiak	%20	%15	%17
Familia eta gizarte komunikaziorako	%16	%11	%13
Haurra Euskal Herrian sortua delako	%9	%12	%11
Euskara Herrian integratzeko	%6	%13	%10
Euskara ez dadin gal	%15	%6	%10
Baliagarri lanbidearentzat, lanerako	%9	%4	%6

Haurrei euskara irakasteko motibazioak kulturalak dira eta praktikoak baina ez dira profesionalak, ez eta ere politikoak. Gurasoen herena baino gehiagok (%37) nahi dute haurrek euskara ikas dezaten Euskal Herrian bizi direlako, eta neurri berean herrian sortuak direnetan eta etorkinetan. Bataz

beste gurasoen laurdenak aipatzen dituzte motibazio kulturalak: euskararen ezagutzak dakarren izpiritua irekidura edo aberastasun kulturala. Askoz gehiago guraso etorkinetan (%27) bertakoei konparatuz (%23). Aldiz bertakoei askoz gehiago aipatzen dute ondareari, jatorriari buruzko atximimendua (%20, etorkinek %15) bai eta ere euskararen biziraupena (%15, etorkinek %6).

Motibazio praktikoetan familiako eta gizarteko komunikazioa da nagusi: bertakoen %16 eta etorkinen %11 rentzat. Kanpotik etorri diren gurasoentzat euskara baliagarri da haurren integrazioarako (%13, bertakoei %6). Baina oso guttik garrantzia ematen diote euskarari lan egiteko, lanbide bat segurtatzeko: bertakoen %9k, etorkinen %4.

Galde irekia: « Zergatik ez duzu nahi zure haurrak euskara ikas dezan? »

<i>Ezetzaren motibazioak</i>	<i>Herrikoak</i> (88 guraso)	<i>Etorkinak</i> (121 guraso)	<i>Batezbesteko</i> (209 guraso)
Ez gara hemengoak	%9	%38	%26
Euskara ez da baliagarria	%27	%24	%25
Etxean nehork ez daki euskara	%29	%21	%24
Hobe ingelesa ikas dezan	%29	%20	%24

Atzerritasuna da guraso etorkinek maizenik eman duten arrazoia euskara ez irakasteko: “Ez gara hemengoak, euskara ez da gure kultura” (%38). Bigarren lerroan dagoen arrazoia da baliagarritasun eskasa orokorki (bertakoen %27, etorkinen %24). Euskararen beharrik ez da familia erdaldunetan (bertakoen %29, etorkinen %21). Baliagarritasunaren izenean guraso anitzek nahiago dute haurrak ikas dezan ingelesa edo gaztelania edo beste nazioarteko hizkuntza bat (bertakoen %29, etorkinen %20).

Ohizko motibazio ezkorrak ez dira maiz agertu, ez euskararen zailtasuna (%2) ez eta ere irakaskuntzaren politizazioa (%4).

#### *Euskarari buruzko pedagogia*

Ama-eskolako irakaskuntza goiztiarraren alde dira bertako gurasoen %79 eta etorkinen %73. Askoz gehiago dira ikaskuntza elebidunaren alde direnak denbora berdinarekin bi hizkuntzentzat (%84), euskararen aldeko murgilbideari konparatuz (%13). Euskara frantsesa bezain ongi menperatzearen alde dira (herriko gurasoen %30, etorkinen %19). Guraso gutiagok frantsesari ematen diote lehentasuna (guraso etorkinen %24k, herrikoen %11).

Oro har euskararen irakaskuntzari buruz kartsutasun berdintsua ikusten da herriko gurasoetan eta kanpokoetan. Baina ez arrazoi berdinentatik. Herrikoen motibazioa da ondarea, familia eta euskarari buruzko atxikimendua. Etorकिनen helburua da integrazioa, izpiritu irekidura, frantsesaren ezagutza. Nehork ez du ikusten euskara baliagarri denik lanbidearentzat, baina gehienek euskara nahi dute haurrentzat Euskal Herrian ongi bizitzeko.

## 2. Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran, 2005

Euskal nortasunari buruzko inkesta egin zen, 2005ean, Euskal Herri osoan, Eusko Jaurlaritzan, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Eusko Ikaskuntzaren arteko lankidetzan. Iparraldeko zatia Euskal Kultur Erakundeak eraman zuen. Metodologiaren berezitasuna da ikerketa denbora berean izan zela kantitatiboa eta kalitatiboa. Iparraldeko eztabaida taldeetan baziren bi multzo euskaldun, bi multzo erdaldun beren iritziak adierazi baitituzte, gidoi malgu bati jarraikiz.

Ikerketa 2006an argitaratu izan da: *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*, Baxok eta beste, Eusko Ikaskuntza: Donostia. Ikus emaitza zehatz batzuk eranskinetan.

Atal honetan garrantzia emanen diogu euskararen ezagutzari eta jatorriaren paradigma ikertuko dugu bereziki. Alabaina laginako lekukoak sailkatuak izan dira hiru kategoriatan: tokikoak (Euskal Herrian sortuak), kanpokoak (Euskal Herritik kanpo sortuak), tokikoak baina guraso bat edo biak kanpokoak. Hemen tokikoak eta kanpokoak konparatuko ditugu, bi zati bakarrik hartuz euskal nortasunaren baldintzak eta euskara ikasteko motibazioak.

### *Euskal nortasunaren baldintzak*

Galdea hau zen: « Zure iritzi, zein dira bi baldintza garrantzitsuenak norbaitek bere burua euskal herritartzat sentitzeko? »

Iparraldean gehienik agertu diren erantzunak erakusten ditugu, tokiko eta kanpoko erantzuleak bereiziz eta gero juntatuz.

Hemen ere aukera bat baino gehiago bazituen inkestatuak.

*Euskaldun izateko baldintzak, jatorriaren arabera (%)*

<i>Baldintzak</i>	<i>Tokikoak</i>	<i>Kanpokoak</i>	<i>Batezbesteko</i>
1. Euskal Herrian sortua izan	56	50	53
2. Euskaraz hitz egin	43	37	40
3. Arbaso euskaldunak ukan	29	33	31
4. Euskal Herrian bizia eta lana	17	31	24
5. Euskal herritar izan nahia	18	10	14
6. Euskal Herria defendatu	15	11	13
7. Deitura euskalduna ukan	7	5	6
8. Euskal arte bat praktika	1	1	1
9. Euskal kiroltzale izan	1	1	1

Euskal herritar izateko ustezko baldintzetan ezberdintasun handiak badira bertakoen eta kanpokoaren artean. Konpara ditzagun bi muturretako ikusmoldeak.

EAEn hiru baldintza nagusi agertzen dira: euskal herritar izan nahia, herrian bizitza eta lana egitea eta sorlekua. Askoz urrunago euskaraz hitz egitea eta militantismo politikoa.

Ipar Euskal Herrian hiru baldintza nagusiak sorlekua, gero euskaraz hitz egitea eta arbaso euskaldunak dira. Ordena berean daude tokikoen eta kanpokoaren iritziz baina ez hein berean. Gero baldintza garrantzitsuena bizitza eta lan lekua da kanpokoentzat. Aldiz tokikoengan boluntarismoa nagusi da: Euskal Herritar izan nahia eta abertzaletasuna.

Oraingo antropologia erreferentziatzen hartuz, bi muturretako nortasun kolektibo teorian gabiltza, primordialismoan eta boluntarismoan:

- alde batetik nortasuna ondare bat da (bereziki herrian sortuak direnentzat) nor bere nahia baino sakonagokoa, familia handi bateko senideak bagine bezala: sorlekua, hizkuntza, jatorria ;
- beste aldetik nortasuna hautu bat da: tokikoentzat herritar izan nahia- ren sentimendu kolektiboan onartua delarik helburu abertzale batzuren- tzat ; kanpokoek Euskal Herrian integratu nahi dute, bizitza eta lan lekua bilatzen baitute.

*Euskara ikasteko motibazioak*

Hain zuzen ikasleei eta ikasteko gogoan adierazi dutenei galde egin diete: « Zergatik euskara ikasten duzu? »

<i>Euskara ikasteko motibazioak</i>	<i>Tokikoak</i>	<i>Kanpokoak</i>	<i>Batezbesteko</i>
Euskaldunekin komunikatzeko	%44	%48	%46
Euskal Herriko hizkuntza delako	%37	%31	%34
Nire erroak aurkitzeko	%22	%10	%16
Euskal Herritar sentitzen naizelako	%20	%8	%14
Herri honetan integratzeko	%4	%18	%11
Haurrek euskara ikasten baitute	%4	%8	%6
Lanerako	%3	%7	%5

Herrikoentzat, eta are gehiago kanpokoentzat, lehen erantzuna da “euskaldunekin komunikatzeko”. Tokikoentzat euskararen aldeko motibazioak herritasunari lotuak dira: hemengo hizkuntza, erroak aurkitzeko, euskal herritar sentitzen naizelako. Etorkinek ere hemengo hizkuntza errespetatzen dute, baina gero griña nagusia da “herri honetan integratzea”.

Hegoaldean ez bezala, Iparraldean motibazio instrumentalak ahulak dira: « Lana aurkitzeko eta lanerako, gure seme-alabak ikasten ari direlako ». Hala ere doi bat indartsuago kanpokoengan tokikoei konparatuz.

Beste galde batek ere motibazio baikorra agertzen du: « Seme alabarik baldin baduzu edo bazenu, nahiko zenuke euskara jakin dezaten ? ».

<i>Euskara haurrentzat</i>	<i>Tokikoak</i>	<i>Kanpokoak</i>	<i>Batezbesteko</i>
Jadanik badakite	%20	%16	%18
Bai, nahiko nuke jakin dezaten	%48	%43	%45
Berdin zait	%20	%20	%20
Ez, ez nuke nahi jakin dezaten	%12	%12	%12

Emaitzak kasu eginez hartu behar dira, anitzentzat galdea hipotetikoa baitzen, haurrik ez zutelakoan. Dena dela erantzun ezkorrak oso gutti dira (%12) eta hein berean herritarrekin eta etorkinekin. Transmititzeko nahia (%45) egiazko transmisioa (%18) baino askoz goragokoa da. Halere axolagabearen neurria (%20) gora da orokorki eta neurri berean tokikoekin eta kanpokoekin. Emaitza hauen irakaspena da xede ona ez dela aski, motibazio bizkor batek ez badu sostengatzen. Alabaina eskolak ezin dezake egin familiak egiten ez duena eta transmisioa eraginkorraren baldintza da familiaren eta eskolaren arteko lankidetzeta.

Oro har nortasun kolektiboari buruzko ikerketa honek erakusten du euskararen aldeko sentimenduak onak direla. Haurrek euskara ikasi behar dutela. Eguneroko bizitzan euskarak balio du euskaldunen artean mintzatzeko, baina askorentzat baliagarritasun ahula dauka lanerako ala praktika kulturalentan.

Gaur egungo egoera hizkuntza eta kultura askotasunarena da. Euskara ikasia zuen Hazparneko andere batek, eztabaida talde batean eman zuen leku-kotasun adierazgarri bat:

*“Bat bestearen gainean zeuden nortasunekin adiskidetu naiz eta orain euskalduna sentitzen naiz. Hori da nire lehen nortasuna. Eta gero frantsesa naiz adoptatuz. Eskola frantsesera joan nintzen nire herrixkan, eskola publikora eta frantses literaturaz jabetu nintzen. Azkenik europarra naiz eta mundu osokoa. Iraganean gai hori oso zaila izan zen, baina gauza hau pertsonala da”.*

Aipamen hau frantsesetik euskarara itzulia da. Egia da etorkinentzat bai eta ere Euskal Herrian sortuak diren askorentzat.

### **Laburbilduz**


Hiru ikerketak alderatzen baditugu ezaugarri berdineko edo berdintsu asko agertzen dira bereziki euskararen ikasteko (edo ez ikasteko) motibazioak aztertzen direlarik:

- Euskarak balio du euskaldunekin komunikatzeko eta ondorioz erdaldunek ikasi behar lukete eta hurrei irakatsi behar zeie.
- Hemen sortuak direnentzat euskara herritasunaren eta nortasun kolektiboaren adierazle da.
- Etorkinentzat euskara herrian integratzeko bide laburrena da.
- Baina orokorki inkestatuek ez diote euskarari baliagarritasun handirik ematen lanbide bat aurkitzeko edo lanean aritzeko.

Oro har, euskararen ikaskuntza bakoitzaren eta gizartearen nortasunari lotua da, bizitza praktikoa baino gehiago. Hortakotz euskararen ikaskuntza kultur gintzarekin uztartu behar da. Baina euskarari etorkizuna segurtatu nahi badiogu, gizartean hartze duen leku guztia eman behar diogu.

Ikaskuntzaren helburua da hizkuntzaren erabilera normala, legearen laguntzarekin.





euskara  
ton savoir (être)

Cours de basque  
pour adultes

PLACES ILLIMITÉES  
[www.aek.org](http://www.aek.org)  
05 59 25 76 09

**aek**  
ton coach

2007-2008ko sartze kanpaina



## 5. IKERKETAREN ONDORIO NAGUSIAK

Ikerketaren helburua da aztertzea Ipar Euskal Herriko etorkinak nola euskalduntzen diren. Atzerri immigrazioaz gain, etorkintzat hartzen ditugu Euskal Herritik kanpo sortuak diren gizakiak. Jendetzaren erdia osatzen dute. Haurrak eskolara doaz eta sail elebidunean sartzeko aukera badute. Jende helduentzat aldiz euskara ikasteko bide zuzenena eta laburrena da AEKko kurtsoei jarraitzea, gau eskoletan eta euskaltegi intentsiboetan. AEKko ikasle goaren azterketak erakusten du, etorkinak nola euskalduntzen diren. Hain zuzen, ikasturte bakoitz, ikasleek informazio fitxak betetzen dituzte. Holaxet argibide anitz bildu dira, molde anonimoan, hiru ikasturteetan zehar, 1995-1996an, 2002-2003an eta 2008-2009an. Hiru alor jorratu dira.

Emaitza soziodemografikoen ikasle goaren profila marrazten dute: jatorria, generoa, adina, lanbidea, ezagutza maila. Bestalde emaitza demolinguitikoen ikasleen hizkuntza giroa definitu dute familian, lagunartean, lan munduan. Gainera emaitza psikolinguitikoen ikasleen gogoak adierazten dute, euskara ikasteko dituzten motibazioak, goaitatzen dituzten helburuak eta zer xede duten beren haurrak euskalduntzeko. Horrez gain, euskararen etorkizuna asmatu nahiz, epe berean egin ziren beste bi inkesta alderatu ditugu: BABko guraso gazteek zer nahikaria zuten 2001ean beren haurrak eskoletako sail euskaldunetan ezartzeko eta 2005ean herritarrek zer zioten beren nortasunaz.

Hori egin ondoan posible da Ipar Euskal Herrian euskara ikasten duten etorkin helduen eta herriko helduen profil orokorra zehaztea.

### Emaitza soziodemografikoak

Nolakoak dira euskara ikasten duten etorkin helduak? Hiru ikasturteetan, etorkinak bertakoak baino gutiago dira baina ezberdintasuna leuntzen ari da: 1995ean etorkinak heren bat ziren, herrikoak bi heren ; 2008an %48 eta %52 hurrenez hurren. Urte oroz gizon baino emazte gehiago bada ikasleetan,

6 punduren aldearekin. Ezberdintasuna handiago da bertakoetan, hainbestearaino non gizonetan etorkinak gehiago baitziren azken urtean.

Ikasleak gero eta zaharragoak dira. Hiru ikasturteetako batez besteko adinak 35, 39 eta 42 urtekoak dira. Eta beti etorkinak herrikoak baino zaharrago dira. Urte oroz 25-49 adinartea da jendetsuena, eta 16-25 adinartea bakarena bereziki etorkinetan (%7).

Ikasle gehienak lanean ari dira baina langile gutiago bada etorkinetan (%62) ezinez eta herriko ikasleetan (%71). Erretretan direnak gero eta gehiago dira bi multzoetan, %12 batez beste. Ikasleen lanbideak ekoizpen sektoreka banatzen baditugu, oso guti dira laborantzian (%3, sektore euskaldunena baita), laurden bat industrian eta gehiengo handia (%72) zerbitzuetan. 300 ikasleren lagin bat hartuz, ohargarri da gehienik aurkitzen diren langileak harreman asko dauden eremuetan daudela: bertako ikasle gehiago bulegoetan, salerospenetan eta industrian, aldiz etorkin gehiago hezkuntzan eta, araberan, osasunean eta ofizialetan. Ikasleagoak, oro har, jarduera eta erantzunkizun baliosak daramatza gizartean.

AEKko ikasleagoaren ikasketa-maila biziki gora da. Baxilergoa egin dutenak, gehi unibertsitatean ibili direnak, gehi formakuntza berezi bat egin dutenak, erizaingo edo arte eder, orotara %80ra heltzen dira. Oro har ikasle etorkinen maila bertakoena baino gorago da. Adibidez, unibertsitateko ikasketak egin dituztenak %52 dira, herrikoak %40. Hots, emazte eta gizon aktibo eta argi horiek euskararen garrantzia ulertu dute. Asma daiteke ez dutela zailtasunik aurkituko euskararen ikaskuntzan. Ez da errana. Gai honek gogoeta bat merezi du.

## Emaitza pedagogikoak

AEKko irakaskuntzaren eraginkortasuna aztertu dugu pixka bat eta etorkinen ikaste zailtasunak agertu zaizkigu. Fitxetan ez da ematen ikaskuntzaren ebaluaketarik. Baina badakigu ikasleak nola banatzen diren ikasturte batetik bestera AEKk definitu dituen 8 urratsetan eta 3 mailetan. Bestalde eskala guziaz Europako Erreferentzia Markoan sartua da, A, B, C mailetan. Ondorioz inkesta soziologikoetan erabiltzen den tipologian banatzen ahal ditugu ikasleak. Lehen urratseko ikasleak (A1) hastapenean dira, baina ez dira euskaldun berri. 2. eta 3. urratsekoek (A2) euskara ulertzen dute eta doi bat erabiltzen beraz „elebidun hartzaile“ dira, ez dira oraino elebidun „eraginkor“. Atalase mailak (B1) definitzen du ikasleak noiz diren hiztun berri, hain zuzen 4. urratsetik goragokoak, euskara ongi edo aski ongi mintzo dutenak.

Euskara ikasteko urraspidean badira gunee ilun batzuk. Ateka zailena lehen urratsa bururaten gertatzen da. Orduan ikasle etorkinen %30 eta bertakoen %19 euskara ikastetik gelditzen dira. Zergatik? Ikaskuntzaren zailtasunak,

motibazio eskasa ala bizitzako gora beherak? Ez dakigu, ikerketarik ez baita egin. Beraz ezin da estrategiarik muntatu oztopo larri hori gainditzeko. Ondoko bi urratsetan ez da galtze handirik (%8).

Eta euskaldun berriak zenbat dira AEKko ibilbidean? Atalase maila (BI) gainditu dutenak herriko ikasleetan %47 dira, horietan %13 hobekuntzan sartu dira (B2). Etorkinetan ondorioak ahulago dira %38 euskaldun berri, horietan %7 hobetzen ari. Hona beste zailtasun bat argitu beharrekoa. Ikasle etorkinen ikasketa maila gorago da ; ikusiko dugu eleaniztasunean ere nagusi direla. Zergatik beraz ahulago dira euskara ikasterakoan? Zer laguntza berezi hartze lukete errazkiago ikasteko? Erantzun batzuk bila daitezke hizkuntza ingurumena aztertuz.

### **Eraitza demolinguistikoak**

Etorkin ala bertako, denek frantsesa badakite eta euskara ikasten dute. Eta beste hizkuntzak nola menperatzen dituzte? Hizkuntza gaitasun aitortuari begira, gehiengo handia elebiduna edo eleanizduna da. Frantsesdun elebakar gutiago da etorkinetan (%29) ezinez eta herrikoetan (%39). Beste ohar harri-garria da kasik bieledun bezainbat hirueledun badela nola herrikoetan hala etorkinetan (batez beste %31 versus %29). Hirueledun baino gehiagokoak %11 dira etorkinetan eta %2 herrikoetan, bostetan gutiago.

Frantsesaz aparte gaztelania eta ingelesa dira beste hizkuntza mintzatue-nak. Gaztelaniadun gehiago bada herritarretan eta ingelesdun gehiago etorki-netan. Gertatzen dena da batxilergoa erdiesteko gutienez bi atzerri hizkuntza ikasi behar direla. Hain segur ez dira ikasle guziak atalase mailaraino heltzen. Halere, gaur egun, elebakarrak analfabeto baten itxura dauka.

Ikerketan hizkuntza ingurunea ere aztertu da ikasleen familietan, lagunarteetan eta languneetan, galdeginez zenbat kide euskaldun diren eta, ahaideent-zat, zer heinetan.

Ikasleen familiak zehazki aztertu dira bizilagunaren, gurasoen, eta aitatxi-amatxien hizkuntza gaitasunaz galdeak eginez. Azkenean tipologia bat egin dugu: familia euskaldunak, erdaldunak eta elebidunak edo « mistoak ». Oro har hein berean daude, herenaren heinean. Baina, normal den bezala, ikasle etorkinak familia erdaldunetakoak dira gehiengo handi batean eta herrikoak familia euskaldunetakoak gehiengo ttipi batean. Baina hiru ikasturteetan zehar familien euskalduntasuna aldatu da. Ikasle etorkinen familiak gero eta euskaldunago dira bi bilakabideetan, familia erdaldunak gutiago dira (%72 1995-1996an, %59 2002-2003an, %47 2008-2009an) eta familia elebidu-nak gehiago (%16, %27, %39). Zorigaitzez, epe berean, herriko ikasleen familiak erdaldunago dira, familia euskaldunak gutiago (%56, %41, %42) eta familia elebidunak gehiago, etorkinen kasuan baino askoz gehiago (%21,

%44, %47). Ikerketa zehatz batean, ikus genezake zein den bizilagunaren edota haurren eragina etorkina euskalduntzera bultzatzeko.

Bi ikasturtetan, 2002-2003an eta 2008-2009an, hizkuntza giroa aztertu da ikasleen lagunartean eta languneetan. Bi kasuetan kide euskaldunak guti dira: « nehork » eta « batzuk » kategoriak gehituz proportzioa %80en inguruan dago. Baina beste ikusmolde bat har daiteke, egoera hobeki aztertzeko. Bi urteen arteko bilakaera ikus dezagun. Lagunen erdiak edo gehiago euskaldun dituzten ikasle etorkinak %13tik %34ra goratu da eta denbora berean lagunarte osoki erdaldunak %30tik %15ra beheratu. Herriko ikasleetan bilakaera berdina gertatu da, lagununen erdiak edo gehiago euskaldun dituzten ikasleak %13tik %29ra goratu dira eta lagunarte osoki erdaldunak %24tik %11ra jautsi. Ohargarri da, familiekin gertatzen denaren alderantziz, etorkinen lagunarteak herrikoenak bezain euskaldunak direla eta batzutan euskaldunago. Erran nahi luke ikasle etorkinek mintzakide euskaldunak bilatzen dituztela. Adiskideak hautatzen dira, aldiz familia ez da hautatzen, ez eta ere lankideak kasu askotan. Edo, beste arrazoia, lagun edo lankide euskaldunengatik euskara ikasten hasten dira.

AEKko ikasleen lankideekin, bere lagunekin egin dugun ariketa berdina errepikatzen badugu, ez ditugu batere ondorio berdinak ardiesten. Lehenik eta behin, languneak lagunarteak baino askoz erdaldunago dira. « Nehork » eta « batzuk » kategoriak gehitzen baditugu orokorki lankideekin ikasleen %82ra heltzen gara eta lagunekin %76ra, 6 punduren ezberdintasunarekin. Orain lankideen erdiak edo gehiago dituzten ikasleak kontatzen baditugu, ba ote da hobekuntzarik bi ikasturteen artean? Ikasle etorkinetan bai, %15etik %20ra goratu dira eta denbora berean langune osoki erdaldunak %56tik %37ra beheratu. Bertako ikasleetan ere bai, lankideen erdiak edo gehiago euskaldunak dituzten ikasleen proportzioa %14tik %22ra goratu dira eta langune osoki erdaldunak %54tik %36ra jautsi. Beraz bi kasuetan languneak euskaldunak dira, abiadura berdinean eta ondorio berdintsuekin.

Konparaketa soziolinguistiko orokor bat egin da atal honetako taula diakronikoan (3.12.3.). AEKko ikasleen familiak, lagunarteak eta languneak konparatu ditugu epe berean egin ziren hiru inkesta soziolinguistikoekin 1996an, 2001ean eta 2006an. Haatik hiru kategoriako tipologiatik (euskaldunak, elebidun hartzaileak, erdaldunak) bi kategoriako tipologira pasatu gara ezinbestean (erdaldunak eta besteak), ezin baititugu elebidun eraginkorrak eta hartzaileak bereizi ikasleen hizkuntza ingurumenean. Inkesta soziolinguistikoetan bereizi ditugu 16 urtez goragoko jendetza osoaren emaitzak (16-90 urtekoak) eta ikasle gehien adinekoenak (24-49 urtekoak). Zer agertzen da euskaldunen eta kasik-euskaldunen kategorian?

1995-1996ko ikasleen gurasoak, urte berean egin den inkestako jendetza baino askoz euskaldunago zirela (%50 versus %36), 14 punduren aldearekin. Beste bi ikasturteetan, familia osoa aztertu zen, lagunarteekin, eta lan giroekin batera. Eta halere ahaideak beren adineko herritarrak baino askoz euskaldunago ziren: 2002an 9 punduren aldearekin eta 2008an 14 punduren aldearekin.

2002an AEKko ikasleen lagunak ere beren adineko herritarrak baino erdaldunago ziren 10 punduren aldearekin, lankideak ere erdaldunago 16 punduren aldearekin. 2008an euskal giroak onera egin du ikasleentzat. Alabaina beren lagunak adin bereko herritarrak baino euskaldunago ziren 10 punduren aldearekin, lankideak ere euskaldunago baina puntu baten aldearekin soilik. Baina bi ikasturte hauetan ikasleen ahaideak beren lagunak eta lankideak baino askoz euskaldunago dira orokorki. Egia da beraz herriko ikasleentzat. Ikusi dugu etorkinen familiak bertakoenak baino azkoz erdaldunago direla, etorkinen eta bertakoen lagunarteak eta languneak berdintsuak direlarik hizkuntza giroaren aldetik.

Dena dela ageri da AEKko ikasleen hizkuntza ingurunea euskalduntzen ari dela. Nolaz hori? Errealitatea da ala pertzepzioa? Errealitatea da AEKren 40 urte hauetako dimanika. Ikasleak euskalduntzen ari diren neurrian, bere, ingurunea ere euskalduntzen dute. Ohargarri da ere 40 urtez euskararen aldeko iritziak eta jarrerak hobetu direla. AEKko ikasleek ez ote dute beren ingurunea den baino euskaldunago ikusten? Dena dela pertzepzioekin psikolinguistikan sartzen gara.

### **Eraitza psikolinguistikoak**

2002an eta 2008an euskara ikasteko motibazioak aztertzeke xedearekin 8 erantzun proposatu zeie AEKko ikasleei. Herritarrentzat motibazio nagusiak dira euskaldunen arteko komunikazioa, nortasunaren adierazpena eta euskal kulturaren jabekuntza. Etorkinen motibazio nagusiak dira euskaldunekin komunikatzea, ondotik euskal kulturaren jabekuntza eta integrazioa. Bi jatorri multzoentzat motibazio indartsuena komunikazioa da eta ahulena euskara lanerako da.

Motibazioaren erranahia sakontzeko 8 erantzunak 3 multzotan sailkatu ditugu:

- nortasunaren eremuko motibazioak: kultura, integrazioa eta sustrai bila ;
- motibazio praktikoak: komunikazioa, euskararen transmisioa, lan hizkuntza ;
- motibazio linguistikoak: hizkuntzak maite eta beste.

Zenbaki gordinak hartuz ala ehunekoak kontatuz euskal nortasunari buruzko motibazioak dira lehen mailan ikaslego osoarentzat. Herriko ikasleek euskararen bidez beren sustiraiak aurkitu nahi dituzte eta etorkinen xedea da Euskal Herrian integratzea. Ohargarri da etorkinek bertakoek baino atxikimendu handiagoa adierazten dutela euskal kuturaz eta nortasunaz. Integrazio nahiaren seinalea hain segur.

Motibazio praktikoak erdi mailakoak dira bi jatorri multzoentzat. Ikusi dugu bi multzoentzat euskal komunikazioa dela lehen motibazioa eta euskara lanerako hizkuntza azkena. Euskararen erabileraz eta transmisioaz herriko ikasleek kartsutasun gehiago adierazten dute bertako ikasleek ezinez eta etorkinek: hauen keska naguzia da kokagune bat aurkitzea Euskal Herrian.

Euskarari buruzko interes linguistikoa, azken mailan dago AEKko ikaslego osoarentzat. Zergatik motibazio intelektual hau hain ahula da, dakigularik ikaslen ikasketa maila eta eleaniztasuna biziki indartsuak direla? Ikasleak baitira, hizkuntzaren zailtasunekin borrokan ari baitira. Alabaina hizkuntza baten edertasuna dastatzeko, hizkuntza ongi menperatu behar da, literatura irakurri, kantuak eta antzerkiak ulertu eta nolazbait idazten hasi. Ikasleen %10 hobekuntza mailan (B2) dabilta eta %16k « hizkuntzak maite dituzte », berdin herrikoetan eta etorkinetan. Antzeko proportzioak beraz.

2008-2009 ikasturtean ikasleen helburuak zehaztu nahiz, 10 proposamen egin dira erantzuleen hauturako. « Adiskideekin sinpleki mintzatzeko » lehen hautua ororentzat. « Euskaraz frantsesez bezain ongi mintzatzeko », 2. hautua da bertakoentzat, 3.a etorkinentzat. Alderantziz « irratia, telebista ulertzeko », 2. hautua da etorkinentzat, 3.a bertakoentzat. « Euskaraz ahal bezain usu mintzatzeko » 4. hautua da ororentzat. Eta « lanbide bat euskararen bidez eskuratzea » azken hautua da ikaslego osoarentzat. Ikasle guztiak oinarrizko komunikazioan mugatzen dira. Itxuraz gaitasun handigo bat bilatzen dute herriko ikasleek. Aldiz euskararen transmisioa ez da nehoentzat lehentasunetan sartzen.

## Euskararen etorkizuna

Altaba azken gogoeta bat egin behar genuke euskararen etorkizunari buruz. Eta lehenik AEKko ikasleek nola transmititzen dute euskara beren haurrei. Galderak baziren gai honi buruz bi ikasturtetan. 2002-2003an guraso diren ikasleak %57 etorkinetan eta %37 bertakoetan. Berdintsu 2008-2009an. Bigarren galdea zen « Zure haurrak eskolan euskara ikasten ari dira ? ». 2002-2003an guraso etorkinen %33ren haurrak euskara ikasten ari dira eskolan bai eta ere %48 bertakoena. 2008-2009an %42 guraso etorkinen haurrak eta %54 bertako gurasoenak euskalduntzen ari ziren. Bi jatorri multzoak konparatuz, aldi oroz guraso etorkinek haur gehiago sortzen dituz-



te eta euskaldun gutiago moldatzen ; guraso herritarrek xede indartsuagoa erakusten dute haurrak euskalduntzeko. Bi multzoetan, ikasturte batetik bestera, kartsutasun handiagoa agertzen da euskararen jarraipenaz. Norabide berera doan fenomenoa da ikasleen familien euskalduntasuna: familiak euskaldunago eta euskaren jarraipena bermatuago da.

Konparaketa argigarri bat egin genezake BABko guraso gazteekin. 2001ean CSA iritzi azterketa erakundeak inkesta bat egin zuen 3 urte eta gazteagoko haurrak zituzten gurasoetan, Hiri Elkargoak eta Hezkuntza Ministeritzak eskaturik. Laginan zeuden 501 gurasoetan %56 etorkinak ziren eta %44 Euskal Herrian sortuak. Lehen galdea zen « Nahi zenuke zure haurrak euskara ikas dezan eskolan? ». Orokorki %56k xede baikorra adierazi zuten, guraso etorkinen %54k, eta bertakoen %58k. Erantzunak, AEKko ikasleek bezain baikorrak dira edo baikorragoak. Kasu ! Baionaldeko gurasoen xedeak konparatzen ditugu AEKko ikasleen jokabideari: hauek beren haurrak euskara ikasten ezarriak dituzte.

Bigarren galdea motibazoei buruz zen: « Zergatik nahi duzu haurrak euskara ikas dezan? ». Galdera irekia zen ez baitzen erantzun proposamenik. Gurasoen motibazioak Euskal Herriari, euskal kulturari eta euskal nortasunari lotuak dira. « Euskal Herrian bizi gara » arrazoi nagusia da ororentzat eta %37ren heinean. Etorkinek kulturaren aberastasuna eta izpirituaren irekidura azpimarratzen dutelarik, herritarrak gehiago jatorriari eta ondareari atxikiak dira. Nortasun kolektiboa etorkinentzat integratzeko nahia da, herrikoak euskara gal bedur direlarik. Guzientzat arrazoi ahulena da « euskara lanerako eta lanbidearentzat baliagarri ». Beraz gurasoen helburuak ez dira profesionalak, baina bai kulturalak. Ikusi dugu AEKko ikaslegoarentzat ere motibazio nagusiak nortasunari lotuak direla, lanbideari baino gehiago.

« Zer da euskal nortasuna XXI. mendearen hasieran? ». Hori zen 2005ean egin den ikerketa baten galdera nagusia. « Zein dira baldintza garrantzitsuenak norbaitek bere burua euskal herritartzat sentitzeko? ». Tokikoen eta kanpokoek erantzunak konpara ditzazkegu. Bi multzoentzat lehen sei baldintzak berdinak dira, ordena berean baina ez neurri berean. « Euskal Herrian sortua izan » eta « euskaraz hitz egin », tokikoentzat garrantzi handiagoa dute. « Arbaso euskaldunak ukan » eta « Euskal Herrian bizi eta lan egin » kanpokoek hautatzen dituzte neurri handiagoan. « Euskal Herritar izan nahia » eta « Herria defendatu » baldintzak tokikoek azpimarratzen dituzte kanpokoek baino askoz gehiago.

Ohargarri da etorkinek eta herritarrek kasik molde berean definitzen dutela euskal nortasuna. Elementu batzuk tradizionalagoak dira, herria, arbasoak, hizkuntza, ondarea. Beste baldintza batzuk boluntarismoari lotuak dira, herrian bizi eta lan egin, euskaldun izateko nahia, abertzaletasuna.

Gure ikerketaren garrantzizko irakaspena da, Ipar Euskal Herrian euskara ikasten dutenen motibazio nagusia euskal nortasunari lotua dela. Baina ikasleen jatorriaren arabera helburuak ez dira osoki berdinak. Euskararen bidez etorkinek nahi dute Euskal Herrian integratu, kultura berri batez gozatu, hemen bizi eta lan egin. Aldiz bertako ikasleek nahi dute arbasoen ondarea atxiki, sorterrria zaindu eta hobeki Euskal Herritar izan.

Dena dela, ikasle gazteagoen kezka nagusia da nortasun pertsonalaren formakuntza, balore zaharrak eta berriak uztartuz. Heldutasunaren ezaugarri bat da ulertzea herria eraikitzen dela herritarren eta etorkinen lankidetzaz, besteak beste herri hizkuntzaz jabetuz.

## BIBLIOGRAFIA

- Aierdi Xabier eta Uranga Belen (arg.), 2008, *Euskara, immigrazioa eta bizkuntza eskubideak. Lan jardunaldiaren inguruko gogoetak*, Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokia eta Amarauna UNESCO Etxea, Bilbo.
- Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea (AEK), [www.aekide.net](http://www.aekide.net)
- Baxok Erramun eta beste, 2006, *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Chambre de Commerce et d'Industrie de Bayonne Pays Basque, 2007, *Ipar Euskal Herriko atlas ekonomikoa – Atlas économique du Pays Basque*, [www.bayonne.cci.fr](http://www.bayonne.cci.fr).
- Chambre de Commerce et d'Industrie de Bayonne Pays Basque, 2009, *Le Pays Basque en chiffres – Iparraldeko zenbakiak*, [www.bayonne.cci.fr](http://www.bayonne.cci.fr).
- Clark Colin, 1939, *Conditions of Economic Progress*, Macmillan, London.
- CSA Institut, 2001 octobre, *Les parents d'enfants de 0 à 2 ans du B.A.B et l'apprentissage de la langue basque*, [www.csa-tmo.fr](http://www.csa-tmo.fr).
- Datutalaia, *Euskal Herriko datuen talaia*, [www.datutalaia.net](http://www.datutalaia.net).
- Euskal Herriko Garapen Kontseilua – Conseil de Développement du Pays Basque, 2003, *Le Pays Basque à mi parcours entre 1992 et 2010*, Baiona, [www.lurraldea.net](http://www.lurraldea.net).
- Eusko Jaurlaritza, 1997, *Euskararen jarraipena II - Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 1996*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- \_\_\_\_\_, 2003, *Euskararen jarraipena III - Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta 2001*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- \_\_\_\_\_, 2008, *IV. Inkesta Soziolinguistikoa 2006*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- Gaindegia, 2008, *Informe Gaindegia 2007 / Rapport Gaindegia 2007*, Gaindegia, Andoain.
- Sánchez Carrión “Txepetx” José Maria, 1987, *Un futuro para nuestro pasado: Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*, Donostia.
- Uranga Belen eta beste, 2006, *Hizkuntzak eta immigrazioa - Lenguas e inmigración*, Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokia eta Amarauna UNESCO Etxea, Bilbo.
- UZEI, 1981, *Ekonomia Hiztegia*, Elkar, Donostia.
- Zenbaiten artean, 2008, “*Immigrazioa Euskal Herrian*”, *Jakin*, 165, Donostia.



2009ko Korrika Ipar Euskal Herrian (Azkaine)

# ERANSKINAK

## **I. Ikasle-fitxak**

I.1. Ikasle fitxa 1995-1996

I.2. Ikasle fitxa 2008-2009

## **2. Baliabide zenbatu gehigarriak**

2.1. CSA ikerketa BABko guraso gazteei euskararen irakaskuntzaz (2001)

2.2. Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran (2005)



# I. IKASLE-FITXAK

## I.I. Ikasle fitxa 1995-1996

IKASLE FITXA 95/96		
Urtea:		
Gau eskola:	Urratsa:	Erakaslea:
Izena:	Deitura:	Sexua (G/E):
Adina:	Sorlekua:	
Helbidea:	Herria:	
Posta kodigoa:	Etxeko telefonoa:	Lanekoa:
Lanbidea:	Lantokia:	
Kodigoa:		
Langebezian:		
Z.urte E.H.:		
Zein hizk:		
espainola=1   inglesa=2   alemana=3   italiera=4   bearnesa=5   rusoa=6 néerlandais=7   portugesa=8   arabiera=9   grekoa=10   txeka=11   gaskoinera=12 sarde=13   latinoa=14   korsoa=15   norvégien=16   hungariera=17   ossalooa=18 txinera= 19		
Aitak (b/z/e):		Amak:

IKASPROZESUA

94ko ikasturtean urrats4:  
93ko ikasturtean urrats3:  
92ko ikasturtean urrats2:  
91ko ikasturtean urratsI:  
Ikasturtean:

Gau eskolan4:  
Gau eskolan3:  
Gau eskolan2:  
Gau eskolanI:  
Zer ?:

ikastaldiak4:  
ikastaldiak3:  
ikastaldiak2:  
ikastaldiakI:  
orduak:

AEK-ren berri zer:

zein:

I=prentsa  
2=irradiak

3=harremanak  
4=propaganda



## I.2. Ikasle Fitxa 2008-2009

Fiche élève

Maila : .....

GAU ESKOLA : .....

**IKASLEAREN DATUAK**  
*Renseignements concernant l'élève*

Izena/*Prénom*: ..... Deitura/*Nom*: ..... Sexua: E  G   
 Sortze urtea/*Année de naissance* : ..... Sort herria/*Lieu de naissance* .....  
 Helbidea/*Adresse* : .....  
 Posta kodigoa/*Code postal* : ..... Herria/*Ville*.....  
 email : .....  
 Zurekin harremanetan errexki sartzeko tel/*Tel pour être facilement joignable* : .....

**Lan egoera/*Situation professionnelle***

Lantegia/*Employeur*: .....  
 Lan bidea/*Profession*: ..... Lanbiderik gabe/*Sans profession*  
 Langabezian/*Demandeur d'emploi*  Erretretan/*Retraité*

**Ikasketa maila/*Niveau d'études***

Batere ez/ <i>Aucune</i>	1
Lehen maila/ <i>Etudes primaires</i>	2
BEPC	3
BEP/CAP	4
Baccalauréat	5
Unibertsitateko ikasketak/ <i>Etudes universitaires</i>	6
Beste formakuntzak/ <i>Autres formations</i>	7
Zoin ?/ <i>Lesquelles ?</i> : .....	

**Beste hizkuntzarik menperatzen duzu ? Zeintzu/  
*Quelle(s) autre(s) langue(s) parlez vous ?***

.....

<b>Zenbat urte Euskal Herrian ?</b> <i>Depuis combien de temps vivez vous au Pays basque ?</i>	
Urte bat baino guttiago/ <i>Moins d'un an</i>	1
5 urte baino guttiago/ <i>Moins de 5 ans</i>	2
10 urte baino guttiago/ <i>Moins de 10 ans</i>	3
10 urte baino gehiago/ <i>Plus de 10 ans</i>	4
Betidanik/ <i>Depuis toujours</i>	5

<b>Zure familian nork daki (zekien) euskara ?</b> <i>Qui sait ou savait parler basque dans votre famille ?</i>				
	<i>Batere</i> <i>Pas du tout</i>	<i>Doi bat</i> <i>Un peu</i>	<i>Aski ongi</i> <i>Assez bien</i>	<i>Ongi</i> <i>Bien</i>
Bizilaguna/ <i>conjoint</i>	1	2	3	4
Amak/ <i>mère</i>	1	2	3	4
Aitak/ <i>père</i>	1	2	3	4
Amaren aita/ <i>Grand père maternel</i>	1	2	3	4
Amaren ama/ <i>grand mère maternelle</i>	1	2	3	4
Aitaren aita/ <i>Grand père paternel</i>	1	2	3	4
Aitaren ama/ <i>grand mère paternelle</i>	1	2	3	4
Haurrik baduzu ?/ <i>Avez vous des enfants ?</i>			Bai/ <i>Oui</i> <input type="checkbox"/>	Ez/ <i>Non</i> <input type="checkbox"/>
Zure haurra(k) eskolan euskara(z) ikasten ari dira ? <i>Vos enfants apprennent-ils l'euskara à l'école ?</i>			Bai/ <i>Oui</i> <input type="checkbox"/>	Ez/ <i>Non</i> <input type="checkbox"/>

<b>Zure ingurukoaren artean nork daki euskara ?</b> <i>Qui parle basque dans votre entourage ?</i>				
	<i>Nehork</i> <i>Person-ne</i>	<i>Batzuek</i> <i>Quelques un(e)s</i>	<i>Erdiak</i> <i>la moitié environ</i>	<i>Kasik denek</i> <i>Presque tou(te)s</i>
Maiz ikusten dituzun lagunak <i>Parmi les amis que vous fréquentez régulièrement</i>	1	2	3	4
Zure lankideen artean <i>Parmi vos collègues de travail</i>	1	2	3	4

**Zerk motibatzen zaitu euskara ikastera ?**  
*Quelles sont vos motivations pour apprendre l'euskara ?*

	<i>Zehaztu/précise éventuellement</i>
Euskal kultura nereganzeko <i>Pour mieux appréhender la culture basque</i>	1 .....
Euskal Herrian integratzeko <i>Désir d'intégration au Pays basque</i>	2 .....
Nere sustriak, nortasuna atxemaiteko <i>Pour retrouver mes racines, la culture de mes ascendants</i>	3 .....
Euskaldunekin komunikatzeko <i>Pour communiquer avec les bascophones</i>	4 .....
Nere haurrak euskara ikasten ari direlako <i>Pour aider mes enfants qui l'apprennent à l'école</i>	5 .....
Lana atxemaiteko edo aldatzeko <i>Pour trouver un emploi ou avoir une nouvelle qualification</i>	6 .....
Hizkuntzak maite ditudalako <i>Intérêt pour les langues</i>	7 .....
Besterik <i>Autre</i>	8 .....

**Zure helburuak zehazten ahal dituzu ?**

*Pouvez vous préciser vos objectifs ?*

*(lisez la totalité des phrases et entourez le chiffre de celle(s) qui répondent à vos objectifs)*

- 1 Je veux apprendre quelques notions
- 2 Je veux comprendre quelques phrases simples
- 3 Je veux être capable de comprendre la radio, la télé
- 4 Je veux m'exprimer simplement avec des amis
- 5 Je veux aider mes enfants qui apprennent le basque à l'école
- 6 Je veux transmettre le basque à mes enfants comme langue première
- 7 Je veux pouvoir aussi exercer mon activité professionnelle en basque
- 8 Je veux obtenir un emploi grâce à l'euskara
- 9 Je veux pouvoir m'exprimer aussi bien en basque qu'en français
- 10 Je veux parler basque le plus possible dans mes relations, à mon travail

2008ko urritik 2009ko ekaina arte kurtsoak erregulariki segitzea engaiatzen naiz. Klasea huts eginez gero Gau Eskola abertituko dut. Halaber uzten badut, nere abandonoren arrazoinak jakinaraziko ditut.

.....egina, 2008ko .....

Izenpedura :

Je m'engage à suivre régulièrement les cours d'octobre 2008 à juin 2009. En cas d'absence je m'engage à prévenir l'enseignant ainsi qu'à signifier les raisons d'un abandon éventuel.

Fait à ..... le .....2008

Signature :

## 2. BALIABIDE ZENBATU GEHIGARRIAK

### 2.1. CSA ikerketa BABko guraso gazteei euskararen irakaskuntzaz (2001)

**Lagina:** 501 pertsona, 0-2 urteko haurrak dituzten gurasoen lekukoak.

**1. galdea** orori: « Urte bat edo biren buruan, zure haurrak eskola hasiko du. Nahi zenuke zure haurrak euskara ikas dezan eskolan? »

<i>Erantzuna</i>	<i>Tokikoek</i> (220 guraso)	<i>Kanpokoek</i> (281 guraso)	<i>Orokorki</i> (501 guraso)
OUI	%58	%54	%56
NON	%40	%43	%42

BAI: 282 gurasok, osoki %19, nahiago bai %37.

EZ : 209 gurasok, nahiago ez %19, arrunt ez %23.

**2. galdea** 209 gurasori: « Zergatik ez duzu nahi zure haurrak euskara ikas dezan? »

	<i>Herrikoak</i> (88 guraso)	<i>Etorkinak</i> (121 guraso)	<i>Orokorki</i> (209 guraso)
Ez gara hemengoak, ez euskaldun	%9	%38	%26
Euskara ez da baliagarria	%27	%24	%25
Etxean nehork ez daki euskara	%29	%21	%24
Hobe ingelesa ikas dezan	%29	%20	%24

**3. galdea** 282 gurasori: « Zergatik nahi duzu zure haurrak euskara ikas dezan? »

	<i>Herrikoak</i> (129 guraso)	<i>Etorkinak</i> (153 guraso)	<i>Orokorki</i> (282 guraso)
Euskal Herrian bizi gara	%37	%37	%37
Kultura aberastasuna, izpiritu irekia	%23	%25	%24
Ondareari, jatorriari atxikiak	%20	%15	%17
Familiako komunikazioa	%16	%11	%13
Haurra Euskal Herrian sortua	%9	%12	%11
Baliagarrai integratzeko	%3	%16	%10
Hizkuntza ez dadin gal	%15	%6	%10

**4. galdea** 282 gurasori: « Nahi zenuke euskara ikasten has dezan ama-eskolan? »

BAI: Herrikoek % 79, etorkinek %73, orokorki %75.

EZ : Herrikoek % 21, etorkinek %27, orokorki %25.

**5. galdea** 282 gurasori: « Zer ondorio espero duzu euskararen eta frantsesaren ikaskuntzatik? »

	<i>Herrikoak</i> (129 guraso)	<i>Etorkinak</i> (153 guraso)	<i>Batezbesteko</i> (282 guraso)
Frantsesa eta euskara biziki ongi	%30	%19	%24
Frantsesa bikain, euskara aski ongi	%59	%56	%58
Frantsesa bikain, euskaraz zerbait	%11	%24	%18

**6. galdea** 170 gurasori: « Bi hizkuntza pedagogia eredu proposatuak zaizkitzue. Zein nahiago zenuke? »

Euskarazko eta frantsesezko ikaskuntza denbora erdiz I. mailan : %84.

Euskaraz ama-eskolan eta gero frantsesa sar urratsez urrats : %13.

7.,8.,9. galdeak orori: « Prest zarete haurren izena emateko aukeratu duzuen eredia eskaintzen duen eskola batean? »

	<i>Herrikoak</i> (220 guraso)	<i>Etorkinak</i> (281 guraso)	<i>Batezbesteko</i> (501 guraso)
Zure auzoan berean	%30	%19	%24
Zure hiriko beste auzo batean	%59	%56	%58
BABko beste bi hirietako batean	%11	%24	%18

### Laginareen egitura

<i>Bizitza lekua</i>	<i>Kopurua</i>	<i>%</i>
Baionan bizi	220	%44
Biarritzen bizi	121	%24
Angelun bizi	159	%32
<i>Sorlekua</i>	<i>Kopurua</i>	<i>%</i>
Euskal Herrian sortuak	219	%44
Euskal Herritik kanpo sortuak	280	%56
<i>Erantzuleen bizkuntza gaitasuna</i>	<i>Kopurua</i>	<i>%</i>
Euskara ongi jakin	46	%9
Euskara doi bat jakin	128	%26
Euskara ez ulertzen	327	%65

## 2.2. Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran (2005), jatorriaren arabera (%)

Jatorria	Iparralde	Tokioa	Tokioa, ama/ aita kanpokoak	Kanpoko
<i>Baldintza berberetan non bizitzea nahiago zenuke?</i>				
- Iparraldean	48	57	48	40
- Euskal Herrian	18	23	16	13
- Frantzia nonahi	5	4	5	6
- Europa nonahi	6	2	5	9
- Munduan nonahi	11	5	13	16
- Berdin zait	7	6	8	9
<i>Nola sentitzen zara?</i>				
- Gehienbat euskal herritar	16	30	15	4
- Euskal herritar – frantses	24	36	30	11
- Gehienbat frantses	52	31	51	72
- Bestelakoa	7	2	3	12
<i>Nola sentitzen zara duela 10 urterekin konparatuz?</i>				
- Frantsesago	8	3	9	9
- Berdin	76	83	79	68
- Euskal herritarrago	15	13	11	19
- Ed/ee	3	1	2	4
<i>Zure ustez, nola sentituko zara berrindik 10 urtetara?</i>				
- Frantsesago	3	1	2	6
- Berdin	71	73	77	68
- Euskal herritarrago	9	7	11	11
- Ed/ee	16	19	10	15
<i>Norbera euskal herritartzat hartzeko baldintzak</i>				
- Euskal Herrian sortua	53	54	60	50
- Deitura euskalduna	6	6	4	6
- Arbaso euskaldunak	31	30	33	31
- Euskal Herrian bizi eta lan	24	25	22	24
- Euskaraz hitz egin	40	42	38	38
- Herriaren defenditzaile	13	10	14	15
- Euskal dantza, musika...	2	2	3	2
- Euskal kirol eta joko	1	1	2	2
- Euskal Herritar izan nahia	14	16	16	11
- Besterik	3	2	1	3



<i>Jatorria</i>	<i>Iparraldea</i>	<i>Tokikoa</i>	<i>Tokikoa, ama/ aita kanpokoak</i>	<i>Kanpokoak</i>
<i>Nola hitz egiten duzu frantsesez?</i>				
- Batere ez	0	0	0	0
- Hitz batzu	0	0	0	0
- Pixka bat	0	0	0	0
- Aski ongi	1	0	0	2
- Oso ongi	98	99	99	97
<i>Nola hitz egiten duzu euskaraz?</i>				
- Batere ez	47	22	50	71
- Hitz batzu	18	13	27	20
- Pixka bat	8	9	12	5
- Aski ongi	6	11	5	1
- Oso ongi	21	44	6	3
<i>Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu errazago?</i>				
- Euskaraz	4	8	0	0
- Frantsesez	12	24	7	2
- Bietan berdin	10	21	3	2
- Beste hizkuntza batean	1	2	0	0
- Ez daki euskaraz	73	44	89	96
<i>Zein izan zen zure lehen hizkuntza 3 urte bete arte?</i>				
- Euskara	23	51	9	2
- Frantsesa	63	35	80	85
- Biak	5	9	6	1
- Beste bat	9	5	5	12
<i>Euskara ikasten ari zara?</i>				
- Bai	4	4	5	3
- Ez, baina lehen aritu naiz	8	13	8	6
- Ez, baina gustatuko litzaidake	20	17	21	20
- Ez, eta ez dut asmorik	61	51	59	66
<i>Zertarako euskara ikas?</i>				
- Herri honetan integratzeko	11	6	8	15
- Nire erroak aurkitzeko	16	25	32	8
- Lanerako	5	6	1	6
- Euskaldunekin komunikatzeko	46	42	51	47
- Herri honetako hizkuntza delako	34	34	32	35
- Euskal herritar sentitzen naizelako	14	22	25	7
- Nire haurrak ikasten ari baitira	6	6	7	6
- Besterik edo ed/ee	21	22	18	21

<i>Jatorria</i>	<i>Iparralde</i>	<i>Tokikoa</i>	<i>Tokikoa, ama/ aita kanpokoak</i>	<i>Kanpoko</i>
<i>Euskara ez ikasteko arrazoiak</i>				
- Euskal kultura ez zait interesatzen	3	I	4	3
- Ez dut behar lanerako	6	7	I	6
- Denek frantsesa dakite	17	22	10	17
- Euskara politikarekin lotua da	3	3	3	3
- Euskara oztopo izan zen	I	I	0	0
- Dakidanarekin konpontzen naiz	4	4	4	3
- Ez naiz euskal herritar sentitzen	8	3	3	II
- Nahiago dut denbora bestela pasatu	32	34	39	30
- Arrazoirik ez ikasteko	6	3	9	6
- Adinagatik	II	II	II	II
- Zaila delako	9	5	13	9
- Besterik, ed/ee	12	II	9	13
<i>Baztertua sentitu zara eukaraz ez jakiteagatik?</i>				
- Bai	34	28	44	34
- Ez, inoiz ez	58	60	51	59
- Ed/ee	8	12	5	7
<i>Nahi zenuke seme-alabek euskara jakitea?</i>				
- Jadanik badakite	18	31	8	8
- Bai, nahiko nuke	45	47	48	41
- Berdin zait	20	12	24	26
- Ez, ez nuke nahi	12	4	13	18
- Ed/ee	6	5	7	6
<i>Euskal izenak atxikitzearen eta bultzatzearen alde ala kontra?</i>				
- Oso alde	31	36	31	25
- Alde	46	44	47	47
- Ez alde ez kontra	16	14	14	18
- Kontra	I	I	I	2
- Ed/ee	6	5	7	8

<i>Jatorria</i>	<i>Iparraldea</i>	<i>Tokikoa</i>	<i>Tokikoa, ama/ aita kanpokoak</i>	<i>Kanpokoak</i>
<i>Euskal kulturari gehienik lotzen diren 3 elementuak:</i>				
- Dantzak	38	40	38	36
- Musika	19	19	20	20
- Kantuak	39	35	35	35
- Antzerkia, pastoralak	4	6	1	3
- Pilota	32	34	31	31
- Herri kirolak	9	9	7	10
- Euskara	43	47	41	40
- Literatura	2	3	4	2
- Monumentuak	10	7	11	12
- Jaiak	18	17	26	16
- Ohiturak	27	26	34	26
- Gastronomia	19	16	23	21
<i>Euskal kulturari lotu ekintza gehiago nahi?</i>				
- Bai, gustatuko litzaidake	39	38	42	38
- Berdin zait	24	21	23	26
- Ez, ez da beharrezkoa	32	36	30	30
- Ed/ee	5	5	5	6



ERRAMUN BAXOK ET JEAN-BAPTISTE COYOS

L'ENSEIGNEMENT DU BASQUE  
AUX ADULTES NATIFS ET NON  
NATIFS EN PAYS BASQUE NORD

Étude des apprenants d'AEK



## TABLE DES MATIERES

<b>Avant-propos</b>	
Andres Urrutia (Président de l'Académie de la langue basque)	I61
Jakes Bortayrou (Coordinateur d'AEK en Pays Basque Nord)	I63
<b>I. Introduction</b>	I65
I.1. Les arrivants et la langue basque – Pourquoi un tel projet ?	I65
I.1.1. AEK : une source de données concernant les adultes qui apprennent le basque en Pays Basque Nord	I65
I.1.2. Les objectifs de la recherche	I66
I.2. Les arrivants et les natifs : définitions adoptées dans cette étude	I67
I.3. La population et les arrivants en Pays Basque : quelques données	I68
I.3.1. Évolution de la population en Pays Basque ces dernières années	I68
I.3.2. Le Pays Basque Sud et l'Espagne	I69
I.3.3. Le Pays Basque Nord et la France	I70
I.4. Remerciements	I72
<b>2. Le corpus et la méthodologie</b>	I73
2.1. Le corpus : les effectifs d'élèves et les fiches – La liste des questions	I73
2.2. Des données empiriques, déclaratives – La subjectivité de certaines réponses	I75
2.3. Les manques et les types d'erreurs	I77
2.4. Deux mots au sujet de la méthodologie	I78

Carte du Pays Basque des <i>Gau eskola</i> d'AEK .....	179
<b>3. Les arrivants et les natifs : les données sociodémographiques et démolinguistiques .....</b>	<b>181</b>
3.1. Les niveaux d'apprentissage à AEK .....	181
3.2. L'origine des apprenants .....	187
3.3. Le genre des apprenants .....	191
3.4. L'âge des apprenants .....	195
3.5. La situation professionnelle .....	201
3.6. La profession .....	207
3.7. Le niveau d'études .....	214
3.8. Combien d'années en Pays Basque ? .....	217
3.9. D'autres langues .....	220
3.10. La langue basque dans les familles des élèves .....	229
3.11. La langue basque et les enfants des apprenants .....	235
3.12. La langue basque dans l'environnement des apprenants	239
3.12.1. La langue basque parmi les amis .....	240
3.12.2. La langue basque parmi les collègues de travail	245
3.12.3. La famille, les amis et les collègues de travail des apprenants d'AEK .....	250
<b>4. Les arrivants et les natifs : les motivations et les objectifs ..</b>	<b>257</b>
4.1. Les motivations pour apprendre le basque .....	257
4.2. Les objectifs des apprenants d'AEK .....	268
4.3. Deux autres enquêtes :	
Sondage CSA : les parents d'enfants de 0 à 2 ans du B.A.B. et l'apprentissage de la langue basque (2001) ...	273
L'identité et la culture basques au début du XXIème siècle (2005) .....	275
<b>5. Principales conclusions de l'étude .....</b>	<b>281</b>
<b>Bibliographie .....</b>	<b>291</b>
<b>Annexes</b>	
<b>I. Les fiches-élèves .....</b>	<b>295</b>
I.1. La fiche-élève de 1995-1996 .....	295
I.2. La fiche-élève de 2008-2009 .....	297



---

<b>2. Informations chiffrées supplémentaires</b> .....	30I
2.1. Les parents d'enfants de 0 à 2 ans du B.A.B. et l'appren- tissage de la langue basque (2001) .....	30I
2.2. L'identité et la culture basques au début du XXIème siè- cle (2005) .....	304
<b>Photographies</b>	
I. Campagne de rentrée 2008-2009 .....	160
2. La Korrika 2009 en Pays Basque Nord .....	256
3. Campagne de rentrée 2007-2008 .....	280
4. La Korrika 2009 en Pays Basque Nord (Ascain) .....	292



egun on!

zer berri?

izan ontsa!

mila esker!

æk

ne donne pas  
ta langue au chat

**æk**

cours de basque aux adultes

INSCRIPTIONS | [www.aek.org](http://www.aek.org) | 05 59 25 76 09

Campagne de rentrée 2008-2009

## AVANT-PROPOS

Nous avons de plus en plus d'enquêtes sur la langue basque, comme celles qui nous indiquent qui utilise la langue, où, comment et pourquoi, et ceci dans divers domaines. Elles constituent des outils précieux pour les actions de soutien et de promotion du basque, afin d'améliorer le statut de la langue dans les différents territoires du Pays Basque.

Ce dernier point est depuis longtemps un des domaines d'action de l'Académie de la langue basque (*Euskaltzaindia*). Plus encore, depuis sa création-même l'Académie a eu cette préoccupation, et, que ce soit au département IKER ou au département JAGON, les contributions ont été nombreuses au cours de son histoire.

Cependant, plus récemment l'Académie a pris la décision de mener tous les ans des travaux qui prennent en compte les problématiques actuelles, à l'intérieur du département JAGON, dans le cadre de la commission SUSTAPEN.

C'est ainsi qu'en 2009 elle a retenu comme thème de recherche « La langue basque et les immigrés », et, suite à une préparation tout au long de l'année, elle a organisé en novembre un colloque qui a réuni des universitaires de grande renommée et des spécialistes impliqués au quotidien dans ce domaine, afin d'échanger réflexions et expériences.

Pour en venir à notre sujet, il faut souligner comment ce travail s'est développé. Ce sont les auteurs eux-mêmes qui en ont proposé la mise en route à la commission SUSTAPEN de l'Académie de la langue basque. De fait, Erramun Baxok et Jean-Baptiste Coyos sont des chercheurs connus dans le domaine de la sociolinguistique basque ; de plus, ils sont membres correspondant de l'Académie (*urgazle*) et de la commission SUSTAPEN.

C'est ainsi que leur proposition s'est concrétisée sous le titre *L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord - Étude des apprenants d'AEK*. Ils ont traité selon une méthodologie efficace et éprouvée les fiches que les apprenants de l'association AEK Pays Basque Nord d'enseignement du basque remplissent chaque année.

Les résultats ne sont pas anodins, qu'ils soient sociodémographiques ou démolinguistiques. Sont mis en évidence également les motivations des apprenants et leurs objectifs d'apprentissage. Dans les conclusions le lecteur constatera une envie, un souhait récurrent, à savoir l'intégration au Pays Basque et à sa culture, sans négliger la formation.

En deux mots, nous avons ici un nouvel outil pour connaître la situation de la langue basque. Nous devons en remercier les auteurs, mais aussi, également, Andres Iñigo, académicien et président du département JAGON, qui a pris à cœur la réalisation de ce projet.

L'Académie de la langue basque sait bien qu'elle n'est pas seule à se préoccuper du basque. C'est pour cela qu'il faut remercier vivement l'association AÈK Pays Basque Nord pour son accueil et son attitude loyale et positive envers l'Académie, tout au long de la réalisation de cette étude.

Les études, les recherches... se font selon les capacités et la volonté des chercheurs. Ensuite vient le soutien des institutions, que ce soit le soutien académique ou économique. Dans cet esprit, nous devons également remercier, au nom de l'Académie de la langue basque, l'Office Public de la Langue Basque qui a soutenu ce travail dans le cadre de la convention qu'elle signe chaque année avec l'Académie.

Enfin il est clair que si la publication de cette étude en basque et en français enrichit le travail en faveur de la langue basque, elle renforce, par ailleurs, l'image et l'action de l'Académie de la langue basque.

Souhaitant que d'autres études de ce genre aboutissent, tirons profit de ces pages qui pourront nous être utiles.

Andres Urrutia  
Président de l'Académie de la langue basque

## L'ENSEIGNEMENT DU BASQUE AUX ADULTES NATIFS ET NON NATIFS EN PAYS BASQUE NORD ETUDE DES APPRENANTS D'AEK

Le document que vous avez entre les mains présente un grand intérêt à plusieurs titres et au nom d'AEK je tiens à remercier chaleureusement ses auteurs, Erramun Baxok et Battittu Coyos ainsi qu'Euskaltzaindia et plus particulièrement Andres Urrutia et Iñaki Kareaga directement impliqués dans ce projet.

Ce travail vient combler un vide. En effet, bien que les élèves d'AEK remplissent chaque année une fiche de renseignements, nous avons rarement pris le temps d'étudier ces données comme elles le méritaient. De campagnes de rentrée en Korrika, d'assemblées générales en organisation de groupes spécifiques, les différentes activités s'enchaînent inexorablement et certaines tâches ont du mal à se maintenir dans le classement des priorités. Certes, chaque année des analyses partielles sont faites concernant le public touché par l'association et parfois des étudiants ont approfondi un point précis. Mais le travail précis et exhaustif réalisé cette année par Erramun et Battittu n'avait jamais été fait. Il était temps d'y remédier alors que l'association AEK va fêter son 30ème anniversaire en 2010.

Si les résultats de cette étude n'apportent pas de surprise extraordinaire, elles confirment ou infirment cependant de nombreuses intuitions et croyances. La comparaison avec d'autres études réalisées en Pays Basque est particulièrement intéressante. Elle nous aide ainsi à mieux comprendre la réalité et les changements socioculturels qui y interviennent. Et seule une bonne connaissance de cette réalité pourra nous permettre de définir des stratégies et axes de travail efficaces en faveur de la réappropriation de la langue basque. Au moment où AEK réfléchit à son plan stratégique pour les quatre prochaines années, la publication de cette étude ne pouvait mieux survenir.

De même on peut être sûr que les résultats de ce travail intéresseront aussi toutes les personnes préoccupées par la situation et l'avenir de la langue bas-

que. L'enseignement de l'euskara aux adultes est un outil important pour stopper le processus de recul linguistique et amorcer la réappropriation de la langue. C'est ce qu'a reconnu l'Office Public de la Langue Basque dans le cadre des orientations de son projet de politique linguistique pour les années à venir. Quel avenir pour cet enseignement ? Comment le développer, le soutenir, l'organiser ? Les questions ne manquent pas. Parmi celles-ci, la façon de susciter et de maintenir la motivation des apprenants n'est pas la moindre. A cet égard, ce travail constituera un apport précieux et particulièrement en ce qui concerne la situation des personnes venues s'installer au Pays Basque.

Jusqu'à présent, les campagnes publiques de motivation ont été à la charge d'AEK mais elles atteignent aujourd'hui leurs limites. Il faudra aussi dans l'avenir des campagnes institutionnelles comme cela a été fait pour l'enseignement du basque et en basque dans les écoles ou pour les médias bascophones. Cette étude constituera une référence intéressante au moment de définir ces futures campagnes.

Bonne lecture donc, et à nouveau merci de la part d'AEK à toutes les personnes qui ont participé à ce travail.

Jakes Bortayrou  
Coordinateur d'AEK en Pays Basque Nord

## I. INTRODUCTION

Cette recherche a été menée dans le cadre de la commission Sustapen du département Jagon de l'Académie de la langue basque, à l'occasion du quatorzième colloque Jagon qui a eu lieu le 20 novembre 2009 avec pour thème "Les arrivants et la langue basque". Elle s'appuie sur un accord de partenariat entre l'association AEK pour le Pays Basque Nord et l'Académie de la langue basque.

### I.I. LES ARRIVANTS ET LA LANGUE BASQUE – POURQUOI UN TEL PROJET ?

#### I.I.I. AEK : une source de données concernant les adultes qui apprennent le basque en Pays Basque Nord

La natalité est en baisse sur l'ensemble du Pays Basque. Cependant grâce à l'immigration la population augmente, que ce soit en Pays Basque Sud ou en Pays Basque Nord. Il est donc important de connaître les attitudes et les représentations des arrivants vis-à-vis de la langue basque (*euskara* en basque) et leurs pratiques linguistiques. Savoir où en est l'apprentissage de la langue basque par les adultes qui ne sont pas nés au Pays Basque sera utile dans la perspective d'assurer l'avenir de la langue, dans l'objectif d'améliorer les politiques linguistiques.

Nous avons quelques sources de données sur ce sujet, parmi lesquelles les différentes enquêtes sociolinguistiques où les non-natifs, les natifs, les natifs ayant un parent non natif ou les deux sont retenus comme variables (voir la bibliographie).

Mais il existe une autre source qui n'a pas été encore utilisée. La voici : Depuis 1994, chaque année, les apprenants d'AEK Pays Basque Nord remplissent une fiche de renseignements. *Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundea* (AEK) est une structure privée d'enseignement de la langue basque, qui pro-

pose aux adultes des cours du soir et des stages intensifs, entre autres<sup>1</sup>. Les niveaux de compétence à acquérir par les élèves se situent dans le *Cadre européen commun de référence pour les langues*.

AEK accueille la majorité des adultes qui apprennent le basque en Pays Basque Nord. Lors de l'année scolaire 2007-2008, par exemple, il y avait en tout 932 apprenants dans les *Gau eskola* (littéralement « école de la nuit »), sans compter ceux qui l'apprennent dans le cadre du travail ou d'une formation professionnelle. Lors de l'année scolaire 2008-2009, il y avait 955 apprenants.

Nous avons donc beaucoup de données, sachant que pour différentes raisons toutes ne sont pas utilisables et que d'autres manquent (voir le chapitre 2 « Le corpus et la méthodologie »).

Les données des fiches-élèves de chaque *Gau eskola* sont recopiées dans une base de données.

